ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-01-27
ASTELEHENA
438. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Erabakitzeko eskubidearen alde, Oñatin

Adierazpena sinatu dute askotariko herritarrek | 4



IMANOL SORIANO

Mikel Goñik jendea eraman zuen berriro Zubikoa pilotalekura | 25



Gune berria Aita Mennin, Lege Psikiatria Unitatea | 2



Ganbarakoen kantu kuttunenak disko berriaren aurkezpenean | 29



# Aloña 0 - Aretxabaleta 2

Atsedenaldiaren aurretik penaltiz gola sartu eta bigarren zatian eroso eutsi zien UDAk puntuei; bakarrera dituzte orain oñatiarrak | 22

Aloña Mendi erasoan; atea hutsean mantentzea lortu zuen Aretxabaletak.

JOSETXO ARANTZABAL

## SINADURAK



IÑAKI LAKARRA | 8

8 | UBANE MADERA





OIHAN ZUBIZARRETA | 14

16 | JON OLIVARES





AINHOA NEGERUELA | 18

19 | PALOMA MARTINEZ





OIHAN VEGA | 37

40 | AINHOA LARRAÑAGA






ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8 | ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39



Erizaina, Lege Psikiatria Unitate bateko logelan, ohea atontzen. | ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA



Erizainak eta gizarte-langilea, kontrol gelan batzartuta.



Egongela gis

# Lege Psikiatria Unitatea, behar bereziak dituztenendako

- Ondorio legalak izan dituzten ekintzak egin dituzten gaixoak daude han
- Hego Euskal Herrian eta Espainian mota horretako unitate bakarra da
- Helburua gaixoak errehabilitatzea da, epaile baten gainbegiratuarekin

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Iaz ezkero, paziente berezi batzuk ditu Arrasateko Aita Menni ospitale psikiatrikoak. Behar bereziak dituzten pazienteak dira, eta eurak atenditzeko instalazio berezi bat egin dira: Lege Psikiatria Unitatea. Joan den azaroan inauguratu zen arren, hilabete batzuk lehenago jarri zen martxan. 10 lagunendako tokia dauka, eta gaur egun bederatzi daude han bizi izaten eta tratamendua jarraitzen. Horren barruan, egunkariak irakurri, eskulanak egin, erlaxazio ariketak egin, familiaren bisitak jaso eta bestelako ekintzak egiten dituzte, Aita Menniko beste edozein gaixo psikiatrikok bezala.

Bederatzi paziente horiek duten berezitasuna hauxe da: noiz arte egon behar diren, bisitak jaso ditzaketen, irten daitezkeen… ez duela medikuak agintzen, epaileak baizik. Eta eurendako 880 metro koadro baino gehiagoko instalazio baten bizi dira: 10 logela, jangela-egongela eta askotariko gela dituzte bertan. Instalazio horiek ospitalearen beste atalak baino segurtasun neurri handiagoak dituzte: dena kontrol-gela batetik maneiatzen da, altzariak bereziak dira, apurketen kontrako beirak daude eta dena kameraz kontrolatzen da, adibidez. Izan ere, gaixo horiek, bere gaixotasunaren eraginez, erantzukizun penala duen egoeratan egon izan dira, eta epaileak erabaki du gaixotasun larri horien eraginez ez direla euren ekintzen erantzule. Horregatik, gaixo horiendako lekua ez da kartzela –tradizionalki horietara bidaltzen zituzten–, baizik eta unitate psikiatriko bat.

### Zazpi gipuzkoar

Aita Mennin daukaten unitatea guztiz berritzailea da Euskal Herrian eta Espainian. Iñaki Madariaga doktoreak zuzentzen du eta erizainak, psikologoak, psikiatrak, gizarte-langileak… dabiltza bertan lanean; hau da, ez dago poliziarik ez antzeko figurarik, denak osasun langileak dira. Espainian, antzekoak diren bi unitate daude, bat Fontcalent -en (Alacant) eta bestea Sevillan. Madariagak azaltzen duenez, "Arrasateko unitatearen bokazioa errehabilitazio psikiatrikoa da; Fontcalent-en bokazioa kustodia da. Guztiz desberdinak dira". Azpimarratzen dute psikiatria zerbitzu bat dela, ospitale psikiatriko baten barruan; ez da kartzela bat, helburua osasuna delako, ez zigorra.

Unitate hori Justizia Administrazioaren, Gipuzkoako area -zuzendaritzaren eta Aita Menni Ospitalearen elkarlanaren fruitua da. Madariagak azaltzen duenez, "gure gizartean beharrezko ikusten da horrelako zerbitzu bat, gizarte, auzitegi eta osasun ikuspuntuetatik".

Orain, bederatzi gizonezko daude han; hala ere, unitatea gizonezko eta emakumeendako da. Gaur egun dauden bederatzietatik zazpi gipuzkoarrak dira, eta bi, bizkaitarrak. Buruko gaixotasun larriak dituzte denek: eskizofrenia, nahaste bipolarra edo psikosi motaren bat (psikopatia dutenak ezin dira unitate horretako interno izan). Gaitz larri horien eraginez egin dituzten ekintzengatik edo izan diren egoerengatik bukatu zuten epailearen aurrean; kasu gehienetan, delituren bat egin dute.

Elkarrekin bizi dira, baina bakoitzak bere logela eta bainugela ditu. Oso elementu gutxi dituzte gelek: ohea –somierra lurrari itsatsita dago–, armairu bat, komuna, dutxa… eta askoz gehiagorik ez. Dena kontrol gelatik isiotzen eta itsungitzen da. Unitate hori 1,3 milioi euro kostatu da eta San Joan Jainkoaren ahizpek ipini dute dirua.

### Ohiko osasun zerbitzuak

Iñaki Madariaga doktoreak ohartarazten du buruko gaixotasunak ez direla osatzen gaixotasun fisiko gehienak osatzen diren moduan, ez dira inoiz guztiz desagertzen; baina, tratamendu egokiarekin, gaixo horiek, larrienek ere, aurrera egin dezakete. Horregatik, Lege Psikiatria Unitatea "gainerako psikiatria zerbitzuen oso desberdina ez izaten saiatzen" dira ospitalean. Egia da paziente horiek, zehazki, "problematikoak" izan daitezkeela une puntualetan, baina unitate berrian "bere premien araberako atentzioa" jasotzen dute. Gainera, orain arte ez dute inongo arazorik izan eta ez da arazo berezirik aurreikusten. "Eguneroko bizitza beste psikiatria zerbitzu baten oso antzekoa da, errehabilitazio eta aisialdiko ekintzetan ematen dute denbora handiena", azaltzen du Lege Psikiatria Unitateko psikologo Macarena Espinzak. "Daukan bakarra segurtasun plus bat da, pazienteek bere buruari, beste pazienteei edo unitateko langileei min egin ez diezaieten eta, bestetik, ihes egin ez dezaten", gaineratzen dute Aita Menniko arduradunek.

Horrez gain, Aita Menniko beste edozein internok gozatzen dituzten zerbitzu asistentzial guztiez gozatzen dute unitate horretako pazienteek: buruko osasunaz gain, gorputzaren osasuna zaintzen zaie; garbiketa zerbitzua dute, sukaldaritza zerbitzua eta bizi-kalitatea ahalik eta onena izateko behar dituzten zerbitzu guztiak.

### Bisitak jasotzea komeni zaie

Epaileak du beti azken hitza gaixo horiei dagokienean, eta hori da Aita Menniko beste unitateekiko dagoen beste desberdintasun garrantzitsu bat: "Epaileek guk, medikuok dioguna entzuten dute eta errespetatu egiten dute, baina, Lege Psikiatria Unitatean, legearen ikuspuntua nagusitzen da beti. Epaileak dioena bete egin

## Mojak, beti abangoardian eta iniziatiba handiarekin

Lege Psikiatria Unitatea ireki izana Aita Menni ospitalearen etengabeko eraberritze prozesuan ulertu behar da, ospitale psikiatriko tradizional batetik zerbitzu moderno eta atal askotarikoa izateko bidean. Hor, ekimena eta berritzeko joera erakutsi dutenak Aita Menniren atzean dauden erlijiosoak dira, San Joan Jainkoaren ahizpak. Euren iniziatibaz sortu ziren Aita Mennin egonaldi ertaineko unitatea, psikogeriatria zerbitzua, gazte eta nerabeendako unitatea, eguneko zentroa, garuneko mina hartu duten pazienteen unitatea eta psikotraumatologia unitatea, gutxitu psikikoak errehabilitatzeko unitatea, kanpo-kontsulta zerbitzua… eta, orain azkenekoz, Lege Psikiatria Unitatea, Hego Euskal Herrian eta Espainian bere motako bakarra, oraingoz.


a ere erabil daiteke jangela; patiora irteera dauka.


Beirazkoa da pareten zati handi bat, unitate osoa zaindu ahal izateko.


Iñaki Madariaga, Birginia Gallastegi eta Macarena Espinza.

behar dugu guk, eta horretara ohitu behar izan gara", azaltzen dute arduradunek.

Lege Psikiatria Unitatearen normaltasun horren barruan eta tratamendua ahalik eta ondoen joan dadin, bisitak eta irteerak dira beste puntu garrantzitsu bat. Lege Psikiatria Unitateak bisitagela bat dauka, eta bertara gonbidatuak daude senideak, lagunak… Honakoa dio Birginia Gallastegi gizarte-langileak: "Zenbat eta bisita gehiago jaso, hobeto. Bisitak unitatean bertan hasten dira, eta epaileak oniritzia ematen badigu, luzatu egin daitezke, unitatetik kanpo izan daitezke… Guk hori bultzatzen dugu".

Horrez gain, unitateak bere patio propioa dauka eta bertara irten daitezke pazienteak; berriz ere, epaileak bestelakorik esaten ez duen neurrian. Eta, epaileak egoki ikusten duen neurrian, ospitaleko gainerako pazienteekin ere erlazionatu daitezke.

**Gaixotasuna kontrolatu**

Gaixo bakoitzari dagokion epaileak haren eboluzioa jarraitzen ditu. Madariaga doktoreak azaltzen duen moduan, "gaixo bakoitzari dagokion segurtasun maila erabakitzen du epaileak, eta alta noiz hartu behar duen ere berak agintzen du".

Eta gero, zer? "Hainbat erabaki har ditzake epaileak: kasu batzuetan, etxera joateko libre utziko ditu; beste kasu batzuetan, ospitalean jarraitu behar dutela erabakiko du; edo tratamendu anbulatorio kontrolatua jarraitu behar dutela… "

Lege Psikiatriako pazienteen kasuan, jarraipena eta tratamendua egon ezean, jokaera deliktiboetan berriz jausteko arriskua egon daiteke. Hori galaraztea, aurrea hartuz, da helburuetako bat. Amaia Madina abokatu oñatiarraren iritziz, Lege Psikiatria Unitateak "lagundu egin dezake gaixo hori errehabilitatzen eta, gaixotasunari aurre egiten zaion neurrian, berriz delituren bat egiteko aukerak txikiagoak izango dira".

Datuen arabera, Espainiako kartzeletan dauden presoen %7 eta %8 artean buruko gaixotasun larriak dituzte, eta %25ek, antsietate eta depresio motako nahasteak. Madariaga doktorearen esanetan, datu horiek ikusita, "presondegietan dauden hainbat lagunendako, hori ez da lekurik egokiena".

**Eredu britainiarra**

Zabalik dagoen hilabete hauetako esperientziarekin oso pozik daude Aita Menni ospitaleko arduradunak. Azpimarratzen dute Europako herrialde gehienetan guztiz sustraituta dagoen eredu bat inauguratu dela gurean ere; herrialde batzuetan –Suitza kasu– unitate horiek kartzela -erakundeen perimetroan eraikitzen dira, eta beste batzuetan –Erresuma Batuan edo gure kasuan–, ospitaleetan.

ESANAK

**"Langile guztiak osasun arlokoak dira, ez dago poliziarik"**

IÑAKI MADARIAGA | ZUZENDARIA

ESANAK

**"Lege Psikiatria Unitateak errehabilitazioan lagun dezake"**

AMAIA MADINA | ABOKATUA


DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK*A

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH eta HHI




goieskola
www.goieskola.hezkuntza.net
baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

| IKASTETXEAK | INFORMAZIO BILERAK |
|---|---|
| Aramaio San Martin Eskola | HH 2 urte: Otsailaren 6an 18:00etan |
| Aretxabaleta Kurtzebarri Eskola | Urtarrilaren 28an 17:30ean EUS / 18:30ean GAZT |
| Kurtzebarri BHI | Urtarrilaren 28an 18:00etan EUS / 19:00etan GAZT |
| Antzuola Herri Eskola | Informazio zuzena eskolan bertan |
| Arrasate Arrasate Herri Eskola | Musakola: Urtarrilaren 27an 18:00etan<br>Bedoñabe: Urtarrilaren 28an 18:00etan<br>Erguin: Urtarrilaren 29an 18:00etan |
| Arrasate Institutua | Arrasate Otsailaren 4an 18:00etan<br>Aramaio Otsailaren 5ean 18:00etan |
| EPA Arrasate HHI | Matrikula zabalik urtarrilaren 27tik 31ra |
| Bergara San Martin Agirre Eskola | Otsailaren 6an 17:30ean<br>Ate irekiak Otsailaren 1ean 16:30ean |
| Ipintza Institutua | Ate irekiak Otsailaren 5ean 18:30ean |
| EPA Bergara HHI | Matrikula zabalik urtarrilaren 27tik 31ra |
| Elgeta Herri Eskola | Informazio zuzena eskolan bertan |
| Eskoriaza/Gatzaga Luis Ezeiza Eskola | Urtarrilaren 29an 17:30ean ate irekiak |
| Oñati Errekalde Herri Eskola | Otsailaren 1ean 17:00etan ate irekiak |
| Zuazola Larraña Institutua | Otsailaren 6an 18:00etan ate irekiak |

# Erabakitzeko eskubidearen aldeko adierazpena sinatu dute Oñatin

## Askotariko herritarrek egin dute bat Gure Esku Dagoren deiarekin

**JULEN IRIONDO** | OÑATI

Kultura, kirol, politika, sindikalgintza, enpresa eta hezkuntza; horietako eta beste hainbat esparrutako ehun lagun inguru batu ziren zapatuan Sancti Spiritus unibertsitatean herriko Gure Esku Dago lantaldeak antolatuta egindako ekitaldian. *Erabagitteko eskubidiaren aldeko Oñatiko adierazpena* sinatu zuten bertan, eta Euskal Herria nazioa dela, erabakitzeko eskubidea duela eta erabaki hori euskal herritarrei dagokiela aldarrikatu horrela.

Adierazpenarekin bat egin dutenen artean daude Fermin Etxegoien, Ruper Ordorika, Markel Irizar, Jon Odriozola, Maria Cruickshank, Juan Zelaia, Pello Zabala, Izaskun Moiua, Ainhoa Galdos, Mikel Biain, Larraitz Ugarte eta Iñaki Galdos.


Erabakitzeko eskubidearen aldeko adierazpena sinatzen. | IMANOL SORIANO

Zapatuko ekitaldian parte hartu zutenek familia argazkia atera zuten aurrena eta ondoren sartu ziren aretora. Bertan aurkeztu eta sinatu zuten adierazpena. Aurrerantzean herritar guztiek izango dute atxikimendua emateko aukera, baita ekainaren 8ko Durango eta Iruñea arteko giza katerako izena emateko modua ere. Ordura bitartean Gure Esku Dagok egingo dituen ekintzetan jarriko dituzte horretarako mahaiak.

### Hainbat ekintza asteon

Bestalde, Debagoieneko lantaldeek antolatuta ekintzak izango dira asteon: eguaztenean ekonomiari buruzko mahai-ingurua egongo da Kulturaten Joseba Barandiaran, Adrian Zelaia (Ekai Center) eta Oskar Arantzabalekin (19:00); egubakoitzean, berriz, Carles Beldaren eta Goseren kontzertua Oñatiko gaztelekuan (22:30); eta domekan giza katea Lizargaraten, Bergaratik (9:00, plazan), Oñatitik (9:30, Errekalden) eta Antzuolatik (9:30, plazan) abiatuta.

**Argazki gehiago:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

### Oñatiko adierazpena

Gaur hemen batu garien oñatiarrok, era askotako oñatiarrok, alkarren bidelagun izatia erabagi dogu, eta halaxe erakutsi gura xaugu herrixari. Bidelagun izatia erabagi dogu erabagitteko eskubidiaren aldarrikapenian. Balitteke hemen alkartutakuok Euskal Herrixarendako proiektu nahiz egittura ezbardiñak gura izatia. (...) Baiña, danok bat egitten dogu onarketako Euskal Herrixa izango dan hori, euskal herrittarron erabagixaz izan bihar dala. Horretan danok bat egitten dogu (...). Hemen batutakuok erabagitteko eskubidiaren aldeko jarreria erakutsi gura dogu, printzipixo demokratikua dalako. Honekin esan gura dogu eskubide hau gauzaketia eta praktikara eruatia herrittarroi tokaitten xakula. Eta, azkenik, uste dogu mezu hau gizartian zabalketia joera eta ideologia ezbardiñekuok alkarrekin egin biharreko bidia dala, eta horregatik gagoz gaur hemen danok batera.


**AGURTZANE MUJIKA**
SINATZAILEA

"Ekitaldi polita eta hunkigarria izan da. Herriko askotariko jendea, adin eta pentsamendu desberdinetakoa egon delako batez ere. Herriaren etorkizuna herritarrok erabaki behar dugu, eta hauek aurrera pausoak dira".


**PABLO ANDUAGA**
SINATZAILEA

"Zoragarria izan da. Oso konforme geratu naiz. Ahalik eta zabalena izan behar du honek, ze hain da naturala, aldarrikapena zilegi da dudarik gabe. Geuk ez baditugu geure eskubideak defendatzen...".


**JOSE LUIS MADINAGOITIA**
SINATZAILEA

"Herri honetan nahikoa zatituta ibili gara zoritxarrez, baina oinarrizko gauza batzuk berdinak ditugu, eta batera jardun behar dugu horietan, eskubideak aurrera ateratzeko. Halakoen beharrean gaude".


**IBIS RODRIGUEZ**
SINATZAILEA

"Ekitaldi hunkigarria izan da. Nazio guztiek dute izan nahi dutena erabakitzeko eskubidea. Gu dagoeneko jendarte honetako kide garen arren, kultura desberdinak aintzat hartzeari oso ondo deritzot".


**IZASKUN MOIUA**
SINATZAILEA

"Oso polita izan da, hunkigarria. Erabakitzeko eskubidearen aldeko halako ekimenak oso beharrezkoak dira. Gure Esku Dagoren filosofia egokia da benetan; jendeak parte hartu nahi du, inportantea da hori".

# Kuota egokitu behar izan du San Felipe Apostol elkarteak

## Bazkideek onartu dute hiru urtean 25 eurotik 45 eurora pasatzea, Lakuaren eskakizuna betetzeko

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Batzar Nagusia egin zuen domekan Arrasateko San Felipe Apostol elkarlaguntzako elkarteak. Bertan, elkarteko presidente Juanjo Pagaldaik bazkideei azaldu zien ezustekoa iritsi zaiela orain gutxi Jaurlaritzatik. Izan ere, ia 900.000 euroko ondarea izanda egoera ekonomikoarekin arazorik ez zegoela uste, baina Lakuatik iritsi zaien agindua izan da 6 milioi behar dituztela ia elkartearen bideragarritasuna ziurtatzeko: "Hemen orain arte ulertzen genuen dirua bageneukan urtero-urtero gastuak ordaintzeko nahikoa zela". 2013ko gastuak, adibidez, 271.000 euro izan ziren, eta bazkideen ekarpenen ondorioz sartutako dirua 308.000. Arazorik ez, beraz; itxuraz.

Jaurlaritzak, ordea, luzera begirako planteamendua egitera behartzen du orain, eta kalkulatzera ze diru beharko litzatekeen bazkideen heriotzei aurre egiteko suposatu gabe bazkide berriak sartzen joango direla, gaur egun daudenekin bakarrik; hortik ia 6 milioiak: "Orain, urteko kuota 45 eurora igota, badakigu gai izango garela gure heriotzen gastuei aurre egiteko, bazkide berri gehiago ez sartuta ere". Kuota igoera, baina, hiru urtetan banatuta egingo dute: bost euro aurten eta hamabost datozen bi urteen artean. Pagaldairen arabera ulertzekoa da Jaurlaritzaren eskakizuna, elkartea gaizki joango balitz bere erantzunkidetasun zatia balukeelako Lakuak; hortik normala ikustea gainean egote hori.


Kulturateko aretoa beteta, Batzar Nagusian. | J.I.

Azkenik, 2014ko aurrekontua ere onartu zuten bazkideek: 293.233 euroko gastua eta 355.000 euroko sarrerak. Zuzendaritzaren erdia ere berritu zuten; presidente izaten, baina, Juanjo Pagaldaik jarraituko du.

# Europako hauteskundeak maiatzaren 25ean izango dira

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Aurreikusi baino ia hilabete lehenago, maiatzean, egingo dira Europako Parlamenturako hauteskundeak, hilaren 22tik 25era bitartean, hain zuzen, eta Espainian maiatzaren 25ean. Bost urtean behin dira Europako Parlamentuko ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak. Europako Kontseiluak iaz martxoan egindako iradokizuna onartuta, aurreikusi baino hilabete lehenago egingo da Europako hiritarrek zuzenean aukera dezaketen erakunde bakarrerako bozketa. Bada, aurreratu dute ekainean Europako Batzordearen presidentearen hautaketa prestatzeko denbora nahikoa izateko.

**Zortzigarren legealdia**

Parlamentuak gaur egun 751 jarleku ditu, kide diren 15 estatuen artean banatu beharrekoak. Hain justu ere, banaketa horretan aldaketak egingo dira Parlamentu berrian Lisboako tratatuaren arabera, kide berriekin eta oreka aldaketarekin 15 jarleku gutxiago egongo baitira. Oraingoz, adostasunik ez da lortu gai horren inguruan, nahiz eta datozen asteetan akordiora heltzea espero den. Espainiako Estatuak, berriz, 54 jarleku ditu Parlamentuan, baina oraindik ez da argitu banaketa berriak ze eragin izango duen. Hain zuzen ere, 2014an hasiko dena ganbera horren zortzigarren legealdia izango da.



Europako Parlamentua, Estrasburgen. | WIKIPEDIA

# Donostiako gotzaina bisitan izango da San Juan de Dios-en etzi

J.B. | ARRASATE

San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikora bisita egingo du etzi, eguaztena, Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak. Artzain-bisita izango da eguaztenekoa, hain zuzen, eta bertan, Frantzisko Aita Santuaren idatzia aurkeztuko du.

**Erregu apostolikoa**

Aita Santuaren erregu apostoliko bat eroango du Jose Ignacio Munillak. Azaro amaieran zabaldutako dokumentua da, munduaren egoerari buruz hark dituen ikuspuntuekin. *Evangelii Gaudium* (Ebanjelioaren poza) dauka izena agiriak eta Eliza Katolikoaren buruaren aitasantutzaren gidalerro gisa hartu da. Adierazpen horren bitartez, Jorge Mario Bergogliok Eliza Katolikoaren espiritu misiolari eta ebanjelizatzailean sakontzen du. Adituen arabera, gizarte gaiekin lotutako bi ardatzetan oinarritzen da Aita Santu berriaren bidaia-orri moduko hori: txiroen gizarteratzea eta bakea eta elkarrizketa soziala. Testuan, "egungo munduaren arrisku" bezala jartzen du, esate baterako, kontsumismoa, "bihotz uzkur eta erosotik eratorritako tristura indibidualistaren" erantzule modura.

Munilla gotzainaren hitzaldia 14:00etan izango da ospitaleko areto nagusian.

# Hil amaierara arte utzi ahal izango da Zu Behar Zaitut-en kanpainarako aluminioa

J.B. | ARRASATE

Zu Behar Zaitut elkarteari laguntzeko aluminioa batzen ibili dira Arizmendi Ikastolan, gurasoen laguntzarekin, etxeetan eta ikastetxeetan. Bada, elkarteak amaitutzat jo du kanpaina, eta, hala, Ikastolan aluminioa batzeari lagako diote. Urtarrilaren 31ra arte egongo da, hala ere, aluminioa zentroetara eramateko aukera. Guztia batu eta Arizmendikoek elkartekoei bidaliko diete.

Garun paralisiagatik edo antzeko gaixotasunengatik funtzionamendu aniztasunak dauzkaten haurren Debagoieneko gurasoen elkarteak bultzatu du kanpaina.

# 'Aulki hutsak' dokumentala eguenean Antzuolan

J.B. | ARRASATE

Datozen hilabeteetan *Aulki hutsak* lanak hiru proiekzio publiko izango ditu Debagoienean: urtarrilaren 30ean Antzuolan, Torresoroan, 19:00etan; Arrasateko Kulturaten otsailaren 12an, 19:00etan; eta Eskoriatzan martxoaren 5ean, 19:00etan.

**Doluaren mina**

Heriotzari buruzko dokumentala da *Aulki hutsak* eta egungo gizartean tabu bihurtu den gaia mahai gaineratzeko asmoarekin dago egina. Iñaki Peña familia-medikuak zuzendu du dokumentala. Horretarako, galdera argia proposatzen du: *"Maite ditugunak hiltzean zer?"*. Heriotzaren aurrean sentitzen diren mina, haserrea, tristura, buru makurtasuna eta bakea islatzen ditu lanak. Abenduaren 4ean egin zuten estreinaldia inplikatutako kideen aurren Elgetako kafe antzokian, eta, esparru sanitariorako lan moduan planteatuta badago ere, zenbait proiekzio publiko izan ditu. Arteman Komunikazioak ekoiztu du lana.



# Debagoieneko Ospitaletik diote gripearen eboluzioa "ohikoa" ari dela izaten

## Zazpi hildako izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan gripeak eragindako konplikazioengatik azken asteotan

**I. GOITIA** | DEBAGOIENA

Debagoienean, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala, gorantz egin dute gripearen kasuek azken aste hauetan, Debagoieneko Ospitaletik jakitera eman dutenez. Hala, zehaztu dute kontsultetan eta ospitalean gripearen ondorioz dagoen jarduera intentsitate handikoa dela, baina horrek ez duela asistentzia prozesuetan eragozpenik sortu eta Debagoieneko Ospitaletik ez dela pazienterik beste zentroetara bidali.

Bestalde, jakitera eman dute Debagoienean gripea eragin handiagoa izaten ari dela haurrengan pertsona nagusiengan baino eta A birusa dela egun ematen dena, baina ez dela ohiko gripearen birusa baino arriskutsuagoa.

**Zazpi hildako**

Osakidetzak kaleratu dituen datuaren arabera, aurtengo gripearen bilakaera aurreko urteetakoen antzekoa da eta konplikazioen ondorioz hildakoen kopuru ere ohikoa da, %0,1etik igo gabe. Hala, zehazten da gripeak gaixotasun larriak dituzten pertsonengan eragindako konplikazioengatik EAEn hil direnak zazpi izan direla. Debagoieneko Ospitaletik jakinarazi dutenez, gure bailaran ez da horrelako egoerarik sortu orain arte. Osakidetzak azaltzen da birusaren erruz hildakoen artean ez dagoela lehendik gaixotasun larriren bat diagnostikatuta ez zuenik eta hil diren zazpi pertsonetatik seik gripearen aurkako txertoa hartu gabe zutela. Hala, Debagoieneko ESIk berriro gogoratu nahi izan du gripearen aurkako txertoa hartzeak duen garrantzia, birusa ez harrapatzeko eta bere eraginak nabarmen leuntzeko.

# Lanbideko langileak eredu publikoaren alde borrokan

**IMANOL GALLEGO** | DEBAGOIENA

Egubakoitzero batzen dira Lanbideko langileak Arrasaten duten egoitzaren aurrean elkarretaratzea egiteko.



Arrasateko Lanbideko langileen elkarretaratzea, egubakoitzean. | IMANOL GALLEGO

**Berrantolaketa**

Urrian izan zuten Lanbideko langileek Urkullu lehendakariaren exekutiboak aurrera eroan nahi duen Lanbideren berrantolaketaren berri. Eusko Jaurlaritzaren planen arabera, Lanbideko 200 langile kalean geratuko dira eta EAEko bulegoek ere aldaketak izango dituzte. Lan zerbitzu publikoko langileek, ELA, LAB eta CCOO sindikatuen babesarekin berregituraketa honen aurka azaldu dira. Momentuz bi greba egin dituzte eta egubakoitzero 15 minutuko elkarretaratzea egiten dute Arrasaten.

Oraindik Jaurlaritzatik ez dute erantzun zuzenik jaso, baina abenduan martxan jartzeko zen berrantolaketa momentuz ez da gauzatu. Langileek azpimarratu dute euren lanpostuen aldeko aldarrikapen bat egin baino, eredu publikoaren defentsan egiten dutela protesta."Egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbideren bulegoetan eta gizarte zerbitzuetan 900 pertsona gabiltza lanean. Horietatik 200 kalera joango gara proposatzen duten berrantolaketa honekin. Hori urrian jakin genuen eta ordutik hasi ginen mobilizazioak egiten. Murrizketen eta kaleratzeen aurka eta zerbitzu publikoaren defentsan biltzen gara astero", adierazi zigun Lander Garzia Lanbideko langileak.

# Eman daiteke izena Askapenaren 2014ko brigadetarako

**I. GOITIA** | DEBAGOIENA

Udan Askapenak antolatzen dituen brigadetan izena eman daiteke dagoeneko. Hilaren 30a bitarte egongo da horretarako aukera. "Neguaren hotzena iristear bada ere, ohartu orduko udara gainean izango dugu. Hala, badator herrien arteko xamurtasuna bizitzeko beste aukera bat, badatoz Askapenaren brigadak", adierazi dute Askapenatik.

**Berritasunak**

"Herri boterean oinarritutako Argentina, Uruguay, Venezuela eta Boliviako prozesuak, eta Palestina eta Saharar lurralde okupatuetako erresistentzia borrokak lehen eskutik ezagutzeko aukera izango da". Horiez gain, aurten, brigada berriak antolatu dituzte. Lehen aldiz, Katalunia, Aragoi eta Gaztelara joango dira. "Askapen sozial eta nazionalaren alde borrokan ari diren herriak ditugu". Askapenatik esperientzia bizitzeko gonbita egiten dute. "Lurralde okupatuetako testigantzak entzun, langileen esku dauden lantegi berreskuratuak ikusi eta herrien errealitatea lehen eskutik ezagutzeko, besteak beste". Herrien arteko erlazioak irunez, sare internazionalista eraikitzea dute helburu. Informazio gehiago *www.askapena.org*.



Iryna Shadyuk ukrainarra, Oñatiko Foruen plazan. | I.G.

**Iryna Shadyuk** | Ukrainarra

# "Nire esperantza bakarra gerra zibilik ez hastea da"

## Oñatin bizi da Shadyuk eta Ukrainan izan berri da, jendea gobernuarekin nazkatuta ikusi du

**IRATI GOITIA** | DEBAGOIENA

Hamaika urte daramatza Euskal Herrian Iryna Shadyuk ukrainarrak. Lehen urteak Donostian egin zituen eta 2005etik Oñatin bizi da. Ukrainan egon berri da familia bisitatzen eta urtarrilaren 12an itzuli zen. Kieven izan da. Bertan egon zenean, dena lasai zegoela esan digu, baina tentsioa agerikoa zela gaineratu digu, barrikadak jarrita zeuden ordurako.

**Azken egunotan liskar gogorrak izan dira Ukrainako gobernuaren eta manifestarien artean. Zein da tira-bira hauen arrazoia?**

Dena azaroan hasi zen. Hainbat herritarrek gobernuak Europar Batasunarekin akordio bat sinatzea nahi zuten, baina presidenteak, alderantziz, Errusiarekin egin du aliantza. Hasieran, protestak lasaiak izan ziren, baina urtarrilaren 16an Ukrainako parlamentuak lau lege onartu zituen eta horiek aplikatuz ukrainar oro atxilotu dezake poliziak. Herritarrak muturreko egoeran zeuden ordurako eta gobernuaren gehiegikeriez nazkatuta. Herritarrak protesta egitera eta euren eskubideak defendatzera atera dira kalera.

**Gobernua eta oposizioa negoziaketetan dabiltza. Adostasunera iritsiko direla uste duzu?**

Nik akordioa lortuko duten esperantza dut eta une honetan Ukrainan dugun krisi politiko honetatik irtengo garela deritzot. Asko dira, baina, adostasunik lortu ez dela uste dutenak eta liskarrek aurrera jarraituko dutela diotenak. Ikusi egin behar... Egia esan, niri oposizioko buru den Vitali Klitxko asko gustatzen zait. Presidentetzarako eta parlamenturako hauteskundeak eskatzen ditu eta ondo iruditzen zait.

**Jendeak aldaketa eskatzen du?**

Bai, herritarren gehiengoak aldaketak eskatzen ditu, ez daudelako gobernuaren jardunaz eta azkeneko egunetan pasa denarekin gustura. Langileak asko dabiltza sufritzen, gobernua izugarrizko gehiegikeriak dabil egiten.

**Zer diotsue zure gertukoek?**

Esaten didatena da gutxi batzuk hasi zirela protesta egiten, baina gobernuak onartutako legeen ondorioz, Ukraina osoa altxatu dela euren eskubideak aldarrikatzeko. Hala, Independentzia plazan 50.000 edo 60.000 lagun inguru batu dira azken egunotan eta beste eskualdeetara ere zabaldu dira protestak. Esaterako, mendebaldeko probintzietako gobernatzaile guztiek boterea utzi dute. Hala ere, senitartekoek diote normaltasunez joaten direla lanera. Nire lehengusua, esaterako, Kieven bizi da eta bulego, banku, ospitale eta garraioek normaltasunez funtzionatzen dutela dio. Beldur dira gertatuko denaz, denek nahi dutena da negoziazioek fruituak ematea, lasai bizi eta lan egiteko.

**Beltz ikusten duzu etorkizuna?**

Telebistan ikusi dugu gobernua prest dagoela borrokarako, tankeak prest daude edozein unetan kapitalera iristeko. Oposiziotik ere esan dute Kieven 400.000 arma daudela legez erregistratuta. Beraz, jendea gobernuari aurre egiteko prest dagoela esango nuke. Nik dudan esperantza bakarra da Ukrainan ez dadila gerra zibilik hasi, gertatuko litzatekeena askoz okerragoa izango litzateke-eta. Horregatik da garrantzitsua negoziazioez jarraitzea.

> **"Ondo deritzot oposizioak hauteskundeak eskatzeari"**

# Debagoieneko Ospitaletik diote gripearen eboluzioa "ohikoa" ari dela izaten

## Zazpi hildako izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan azken asteotan gripeak eragindako konplikazioengatik

I. GOITIA | DEBAGOIENA

Debagoienean, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala, gorantz egin dute gripearen kasuek azken aste hauetan, Debagoieneko Ospitaletik jakitera eman dutenez. Hala, zehaztu dute kontsultetan eta ospitalean gripearen ondorioz dagoen jarduera intentsitate handikoa dela, baina horrek ez duela asistentzia prozesuetan eragozpenik sortu eta Debagoieneko Ospitaletik ez dela pazienterik beste zentroetara bidali.

Bestalde, jakitera eman dute Debagoienean gripea eragin handiagoa izaten ari dela haurrengan pertsona nagusiengan baino eta A birusa dela egun ematen dena, baina ez dela ohiko gripearen birusa baino arriskutsuagoa.

### Zazpi hildako

Osakidetzak kaleratu dituen datuaren arabera, aurtengo gripearen bilakaera aurreko urteetakoen antzekoa da eta konplikazioen ondorioz hildakoen kopuru ere ohikoa da, %0,1etik igo gabe. Hala, zehazten da gripeak gaixotasun larriak dituzten pertsonengan eragindako konplikazioengatik EAEn hil direnak zazpi izan direla. Debagoieneko Ospitaletik jakinarazi dutenez, gure bailaran ez da horrelako egoerarik sortu orain arte. Osakidetzak azaltzen da birusaren erruz hildakoen artean ez dagoela lehendik gaixotasun larriren bat diagnostikatuta ez zuenik eta hil diren zazpi pertsonetatik seik gripearen aurkako txertoa hartu gabe zutela. Hala, Debagoieneko ESIk berriro gogoratu nahi izan du gripearen aurkako txertoa hartzeak duen garrantzia, birusa ez harrapatzeko eta bere eraginak nabarmen leuntzeko.

# Lanbideko langileak eredu publikoaren alde borrokan

IMANOL GALLEGO | DEBAGOIENA

Egubakoitzero batzen dira Lanbideko langileak Arrasaten duten egoitzaren aurrean elkarretaratzea egiteko.

Urrian izan zuten Lanbideko langileek Urkullu lehendakariaren exekutiboak aurrera eroan nahi duen Lanbideren berrantolaketaren berri. Eusko Jaurlaritzaren planen arabera, Lanbideko 200 langile kalean geratuko dira eta EAEko bulegoek ere aldaketak izango dituzte. Lan zerbitzu publikoko langileek, ELA, LAB eta CCOO sindikatuen babesarekin berregituraketa honen aurka azaldu dira. Momentuz bi greba egin dituzte eta egubakoitzero 15 minutuko elkarretaratzea egiten dute Arrasaten.



Arrasateko Lanbideko langileen elkarretaratzea, egubakoitzean. | IMANOL GALLEGO

### Berrantolaketarik ez

Oraindik Jaurlaritzatik ez dute erantzun zuzenik jaso, baina abenduan martxan jartzeko zen berrantolaketa momentuz ez da gauzatu. Langileek azpimarratu dute euren lanpostuen aldeko aldarrikapen bat egin baino, eredu publikoaren defentsan egiten dutela protesta."Egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbideren bulegoetan eta gizarte zerbitzuetan 900 pertsona gabiltza lanean. Horietatik 200 kalera joango gara proposatzen duten berrantolaketa honekin. Hori urrian jakin genuen eta ordutik hasi ginen mobilizazioak egiten. Murrizketen eta kaleratzeen aurka eta zerbitzu publikoaren defentsan biltzen gara astero", adierazi zigun Lander Garzia Lanbideko langileak.

# Eman daiteke izena Askapenaren 2014ko brigadetarako

I. GOITIA | DEBAGOIENA

Udan Askapenak antolatzen dituen brigadetan izena eman daiteke dagoeneko. Hilaren 30a bitarte egongo da horretarako aukera. "Neguaren hotzena iristear bada ere, ohartu orduko udara gainean izango dugu. Hala, badator herrien arteko xamurtasuna bizitzeko beste aukera bat, badatoz Askapenaren brigadak", adierazi dute Askapenatik.

### Berritasunak

"Herri boterean oinarritutako Argentina, Uruguay, Venezuela eta Boliviako prozesuak, eta Palestina eta Saharar lurralde okupatuetako erresistentzia borrokak lehen eskutik ezagutzeko aukera izango da". Horiez gain, aurten, brigada berriak antolatu dituzte. Lehen aldiz, Katalunia, Aragoi eta Gaztelara joango dira. "Askapen sozial eta nazionalaren alde borrokan ari diren herriak ditugu". Askapenatik esperientzia bizitzeko gonbita egiten dute. "Lurralde okupatuetako testigantzak entzun, langileen esku dauden lantegi berreskuratuak ikusi eta herrien errealitatea lehen eskutik ezagutzeko, besteak beste". Herrien arteko erlazioak irunez, sare internazionalista eraikitzea dute helburu. Informazio gehiago *www.askapena.org*.



Iryna Shadyuk ukrainarra, Oñatiko Foruen plazan. | I.G.

**Iryna Shadyuk** | Ukrainarra

# "Nire esperantza bakarra gerra zibilik ez hastea da"

## Oñatin bizi da Shadyuk eta Ukrainan izan berri da, jendea gobernuarekin nazkatuta ikusi du

IRATI GOITIA | DEBAGOIENA

Hamaika urte daramatza Euskal Herrian Iryna Shadyuk ukrainarrak. Lehen urteak Donostian egin zituen eta 2005etik Oñatin bizi da. Ukrainan egon berri da familia bisitatzen eta urtarrilaren 12an itzuli zen. Kieven izan da. Bertan egon zenean, dena lasai zegoela esan digu, baina tentsioa agerikoa zela gaineratu digu, barrikadak jarrita zeuden ordurako.

**Azken egunotan liskar gogorrak izan dira Ukrainako gobernuaren eta manifestarien artean. Zein da tira-bira hauen arrazoia?**

Dena azaroan hasi zen. Hainbat herritarrek gobernuak Europar Batasunarekin akordio bat sinatzea nahi zuten, baina presidenteak, alderantziz, Errusiarekin egin du aliantza. Hasieran, protestak lasaiak izan ziren, baina urtarrilaren 16an Ukrainako parlamentuak lau lege onartu zituen eta horiek aplikatuz ukrainar oro atxilotu dezake poliziak. Herritarrak muturreko egoeran zeuden ordurako eta gobernuaren gehiegikeriez nazkatuta. Herritarrak protesta egitera eta euren eskubideak defendatzera atera dira kalera.

**Gobernua eta oposizioa negoziaketetan dabiltza. Adostasunera iritsiko direla uste duzu?**

Nik akordioa lortuko duten esperantza dut eta une honetan Ukrainan dugun krisi politiko honetatik irtengo garela deritzot. Asko dira, baina, adostasunik lortu ez dela uste dutenak eta liskarrek aurrera jarraituko dutela diotenak. Ikusi egin behar... Egia esan, niri oposizioko buru den Vitali Klitxko asko gustatzen zait. Presidentetzarako eta parlamenturako hauteskundeak eskatzen ditu eta ondo iruditzen zait.

**Jendeak aldaketa eskatzen du?**

Bai, herritarren gehiengoak aldaketak eskatzen ditu, ez daudelako gobernuaren jardunaz eta azkeneko egunetan pasa denarekin gustura. Langileak asko dabiltza sufritzen, gobernua izugarrizko gehiegikeriak dabil egiten.

**Zer diotsue zure gertukoek?**

Esaten didatena da gutxi batzuk hasi zirela protesta egiten, baina gobernuak onartutako legeen ondorioz, Ukraina osoa altxatu dela euren eskubideak aldarrikatzeko. Hala, Independentzia plazan 50.000 edo 60.000 lagun inguru batu dira azken egunotan eta beste eskualdeetara ere zabaldu dira protestak. Esaterako, mendebaldeko probintzietako gobernatzaile guztiek boterea utzi dute. Hala ere, senitartekoek diote normaltasunez joaten direla lanera. Nire lehengusua, esaterako, Kieven bizi da eta bulego, banku, ospitale eta garraioek normaltasunez funtzionatzen dutela dio. Beldur dira gertatuko denaz, denek nahi dutena da negoziazioek fruituak ematea, lasai bizi eta lan egiteko.

**Beltz ikusten duzu etorkizuna?**

Telebistan ikusi dugu gobernua prest dagoela borrokarako, tankeak prest daude edozein unetan kapitalera iristeko. Oposiziotik ere esan dute Kieven 400.000 arma daudela legez erregistratuta. Beraz, jendea gobernuari aurre egiteko prest dagoela esango nuke. Nik dudan esperantza bakarra da Ukrainan ez dadila gerra zibilik hasi, gertatuko litzatekeena askoz okerragoa izango litzateke-eta. Horregatik da garrantzitsua negoziazioez jarraitzea.

**"Ondo deritzot oposizioak hauteskundeak eskatzeari"**

# Debagoiendarrak ere Eroski eta BBVAren gaineko epaiaren zain daude hainbat debagoiendar ere

- Gaur, astelehena, jakingo da ekarpen subordinatuen gaineko epaia
- Bailarako ekarpen-jabeek ez dute salaketarik jarri, baina adi daude

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gaur, astelehena, da Marcos Bermudez epailea Eroskiren ekarpen subordinatuen inguruan egin den epaiketaren gaineko erabakia hartzekoa. Epaiketa sententziaren zain bukatutzat utzi zuten joan den eguaztenean. Salaketa Adicae kontsumitzaileen elkarteak ipini zuen; batetik, Eroskiren aurka, ekarpenak emititu zituelako, eta bestetik, haiek komertzializatu zituen banketxeetako bati, BBVAri. Hasieran, 71 norbanako zeuden salaketa kolektiboaren atzean; gerora, hiruk salaketa kentzea erabaki zuten.

Adicaek publizitate engainagarria egitea egotzi dio Eroskiri, eta BBVA finantza erakundeari eskatzen dio ekarpenen kontratuak bertan behera uztea, eta, ondorioz, bezeroei dirua itzultzea.

Epaiketaren helburua herritar horiek zer erosten zebiltzan ba ote zekiten argitzea da.



Eroskiren Oñatiko supermerkatua. | GOIENA

### Epaiak, saltzaileen aurka

Adicae-ren lege-ordezkariek eguazteneko sesioan esan zutenez, Eroskik ahalegina egin zuen ekarpenak betirako zirela estaltzen, eta kontratuak baliogabetzeko eskatu zuen, klausula engainagarriak zeudela esanez.

Fiskalaren esanetan, klausulak "abusiboak" ziren, eta banketxearen aldetik "gardentasun eta informazio falta" egon zen. BBVArendako zigorra eskatu du, baina ez Eroskirendako, ekarpenen emisioa legezkoa izan zela argudiatuta. Fiskalaren iritziz, ez da frogatu publizitate engainagarria egon zenik, ez eta publizitateak bezeroak akatsera eroan zituenik.

Eroskiko Komunikazio arduradun Oscar Gonzalezen esanetan, "aurretik egon dira ekarpenen jabeen aldeko epaiak, baina komertzializazioarengatik izan dira denak, ez emisioarengatik; Eroskik BMEBen irizpideak bete ditu, eta urtero-urtero bete ditu bere konpromisoak; aurten ere interesak banatuko ditu".

### "Soilik gure dirua nahi dugu"

Bilboko epaiketa arretaz jarraitzen dabiltza Debagoieneko jabeak ere; tartean, Juan Jose Mazkiaran bergararra. Berak Eroskiren ekarpenak ditu 2007a ezkero, erretiratu zenean pentsio planetik atera zuen diruari etekina atera nahian erosita. "%1 inguruko interesa eskaini zidaten, baina hori baino zerbait hobea nahi nuen, eta bezero bereziendako produktua zutela esan zidaten, bertako enpresa batena; erabateko bermea zuela eta nahi nuenean sal nezakeela esan zidaten. Hain ondo aurkeztu zidatenez dena, onartu egin nuen", kontatzen du. Hasieran errentagarritasun polita (%6,25) eman zioten ekarpenek, baina urtetik urtera murriztuz joan zen eta, saldu nahi izan zituenean, balioaren %40 bakarrik berreskura zezakeela konturatu zen. "Gu ez gaude Fagorren edo Eroskiren aurka; bakarrik gure dirua nahi dugu", esaten du.

Sortu den egoera "Eroskiren gustukoa ez" denez, Intentzio -Hitzarmen bat egin du, eta horren barruan egin zien ekarpenen jabeei truke proposamen bat. "Alternatiba bat eman zaie; Euriborra gehi diferentzial bat irabazi, betiereko produktu batekin, edo beste mota bateko inbertsio batekin trukatu: ekarpenen balio nominalaren %15 dirutan jaso, eta %55a 12 urteko iraupeneko bonuekin trukatu. Esaten dute %30eko kita egin diegula, baina hori ez da egia, aukera bat eskaini diegulako; kita izango litzateke derrigorrezko trukea izango balitz".

Eroskik gogora ekartzen du urtero interesak ordaintzen dizkiela ekarpen subordinatuen jabeei: "2002an erosi zituztenek %63 jaso dute interes bidez", dio Oscar Gonzalezek.

### Zorra berregituratzen dabil

Zenbait komunikabidetan argitaratu zen ere Eroskik bankuekin zuen zorraren erdia kentzeko eskatu ziela. "Hori guztiz gezurra da", esan du Eroskiko Komunikazio arduradunak. Zorra berregituratzeko prozesua Gabon aurretik hasi zela eta "martxan jarraitzen" duela azaldu du.

# Fagor Etxetresnen kasua, 'Wall Street Journal'-en

L.K. | ARRASATE

"Atzeraldiak Espainiako kooperatiben arteko loturak gastatu ditu" tituluarekin agertu zen *The Wall Street Journal* aldizkari ospetsuan Fagor Etxetresnen gainbeheraren inguruko albistea, abenduaren 26an.

Christopher Bjork-ek sinatutako piezak Etxetresnen itxierak Mondragon Korporazioko beste kooperatibetan izan duen eragina aztertzen du, eta esaten du Korporazioaren egitura "kolokan" jarri duela: "Beste 109 kooperatiben arteko loturak hondatu ditu eta kooperatiba ahulenen konfiantza murriztu du", esaten du artikuluak. "Geratzen diren 80.000 langileetatik asko lanpostua galtzeko beldur dira orain", gaineratzen du.

### Kapitala lortzeko aukerak

Fagor Etxetresnen kinka larriak "ahulezia bat azaleratzen du: kooperatibek kapitala lortzeko aukera gutxiago dituzte atzeraldi bati aurre egiten dabiltzanean". Are gehiago: "Fagor baliabiderik gabe utzi zuen Espainiaren beheraldi luzeak, orain, sortzen lagundu zuen sarearen printzipioak mehatxatzen ditu: zuzendaritza demokratikoa eta langile-jabeendako enplegu segurua".

AEBetako Kent State Universityko George Cheney aditua aipatzen du artikuluak. Bere iritziz, kooperatiba sarea krisi horretatik irtengo da, "baina oztopo handiak izango ditu".

### Driron-en porrota

Hiru faktore aipatzen ditu WSJk Etxetresnen gainbehera azaltzeko: Brandt erosi izana "Whirlpool eta Electrolux-ekin lehiatzeko" eta "muntaia-lan gehiena Espainian eta Frantzian uztea"; Driron gailuan 6 milioi inbertitu izana; eta, bere lege-izaerarengatik, kapital berria lortzeko zituen mugak.

# Lan-harreman eredu berria bultzatuko du Ekonomiak

Sindikatuek baztertu egin dute Adegik eta Jaurlaritzak egin duten proposamena

L.K. | ARRASATE

Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun sailburuak, Arantza Tapiak, Adegik proposatutako lan-harreman eredu berria babestu zuen eta apirilean onartuko den Industria Planean "garrantzi nabarmena" izango duela aurreratu zuen. Sailburuaren esanetan, enpresen lehiakortasuna haien "demokratizazioa" areagotuz hobetuko duen "berrikuntza sozialeko estrategia" bat izango da eta, besteak beste, aldeen arteko interlokuzio zuzena bultzatuko da.

Lan Harremanen Euskal Kontseiluaren arabera, 2013an 300dik gora greba egin ziren Euskadin (%20,9 gehiago), 30.000 pertsona inguruk hartu zuten parte eta 125.000tik gora lanaldi galdu ziren.

**DATUA**

**%21**

GREBA GEHIAGO

**Iaz, 300 greba egin ziren EAEn, 2012an baino %20,9 gehiago.**

Lan-harreman proposamen horrek erantzuna jaso zuen berehala. LABek protesta egin zuen jardunaldia egiten ari zen bitartean, Miramon jauregi kanpoan; ELAko Joseba Villarrealek esan zuenez, Adegik "bere baldintzak modu koaktiboagoan inposatuko" zituen lan-harreman eredu horrekin.

# Oinordekotzek, 400.000 euroko murrizketa

L.K. | ARRASATE

Joan den eguaztena ezkero, heriotzarengatik eta bizitza -aseguruetatik oinordekotza edo dohaintza bat jaso duten seme-alaba, senar, emazte eta izatezko bikotekideek 400.000 euroko murrizpena izango dute zerga-oinarrian, Gipuzkoako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga aldatzen duen hilaren 17ko Foru Arauaren ondorioz. Orain arte, 220.000 euro murrizten ziren.

Horrez gain, foru arau berberaren ondorioz, adopzioen berdinak izango dira zergarendako aurrerantzean harrera iraunkorra eta adopzio aurreko egoera, baldin eta bi harreman mota horiek legedia zibilaren arabera sortu badira.

## ZABALIK



**IÑAKI LAKARRA**
http://goiena.net/iritzia/

# Bilatzaileak eta '.eus' domeinuak

Itxi berri dugun 2013. urtean, ICANN (Internet Corporation for Asigned Names and Numbers) erakundeak *.eus* domeinua onartu zuen (lehen *.cat* domeinuekin gauza bera egin zuen). Lehen mailako Internet domeinua da. Edonork eskatu dezake eta euskal komunitateari eta euskal kulturari buruzko edukiak zabaltzeko erabiliko da.

Domeinu mota berri hauen erregistro eta erreserba, oraingoz, edonork PuntuEus Fundazioaren bitartez egin dezake (2014. martxo-apiriletik aurrera). Printzipioz, edozein domeinu eska daiteke, baina ICANNek berak muga edo salbuespen batzuk markatzen ditu.

**"ICANNek berak muga edo salbuespen batzuk markatzen ditu"**

Zer-nolako aldaketa eta pauso eman behar ditugu gure webguneetan *.eus* domeinuak erabili nahi izanez gero? Webgune berriak baldin badira prozesua nahiko erraza da: *.eus* domeinua erosi (hobeto esanda, urteko alokairua ordaindu), edukiak sartu eta bilatzaileei (Google da bilatzailerik ezagunena eta erabiliena) webgune berri bat dugula esan.

Gogora dezagun bilatzaileek erabiltzen dituzten datu baseak herrialdeen araberakoak izaten direla eta ez hizkuntzaren araberakoak. Hau da, *google.es* (Espainia) eta *google.com.mx*-ek (Mexiko) gaztelerazko informazioa gordetzen dute, baina, datu baseak desberdinak direnez, erabiltzeko orduan lortzen ditugun emaitzak ere desberdinak izango dira.

Googlek Euskal Herrirako datu base bat sortzen ez duen bitartean ez dugu aurrerapen handirik sumatuko. Webgunea lehendik sortuta (eta ondorioz bilatzaileentzat ezaguna) baldin badugu, edukiak domeinu berrira pasa beharko ditugu. Adibidez, lehen edukiak *http://goiena.net/arrasate/* webgunean baldin bageneuzkan, orain *http://goiena.eus/arrasate/* webgunera pasa beharko ditugu eta ondoren bilatzaileei gure edukiak domeinuz aldatu ditugula jakinarazi. Era horretan, lehendik geneukan posizionamendua ez dugu galduko.

## USTEAK USTE

**UBANE MADERA** | umadera@goiena.com

# Mikrouhin-labe barik

Astebete mikrouhin-labe barik egotea tokatu zaigu etxean. Zaharra (bi urte besterik ez zuen) apurtu, eta berria erosi artean. Horren kontura, nire bi susmo errealak direla jabetu naiz. Bata da posible dela, gaur egun ere, mikrouhin-labe barik bizitzea. Benetan. Egia da. Baina... ze ondo berria etorri denean! Ze zorionez, edo zoritxarrez, gure bizimodu azkarrak eskertzen ditu halako asmakizun modernoak. Ahaztu barik badaudela jaki eta ohitura batzuk mikrouhin-labearekin lotura zuzena dutenak. Eta bestea da tresna ugari bizirauten motz-motza izateko sortuta daudela nahita. Zorionez (orain bai), Kafekonpon moduko ekimenak sortzen eta ugaritzen hasi dira gurean.

## KALE INKESTA

# Sagardotegira joateko asmorik bai?



**ITZIAR GOENAGA**
PLENTZIA

"Ahal izanez gero, urtean behin joaten naiz Aramaioko sagardotegira. Gertutasunagatik eta umeentzako aproposa delako".



**MARTIN AGIRREGOMEZKORTA**
OÑATI

"Gustatzen zait sagardotegia, baina geroz eta gutxiago joaten naiz. Deba aldean dagoen sagardotegira joaten naiz".



**LIERNI AXPE**
ARRASATE

"Ohitura handirik ez daukat. Ez naiz sagardozalea, ardoa eskatzen dut. Koadrilakoak elkartzen gara, urtean behin, gutxienez".



**UXUE BARRENA**
OÑATI

"Bai, koadrilakoekin eta kintoekin joateko asmoa dago. Posible bada, urtean behin, gutxienez. Aurreko urtean Hernani aldera joan ginen".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Badator eguna eta gu bagoaz: Espaloiak 10 urte

**Iban Arantzabal**
http://www.arantzabal.com/

2000. urtean idatzi genuen Gasteizko Parralen Elgetarako izan zitekeen kultura gune baten txostena.

Ordutik deitu genion kafe antzokia.

Gerora etorri zen Espaloia izendapena, herritarrei galdeketa bat eginda eta Itoizen kantu ederra gogoan.

Argi genuen Espaloian ibili behar zirela pentsakera, kolore, bizipen, hizkuntza... ezberdinetako lagunak.

Ibili dira eta dabiltza.

Dena ardatz baten bueltan, GET: Goibeko Euskaltzaleon Topagunearen bueltan (GET, *get*, LORTU moduan itzul genezakeena).

Lortu dugu plaza irekia.

Eta utziko dugu plaza ireki jantzia.

Erabaki dugu elkartean inbertsio guztiak herriarendako uztea. Soinu, aulki, sukalde....

Inbertitutako milaka eta milaka euroak amortizatuta, zor barik eta egindako beste milaka lan orduek ematen dituzten poz eta nekeekin helduko gara ekainera.

Etxeko lanak egin izanaren sentsazioa dugu eta lortzea pentsatzen ez genituenak lortuta.

Itsuren batzuk beti daude, baina hasieran egon zirenak baino askoz gutxiago dira gaur, banakak.

Herritarrek aitortu digute egindakoa eta baita inguruko ikus-entzule zein kultura munduak ere, bereziki sortzaileek.

Pozez zoratzen gaude gu.

Ez dago barita magikorik, datozenak ere egin ahal izango dute horrenbeste edota gehiago.

Ezberdin seguru, eta hori ere ona izango da duda barik.

Sekreturik egotekotan lana da, eta lan egitea edonoren esku dago, hobeto egin daitekeela pentsatzen dutenen esku bereziki.

Guri funtzionatu digu auzolanak, bospasei laguneko ekipoak modu iraunkorrean egin du lan eta xemeikorik kobratzeka sekula.

Berdin eskua altxatu eta aulkiak jartzen edo sarreran, edo... ibili diren lagunek.

Borondate lana ezingo dugu inoiz behar beste eskertu.

Balorazio sakonagoak ere helduko dira, baina hasi gara erretreta ordenatuan (hori da modan dagoena, ez?).

Hori bai, ekain amaierara arte programa betea dugu eta denokin ospatzeko gogoa.

# Jenio linguistikoa aldarrikatu (Hiztunpolisa pilulak 9)

**Txerra Rodriguez**
http://blogak.com/garaigoikoa/

Jende askorengan, euskara estandar motel xamar batek nekez betetzen du funtzio motibatzailea.

Euskalkietan nor-ago sentitzen dira gazteak, kolore apur bat behar dute.

Debagoieneko hizkerek, maila batzuetan, beren funtzioa izango dutela dirudi oñatiar, arrasatear edo atxabaltarren autoirudian, hizketaren funtzio estetikoan eta estilistikoan.

Norbanakoaren jenio linguistikoa aldarrikatu behar da orain arte baino gehiago.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Julen Iriondo
**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500:**
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550:**
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


Arrasate!
Atxabalta!
Eskoitza!
ELKAR HEZI
ikastetxea,
aukera berri bat
zure esku.
EURI TANTETAN
EGUZKI IZPITAN,
IRUDIMENAREN
OSTADARRA:
ELKAR HEZI
ELKAR HEZI
ikastetxea
ATE IREKIAK: OTSAILAK 1 (10:30etik aurrera)
Matrikulazio epea Otsailak 3tik 14ra
www.elkarhezi.com
ELKAR HEZI ikastetxea
Q Euskadi 2006
Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza:
Arantzazu kalea 18, Tel.: 943 71 82 72
DBH eta Batxi: Santa Marina plaza 2, Tel.: 943 78 28 70
2012 Bikain
kristau-eskola
Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko deitu 943 71 82 72 telefonora

**Iban Peñakoba** | Autoeskolako arduraduna

# "120 km/h-ko muga orain 40 urtekoa da; seinaleztapen malguagoa behar da"

- Zirkulazio Lege berria egitekoa da Gobernua
- Abiadura mugak, kaskoa ipini beharra... dira hizpide


Iban Peñakoba, Arrasateko autoeskolako ikasgelan. | L.K.

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasate eta Oñatiko Peñakoba autoeskolako arduraduna da Iban Peñakoba. Haren esanetan, "abiadura istripuetako faktore bat da, baina asko daude".

**Joan den urte bukaeran, Zirkulazio Lege berriaren gaineko hainbat albiste atera ziren, baina oraindik ez dago indarrean.**

Ez, prozesu bat dago. Estatuan, Bide-Segurtasun Batzorde bat dago, eta horrek lege eta arauetarako proposamenak egiten ditu, jendartean dagoen eskaera ere ikusita. Proposamen horiek Gobernutik eta filtro batzuetatik basa behar dira, eta gauza batzuk onartu egiten dira, eta beste batzuk, ez. Askotan irteten da telebistan-eta arau bat egin behar dutela, eta, azkenean, alarma soziala ere sortzen da, baina gero beharbada ez da aplikatzen.

**Dena dela, aldaketa askotxo ez dira egiten zirkulazio arauetan?**

Beti daude aldaketa batzuk. Oraingoan, azterketetan erabili beharreko ibilgailuetan aldaketa batzuk etorri dira, baina horiek ez dute jendearengan eraginik.

Aldaketa asko ez dira oso sakonak izaten. Hor, Bide-Segurtasun Legea dago, eta horren barruan, hainbat erregelamendu, eta erregelamendu horietako zenbait puntu aldatzen dituzte; adibidez, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean egin dituzte azterketetako ibilgailuen gaineko aldaketak; eta beste gauza bat da Gidarien Erregelamendu Orokorra.

**Lehen aipatu duzun alarma edo polemika hori piztu du, adibidez, ziklistek kaskoa beti eroateko derrigortasunak. Azkenean, badirudi bakarrik 16 urtetik beherakoek eroan beharko dutela.**

Ni neu kaskoaren alde nago. Askok esango dute herri barruan bizikletan ibiltzerakoan gogaikarria dela, eta bai, badauka bere alde deserosoa, baina, nire iritziz, segurtasun elementu nagusia da; izan ere, ez da buruan kolpe handirik behar, kolpe hori larria izateko. Beraz, nire ikuspuntua da derrigorrezkoa izan beharko litzatekeela. Orain urte asko, profesionalek ez zuten kaskoa erabiltzen, eta gaur egun guztiz normala da.

**Orain urte batzuk indar handia izan zuen 130 km/h-ko abiadura mugaren inguruko eztabaidak, eta oraingoan ere piztu da eztabaida hori. Zer diozu?**

Abiadurak bere eragina du istripuetan, baina istripuetan faktore asko daude –seinaleztapena, autoaren mantenu txarra, errepidea...–, eta abiadura bat da, baina errua beti abiadurari botatzen zaio. Neurri baten, hala da; baina errealistak izan behar dugu: 120 km/h-ko muga 1974koa da, eta ordutik hona gauzak asko aldatu dira: automobilen segurtasun aldetik, errepide aldetik... Hemendik Bartzelonara joateak, adibidez, 120 km/h-ra ia barregarria dirudi. Nire iritziz, seinaleztapen dinamikoagoa eta malguagoa behar da; ahal den lekuetan eta baldintza onekin, 130 edo 140 km/h-ko abiadura normala iruditzen zait; gero, beste leku batzuetan 80 km/h-ra murriztu behar bada, euria delako, lainoa dagoelako... murriztu dadila. Azterketa asko daude, eta batzuek diote abiadura handiarekin istripuak larriagoak izango liratekeela; baina, bestetik, ohiko errepideetan izaten dira heriotzak dauden istripu gehienak, hiri barruan ere bai, oinezkoekin askotan...

**"Arau batzuek alarma pizten dute, baina gero asko ez dira onartzen"**

**"Txirrindulariek beti eroan beharko lukete kaskoa, nire iritziz"**

**Automobilen mantenua ere aipatu duzu, faktore gisa.**

Krisiak alarma piztu du: urte onetan, automobil-parkea asko hobetu zen eta autoen batez besteko adina txikiagoa zen; orain, autoen salmentak asko jaitsi dira eta, urte gutxian, automobil-parkea zahartu egin da. 10 urte baino zaharragoak diren auto gehiago dago, azterketa teknikoa justu-justu gainditu duten automobil gehiago... Bigarren eskuko auto gehiago saltzen da orain, baina merkeenak saltzen dira ondoen, eta autoa dabilen artean, horrekin jarraitzeko mentalitatea du jendeak; baina autoa zaharragoa izango da, mantenu txarragoa izango du... eta horrek ere eragina du.

**Debagoienean, jendeak, orokorrean, ondo gidatuko duela pentsatzen dut.**

Bai, orokorrean bai, nahiz eta automata samar egiten garen denok. Egia da urteekin, gizartea aurrera doan neurrian, kontzientzia handiagoa dugula eta arinkeria gutxiago egiten ditugula. Orain 10 urte, estatuan, ia 5.000 hildako egoten ziren urtero errepideetan, eta iaz 1.200 inguru izan ziren; orain 10 urte, aurreikuspen onenetan ere ez zuketeen horrelako hobekuntzarik imajinatuko. Datuak hor daude eta lan ona egin da, baina lortu behar da hildako bat ere ez egotea; beti dago zer hobetu eta adi jarraitu behar dugu.

**Albiste batek zioenez, adin batetik aurrerako gidariek bere burua *birziklatu* behar izango zuten laster. Ze irudituko litzaizuke?**

Nagusi egiten garenean, erreflejoak eta gaitasunak galtzen ditugu. Jende asko horren kontziente da eta, adibidez, gauez ez du autoa hartzen, okerrago ikusten duelako; beste askori kosta egiten zaie onartzea. Beraz, *birziklatzea* ondo dago, eta ez litzateke eskola piloa hartzeko kontua izan beharko, baizik eta etengabeko birziklatzea, lau arau kontuan izateko. Lehen, kamioi eta autobus gidariek bakarrik mediku -azterketa pasa behar zuten, eta orain, berriz, bost urtean behin ikastaroa egin behar dute.

**Autoeskolei dagokizuenez, krisiak aldatu du zuen ikasle mota?**

Bai. Lehen, 18 urte betetzerakoan, lehenengo gauza gida-baimena ateratzea zen; gaur egun, ordea, ez dago presarik. Horregatik, gure ikasleen adina pixka bat igo da eta 21, 22 edo 23 urterekin dator jendea. Krisiaren eragina dela uste dut, bai. Ez balitz krisirik izango, seguruenik jendea ikasten eta lanean egongo litzateke eta gida-baimena lehentasuna izango litzateke; baina, etxean egoteko, edo etxean bakarrik lan egiteko, ez dute behar eta dirua aurreratzea eta geroago ateratzea gurago izaten dute.

**"Lehen, 18 urte egin eta autoeskolara zetozen, baina orain, lasai hartzen dute"**

**"Automobil zahar gehiago dabil orain, eta segurtasunean eragiten du horrek"**

**Askotan galdetuko zizuten, baina zergatik dago halako prezio alde handia gida-baimena leku baten edo beste baten aterata?**

Leku askotan, kostearen azpiko prezioekin dabiltza, eta ia kendu ezin dena kendu dute, prezio-gerra baten sartuz. Hori jasanezin bihurtzen da. Adibidez, orain dela gutxi, Granadara autobusa antolatu zuten, eta Euskaditik 16 lagun joan ziren, gida-baimena ateratzera, eta bakarrik zortzi etorri ziren gida-baimenarekin. Gero, leku askotan tranpak egiten dituzte, eta, baimena atera ezean, penalizatu egiten dituzte ikasleak; eta hara joateak, han bizi izateak... ere koste bat dauka. Hemengo, inguruko autoeskolak elkar errespetatzen dugu eta bakoitza bere lanarekin eta kostuekin hor jarraitzen saiatzen gara, eta hortxe gabiltza. Ez da erraza. Ikasle kopurua ere askoz txikiagoa da, kintak txikiagoak direlako; orain 10 urte, Arrasaten 400 gazte zeuden baimena ateratzeko, eta orain, 150 bat.

# HERRIAK

ARETXABALETA

# Urteen joan-etorriaz aldatuz joan da Santa Ageda bezpera

▸ Lehen, herriko etxe guztiak bisitatzen zituzten kintoek kantuan

▸ Abesbatzakoak eta musika eskolakoak ere irteten dira bezperan

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Denborarekin, jendarteak dituen ohiturak aldatzen joaten dira. Kasu batzuetan, aldaketa izugarri nabaritzen da, eta zertzeladak izaten dira, bestetan, atzeman daitezkeenak. Esate baterako, Santa Ageda bezperako –otsailaren 4an– usadioa aldatzen joan da Aretxabaletan. Angel Barandiaran Aretxabaleta Abesbatzako zuzendaria egun ere irteten da kantuan, eta urte hauetan guztietan igarritako aldaerez egin du berba.

**Lehengo eta oraingo kintoak**

Aretxabaletan usadioa da urteko kintoak Santa Ageda kantuan irtetea. Ohituraren jatorria ezagutzeko 1896ra bidaiatu beharra dagoela eman du aditzera Barandiaranek. "Urte hartan ezarritako Kinten Legeari jarraituz, bost gaztetatik bat (bosten bat) izendatzen zen soldadutzara joateko. Hortaz, horietariko bakoitza bostena edo kintoa zen. Kintoak hasi aurretik, baina, santa-eskean herritarrak aterako ziren. Nik umetatik bizi izan dudan ohitura da, eta kintoa ere izan nintzen, 1964an".

Kaleko kintoak baserri-auzoetara joaten ziren bezperan etxez etxe abestera eta Santa Ageda egunean, ostera, kaletarrek kalean abesten zuten, eta baserritarrek baserrietan egiten zituzten kantu-saioak. "Eta baserri-auzoetako kintoak gutxi izaten zirenez, jende gehiago joaten zen haiekin aritzeko. Gerora, hori aldatu egin zen eta denak batera ateratzen hasi ziren".

Aretxabaletarrak, gainera, gogoan du nola lehen etxe guzti-guztietara joaten ziren abestera. Gogotsu kantatzen zutela dio: "Ahalik eta limosna gehien jasotzeko helburua geneukan". Izan ere, batutako horrekin jatorduak eta parrandak egiten zituzten mutilek. "Gaur egun kintoak direnek, antzinako garaietakoek baino ahalmen ekonomiko handiagoa dute. Horregatik, iruditzen zait ez dutela orduan besteko inkernurik ipintzen, ez kanturako, ezta dantzarako ere".

Kintoekin jarraituz, lehen soldadutza aitzakia izanik, gizonezkoak soilik irteten ziren Santa Ageda bezperan abestera; gaur egun, ostera, gizonezkoak eta emakumezkoak dira taldea osatzen dutenak.



Kintoak 2002an baserriz baserri kantuan Santa Ageda bezperan. | GOIENA



Aretxabaleta Abesbatzako kideak Santa Ageda koplak abesten. | MIRARI ALTUBE

**Abestietan ezberdintasuna**

Baina Santa Ageda bezperan irteteko ohitura ez da soilik kintoei mugatzen. Besteak beste, Aretxabaleta Abesbatzako kideak urtero irteten dira koplak abestera 2002a ezkero. Hala oroitzen du abesbatzako zuzendariak: "Sasoi hartako kintoek ikastolan ikasitako bertsoak eta doinuak kantatzen zituzten, eta haiek Gipuzkoa aldekoak ziren, Aretxabaletan aurretik erabiltzen zirenen ordez. Horren aurrean, bertakoak berreskuratzea garrantzitsua izango zela pentsatu genuen, eta halaxe hasi ginen, kalerik kale, eskean egin gabe".

**Abesbatza, musika eskola...**

Iaz bezala, abesbatzako 40 lagun inguru irtengo dira abestera otsailaren 4an, martitzena, eta haiekin batera Leizarra Musika Eskolako 40 neska-mutil inguruk hartuko dute parte. "Baina herritar guztiei egiten diegu gonbita, gura badute gurekin batera kanta dezaten".

Hori horrela, 18:30ean elkartuko dira Herriko Plazan. Aretxabaleta Abesbatzako lehendakari Nuria Fernandez de Arroiabek aditzera eman duenez, ohi bezala ibilbide jakin bat jarraituko dute. "Herriko Plazatik zaharren egoitzara, handik Gernika plazara, Iralabarrira, Mitarte kalera, Durana kalera eta, bukatzeko, Herrik Plazan abesten dugu".

Bertaratzen direnek aukera izango dute abesbatzako eta musika eskolako kideekin batera kantatzeko. Bertso-paperak plazan banatu arren, beste guneetan ere eskatu ahal izango direla eman dute aditzera. Guztira, hamabi kopla kantatuko dituzte, lau doinu ezberdin baliatuta. "Baina geldiune horietan guztietan denak kantatzea ezinezkoa litzatekeenez, zazpina kopla abestuko ditugu, txandaka. Animatu eta etorri arratsalde eder bat gurekin igarotzera!".

## 1995ean jaiotako kintoen txanda

Aurten, 1995ean jaiotako kintoen txanda izango da eta hasiak dituzte dagoeneko entseguak; 30 lagun elkartzen dira egubakoitz iluntzeetan Iturrigorrin. Aurreneko irteera otsailaren 4an izango dute, baserriz baserri joango baitira kantuan neska-mutilak, eta hurrengo egunean, ostera, kalean gora eta behera ibiliko dira. Behin Santa Ageda eguna pasatuta eta Aratusteak bitartean, domekero elkartuko dira Herriko Plazan, dantza egiteko (19:00). Bost domeka dituzte aurten, gainera, aurretik. Eta Aratuste-domeka iristen denean txino-dantzarekin irtengo dira herritarren aurrera, ohiturari jarraituz. Hori guztiori ari dira ikasten herriko neska-mutilak: Santa Agedaren omenezko koplak, batetik; eta jendaurrean egin beharreko dantzak, bestetik.



Aurten kintoak izango direnak, entsegutan. | IMANOL SORIANO

BERGARA

# Erraldoi eta kilikien topaketa, Aratusteetarako "lehen kontaktua"

## Zabalotegiko frontoian elkartu ziren; entseatzeko eta arropak garbitzera eroateko aprobetxatu zuten goiza


Erraldoi beteranoenak *biluztu* zituzten atzo. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Bergarako Erraldoi Taldeak topaketa egin zuen atzo Zabalotegiko pilotalekuan, haurrei zuzenduta. Iaz lehen aldiz egin zuten deialdia eta haur batzuek eman zuten izena. Hala ere, taldeko kide Ibon Unamunok dioenez, haur txikiak "badatoz eta badoaz": "Ez dira modu finko baten etortzen. Horregatik aurten ere deialdia egin dugu; iazko batzuk etorri dira eta baita jende berria ere. Zenbat eta jende gehiago, hobeto".

### Ateak zabalik dituzte

Erraldoien artean, beteranoenak *Joxe Bixente* eta *Mari Kattalin* dira, 38 urte dituzten artzaina eta dantzaria. Horiez gain, *Simon* baserritarra eta *Peru* kaletar elegantea daude. Familia osatzen azkenak *Felisin* eta *Guti* izan ziren, Felix Iñiguez eta Luis Mari Gutierrezen omenez sortutako kilikiak. Azken bi horiek haurrek eramateko egin zituzten; baina, Unamunok aitortu duenez, kalkulu arazo bat izan zuten: "Burutik ikusten denez, gutxienez metro eta erdiko altuera behar da eramateko. Hori ikusita, beste bi erraldoi egitea erabaki genuen, herriko historiarekin lotura dutenak. Hortik jaio ziren Elhuyar anaien erraldoiak".

Taldea osasuntsu dago: "Nagusietan 24 gara, ondo gabiltza. Hala ere, gura duenarendako ateak zabalik ditugu".


Atzoko entseguan parte hartu zuten umeak kiliki eta erraldoiekin; tartean, *Elhuyar anaiak*, *Felisin* eta *Guti*. | J.B.



**IBON UNAMUNO**
ERRALDOI TALDEKO KIDEA

"Irailetik ez gara elkartu eta urte berria Aratusteekin hasten dugunez, erraldoiekin lehen kontaktu bat izan da. Entseguaren ostean erraldoiak desmuntatu ditugu arropak garbitzera eroateko; guztiak elegante jarriko ditugu".



**JON ERRASTI**
PARTAIDEA ETA KILIKI EGILEA

"Betidanik gustatu izan zaizkit kilikiak eta erraldoiak; batzuk nire eskuekin egin ditut. *Dantzaritxo*, *Trikitixa*, *Harrina* eta *Mahoi* dira nik egin ditudanak. Aratusteetako irteeran parte hartuko dut; entseguak ondo doaz".



**MIREN RUIZ DE EGINO**
PARTE HARTZAILEA

"Kiliki eta erraldoiekin oso ondo pasatzen dut, parte hartu dudan irteeretan ederto ibili naiz. Bergarakoak, gainera, oso politak dira. Aratusteetarako entseguak ondo doaz, eta dagoeneko aukeratu dut aurtengo mozorroa".


Erraldoiak desmuntatu eta arropak kendu zizkieten, garbitzera eroateko. | J.B.

OÑATI

# Misio taldekoen elkartasun afarian, Maliko proiektuan emandako urratsak hizpide

J.B. | OÑATI

Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio taldeak elkartasun afari egin zuen egubakoitz iluntzean Bidaurretako monasterioan. Azken bi urteetan Maliko Errepublikan (Afrika) aurrera eraman duten proiektua izan zen protagonista; janaria bidaltzera eta Togo herrian dagoen Saint Paul ikastetxean egin beharreko lanetara bideratu da bi urteotan bildutako dirua. 2012an 25.000 euro biltzeko helburua zehaztu zuten eta Misio taldeko kide Jose Antonio Urteagaren arabera, kopuru horretara iritsi dira dagoeneko. Elkartasun afariekin –urtean lau egiten dituzte– eta bestelako ekintzekin –Aratusteetako txokolate-jana eta Gabonetako ekintzak kasu– bete dute helburua.

### Adinekoak eta emakumezkoak

Egubakoitzeko afarian 80 bat lagun elkartu ziren, gehienak emakumezkoak eta 60 urtetik gorakoak. 30 bat tortilla eraman zituzten eta giro ederrean joan zen afaria; antolatzaileak, pozik.


80 bat lagun elkartu ziren egubakoitz iluntzean Bidaurretan egin zuten elkartasun afarian. | IMANOL SORIANO



Auzotarrak txistorra eta ardoa banatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Ugaraxo tiraketa lehiaketako une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

# Jaiak "elegante" joan dira aurten ere Ubera auzoan, parte-hartze handiarekin

Lehiaketak ugari dira Uberako jaietan: tartak, tortillak, ugaraxo tiraketa... Eta horietako guztietan animatu zen makinatxo bat jende parte hartzera

**JON BEREZIBAR** | BERGARA
San Paulo jaietan guztiz murgilduta egon dira Bergarako Ubera auzoan asteburu guztian zehar. Jaietan, Uberan txapelketak eta lehiaketak dira protagonista eta bereziak bi: ugaraxo tiraketa eta gozogintzakoa. Izen bereziak, berriz, beste hauek: Mari Justa eta Pedro Joxe. Uberako ikurrak dira eta bi pertsonaien jaitsierarekin hasi zituzten jaiak barikuan bertan, eta pilotalekuan izan dituzte, ohorezko lekuan, asteburu guztian zehar.

**Parte-hartzearekin pozik**

Zapatukoa izan zen egun handia, San Paulo eguna, hain zuzen. "Meza, salda eta txistor" legea eginda, tortilla eta tarta lehiaketak egin zituzten, biak ala biak auzotarren oso gustukoak, kontatzen dutenez. Dozena bat parte-hartzaile egon ziren batean zein bestean, gutxi gorabehera. Tartik onena Mari Jose Zeziagarena izan zen eta tortillarik onena Jesus Elortzarena. "Primeran eta giro bikainean" joan da, haren hitzetan, jai-asteburua. Domekako izarra, ostera, ugaraxo tiraketa lehiaketa izan zen, eta 40 bat lagunek jokatu zuten. Auzoan, aurten ere, pozik daude, parte-hartzea eta giroa bilatzen baitute, bai auzotarrentzat zein bisitarientzat, eta aurten berriz ere "elegante" ibili direla diote.



Auzo dantza, ermitako bidean. | JOSETXO ARANTZABAL



Gorriti etxeak pottokak eroan zituen zapatu arratsaldean. | J.B.

ARRASATE

# San Balerio jaiek piztu dute Meatzerreka oraingo asteburuan

Ohi bezala, erromeria, auzo dantza berezia eta mus txapelketa egin dituzte, besteak beste

**J.B.** | ARRASATE
Asteburuan San Balerio jaiak ospatu dituzte Arrasateko Meatzerreka auzoan.

Herriko ermitarik ezkutuena da San Balerio, baina badu baita ere herriko ohitura berezi eta bakarra dena: auzo-dantza. Meatzerrekako ohitura da eta Lore Gazteak dantza taldekoak arduratu dira aurten egiteaz, txistularien laguntzarekin. Atzo izan zen hori, eguerdian. Jaien erdigunea, baina, Meatzerreka elkartea da, eta han egin dituzte asteburuko ekintza nagusiak; hala nola, mus txapelketa, animaliekin jolasak eta dantzaldia. Aurten ere egitarau osoa izan dute eta historiari buruzko berbaldia, tortilla lehiaketa eta, noski, dantzaldia izan dituzte. Orotz taldeak jo zuen zapatu gauean.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

# Txakolina eta jaia Parteittin

Angiozarko Parteitti auzoan San Bizente jaiak ospatu dituzte asteburu honetan. Auzoko jaia izateaz gain, Debagoieneko txakolin berria dastatzeko aukeretako bat ere izaten da Parteittikoa, Arrasateko Kataide upategikoek ohitura baitute txakolin berria han aurkezteko. Jendeak gustura dastatu zuen zuku berria.



Herritar bat Biztanleen Arreta Zerbitzuan tramite bat gauzatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

# BAZeko Zerbitzu Gutuna, aitzindari udal zerbitzuak hobetzeko "konpromisoan"

- Liburuxka baten jaso dira BAZen ezaugarri guztiak
- Beste zerbitzu batzuen gutunak ere aterako dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zerbitzu publikoak hobetzeko "konpromisoan" urrats kualitatiboa eman du Arrasateko Udalak, Biztanleen Arreta Zerbitzuaren Zerbitzu Gutuna atera du. Liburuxka horren bitartez, zerbitzuaren ezaugarri guztien berri emateaz gain, herritarrei jakinarazten zaie zerbitzu horrek ze konpromiso dituen, eta baita herritarrek eurek ze eskubide dituzten ere. Finean, kalitatearen kultura sustatu nahi da ekimen honekin, betebeharreko konpromisoak ezarriz.

**Udalaren berri "zehatza" izatea**

BAZekoa da Arrasateko Udalak atera duen lehen Zerbitzu Gutuna, aitzindaria. Asmoa da apurka-apurka beste zerbitzu publikoen gaineko gutunak ateratzen joatea: Udal-biblioteka, Aukea, Udal euskaltegia, Ongizate zerbitzua, Amaia antzokia... Azken helburua da herritarrek Udalaren jardunaren berri "zehatza" izatea.

**Informazio zabala**

BAZeko Zerbitzu Gutunak , informazio erabilgarria jasotzeaz gain –ordutegiak, telefonoa, helbideak...–, bulegoan kudeatzen diren tramite garrantzitsuenen zerrenda ere jasotzen du.

Horrez gain, BAZek kalitateari begira hartzen dituen konpromisoak irakur daitezke: ordutegi zabala, banan-banako arreta, tratu atsegina eta adeitsua, itxaronaldiak laburrak izatea eta langileak behar den denbora erabiliko duela herritarren eskaera kudeatzeko, besteak beste. Gainera, liburuxkan BAZen ezarrita dauden jarraipen eta jarduera adierazleak ere kontsulta daitezke. Gainera, aldiro azterketa bat egingo da herritarren gogobetetzemaila neurtzeko; era berean, bataz besteko itxaronaldia ere neurtuko dute.

Bestalde, zerbitzua erosoagoa izan dadin zenbait gomendio ere jasotzen ditu idatziak: dokumentazio osoa eta zuzena eramaten saiatzea, zerbitzua jende gutxien dagoenean erabiltzea (13:00-16:00) eta lehenbailehen ematea norberaren jabetzan eman ahal izan den edozein aldaketaren berri.

**BAZeko Zerbitzu Gutuna irakurtzeko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

## Ibarreko pianisten kontzertua etzi Amaian, Andoaingo jaialdira begira

J.B. | ARRASATE

Otsailaren 15 eta 16an Euskal Herriko IX. Piano Jaialdia egingo da Andoainen eta guztira 18 urtetik beherako 800 bat pianista batuko ditu.

Debagoienak ere ordezkaritza zabala izango du: Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Elgetako musika eskoletako piano-jotzaileek hartuko dute parte; guztira 50 musikari inguru izango dira.

**Sei herritako piano ikasleak**

Bada, Andoaingo jaialdiaren prestaketa moduan, Arrasate Musikalek kontzertua antolatu du etzirako, hilak 29, Amaia antzokian (18:30). Sei herrietako pianistak elkartuko dira Amaiako agertokian.

## 24 urte beteko ditu bihar Al-Andalusek, 450 bazkiderekin

1990eko urtarrilaren 28an onartu zituzten Al-Andalus elkartea sortzeko estatutuak. 24 urte beteko dira bihar, eta data berezia gogoratzeko ospakizun xumea egin zuten atzo. 450 bazkide dira gaur egun. Hurrengo data seinalatua otsailaren 28a izango da Arrasateko andaluziarrendako; egun horretan ospatuko dute Andaluzia Eguna.

NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA



## Idazteaz idazten

Sarritan azken orduan ibiltzen naiz txoko honetarako idazten. Zertaz jardungo erabaki nahian estu eta larri. Eta konturatu orduko urte batzuk egin ditut hemen idazten. Idazki dezente pilatu zait ordenagailuko karpetan. Gazteagoa nintzenean idatzitakoak, burutazioak, ahaleginak, pozik idatzitakoak, berriz idatziko ez nituzkeen batzuk eta berregingo nituzkeenak asko.

Agur baten hasiera dirudi baina ez da idatziko dudan azkena izango. Batek edo bestek galdetuko dio bere buruari zerk bultzatuta idazten duen hemen idazten duenak. Zerbait esateko dugunaren ustea, zerbait idazteko aukera eman izana, urteetako inertzia, protagonista izateko nahia akaso.

Askotan hori baino sinpleagoa ere izaten da. Dei soil bat, hariaren beste aldean dagoen kazetariak uzten dizun enkargua eta aukera.

Pentsatuko duzue berba aspertuan nabilela, akaso bai. Baina nondik eta nola idazten dudan zuekin konpartitzea ere ez da txarra.

Metaidazketa, idazteaz idazteari buruzko jarduna. Garaiak izaten direlako, batzuetan gogo biziz idaztekoak eta bestetan zerbait esateko ote dugunaren zalantza, idatzi beharra eta ezer ez esateko gogoa nahasten direnak. Bizi dugun aro *infoxikatuan* ez baita erraza zertaz jardun erabakitzea. Jarraituko dugu ahaleginean.

**"Nola idazten dudan konpartitzea ez da txarra"**

## PSE-EEk abortuaren legearen aurkako mozioa erregistratu du

J.B. | ARRASATE

Alderdi sozialistak PPk ezarri gura duen abortuaren legearen aurkako mozioa erregistratu du Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan. Mozioa aurkeztu dute Debagoieneko udalek Rajoiren Gobernuari eska diezaioten legearen erreforma "berehala" bertan behera uzteko. Aurreproiektua gelditzeko euren eskuetan dagoen "guztia" egiten ari direla ekarri du gogora Arrasateko bozeramaile Aritz Arrietak. Haren ustez, abortuaren legearen erreforma emakumeen erabakitzeko eskubidearen aurkako "eraso" bat da. Gainera, egun indarrean dagoen legea PSOEren gobernuak onartutakoa dela gogoratu du sozialista arrasatearrak: "Egungo legeak emakumeei modu librean erabakitzeko aukera ematen die eta askatasun horrek ahalbidetu du, gainera, azken urteetan abortu gutxiago egotea".

PPk ezarri gura duen legearekin 1980eko hamarkadara itzuliko garela uste du Arrietak: "Ahalmena dutenak Frantzia edo Ingalaterrara joango dira eta gainerakoek klandestinitatera joko dute". Erreformak gizartearen gaitzespena jaso duela gaineratu du.

## Gurasoei zuzendutako ikastaroa Prebentzio Zerbitzuaren eskutik

J.B. | ARRASATE

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak 0 eta 18 urte arteko haurren gurasoei zuzendutako tailerra antolatu du: *Eta zuk… zer egingo zenuke? Egoera kritikoei aurre egiteko baliabideak*. Erain Aholkularitzak gidatuta, tailerra otsaileko hirugarren astean hasiko da, eta sei saio egingo dira.

Honako gaiak landuko dituzte: seme-alabekin berba egiten ikasi, gatazkei nola aurre hartu, estres eta arrisku egoeretan jokabide eraginkorra izaten ikasi eta dolua eta pertsona maitatuen heriotzak nola gainditu. Seme-alaben adinaren arabera hiru talde sortuko dira; printzipioz, honako ordutegiak zehaztu dituzte: 0-6 urteko umeak dituztenendako martitzenetan (14:45-16:15), 7-12 urtekoendako martitzenetan (18:00 20:00), eta 13-18 urte urtekoak astelehenetan (18:00-20:00). Taldea sortzeko gutxieneko kopurua hamar pertsonakoa izango da.

**Otsailaren 7ra arte**

Izena emateko BAZera jo edo 943 25 20 07 telefonora deitu edo *prebentzio@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikora idatzi behar da. Izena emateko epea otsailaren 7ra arte egongo da zabalik.

# Martxoan estreinatuko da 'Ocho apellidos vascos'

## Duela bi aste aurkeztutako trailerreko eszena gehienak Al-Andalusen grabatutakoak dira

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Duela hilabete batzuk herri erdi aztoratu ostean, bi hilabete barru estreinatuko da *Ocho apellidos vascos* pelikula. Martxoaren 14an estreinatuko da Clara Lagoren (Amaia) eta Dani Roviaren (Rafa) arteko amodio istorioa. Trailerrean ikusten denez, ez da ohiko istorio erromantiko bat izango, hizkuntzak eta politikak komeria bat baino gehiago eragingo dituzte-eta.

Universal ekoiztetxeak Emilio Martinez Lazarok aurrez zuzendutako *Las 13 rosas* eta *El otro lado de la cama* pelikulekin izandako arrakasta errepikatu nahi du. Filma sustatzeko, gainera, Mediaset taldearen laguntza izango dute.

**Arrasate gogoko**

Badirudi Arrasaten grabatu beharreko hiruzpalau eszenak garrantzi handia dutela; izan ere, trailerreko zati handienean Al-Andalusen grabatutakoa ageri da. Antza denez, Sevillaz gain, Arrasatek ere *kolore berezia dauka.*

# Cobra taldearen 'Thriller Rock' doinuak Koolturren

## Historiako soinu banda esanguratsuenen bertsioak eginez, taldea abentura berri batean murgildu da

**I.G.** | ARRASATE

Zinerako jauzia eman du Cobra taldeak. Izan ere, film klasikoetako soinu bandak hartu eta euren bertsioak egin dituzte Haritz Lete, Josu Luengo, David Gonzalez eta Ekain Elorza kideek. *Covered (A Selection of Film Scores)* izeneko diskoak bost kantu biltzen ditu; tartean, Orson Wellesen *Touch Of Evil* filmaren omenez konposatu duten *The strangest vengeance ever planned*.

Cobra, beste behin ere, historikoki oso loturik izan diren bi mundu elkartzen saiatu da: musika eta zinea.

**Zinea baino gehiago**

Kooltur eguenean azken diskoa aurkezteaz gainera, energiaz betetako kontzertua eskainiko dute. Bertaratzen direnek Metallica, Deep Purple eta halako klasikoen eragina erraz antzemango dute.



TXATXILIPURDI

# 11 urte gazteen alboan

Erdiguneko aisialdiaren bihotz bilakatu den Okendoko ludotekak 11 urte bete ditu. Urtebetetze hori ospatzeko, ludoteketako haur eta hezitzaileak gogor aritu dira lanean, eta sudur gorri artista kuadrilla ederra elkartzea lortu zuten. Ospakizuna ez zuten bakarrik egin, eta hainbat ludotekatako haurrak, hezitzaileak eta helduak ere festara gerturatu ziren.

# Emakumea eta euskal literatura, bost protagonistaren oroimenetik

## 1987an 'Jakin' aldizkariko 'Emakumeak eta literatura' monografikoan parte hartu zutenek mahai-ingurua egingo dute hilaren 31n Emakume Txokoan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Euskal literaturan zeresan handia eman duten bost idazleren eskutik mahai-inguru interesgarria izango da egubakoitzean, hilak 31, Emakume Txokoan (19:30). Laura Mintegi, Aurelia Arkotxa, Gema Lasarte, Tere Irastortza eta Nerea Azurmendi gonbidatu ditu feminismoa eta euskarazko literatura lantzen dituen Sareinak taldeak. Antolatzaileek Emakume Txokoa baliatuko dute saio berezia egiteko; 1987an *Jakin* aldizkariko 45. zenbakian *Emakumea eta literatura* monografikoa izango da oinarria. Zenbaki hura aurrekaria izan zen euskal literaturan, genero ikasketa bultzatu zuen -eta, besteak beste. Zenbaki hartan idatzi zuten zenbait idazle eta ikerlari biltzea interesgarri iruditu zaie Sareinak taldekoei. Batetik, *Jakin* aldizkariko 45. zenbakiaren esperientziaz eta ekarpenez jarduteko –eta baita monografiko haren aitzakian antolatu zituzten ekimenak gogora ekartzeko ere–; eta bestetik, egungo egoeraren inguruko iritzia ere jasotzeko. Zer aldatu da azken 30 urteotan?



Laura Mintegi. | GOIENA



Aurelia Arkotxa. | GAIZKA IROZ



Gema Lasarte. | DANI BLANCO



Tere Irastortza. | BAZTERRAK NAHASTEN



Nerea Azurmendi. | EUSKOMEDIA.ORG

# NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

**SERGIO AZKARATE** | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



kirolak

### "Mondragonés", frontoietako jaun eta jabe

*Juan Bautista Azkarate Egaña, "Mondragonés" (1891-1965)*

Ogetaren eritziz, eskuzko pilotak hiru garai izan ditu: "Mondragonés", Atano III, eta Gallastegirena, hain zuzen.

Juan Bautista Azkarate Egaña, "Mondragonés", 1891an jaio eta 1965ean hil zen. 10 urtetan zehar (1917-1926) pilotalekuetako jauna izan zen, lehiakiderik aurkitu ez zuelarik: bai bera bakarrik bikoteen aurka; bikotea osatuz, hirukoteen aurka... konbinazio guztietan garaile suertatzen zen.

Pilotaria baino lehenago, okina izan zen. Artilari bezala soldadutza Donostian egiten ari zela, erabaki zuen pilotari profesionala izatea. Oso garaia, eta indar handiko pertsona zen. Kronika zaharrek diotenez, pilota jotzerakoan zuen indarra kristona zen. Garaiko marka guztiak (pilotari batek pilota asko atzeratzen zuenean, ikusle bat altxatu egiten zen eta horman marka bat egiteko ohitura zegoen) gainditu zituen. Batzuek diotenez, gaur partidu profesionaletan erabiltzen diren pilotamotak (lehengoak astunagoak ziren) erabiliz gero, "Mondragonés"ek paletako frontoietan jokatu beharko zukeen.

Bere indarra, beronen besoen potentzia, kantxan egoten jakitea, eta bere bistagatik mitoa izatera heldu zen. Inoiz ez zuen, bestalde, espektakularitatearen bila joateagatik, bere estiloa aldatzen. Eta hau arrazoi bategatik: beti zen espektakularra.

Bere nagusigoa 1917an hasi zen "Zapaterito de Lekeitio"ri txapela kendu zionean. Esan behar orduan arautegi ofizialik ez zegoela, eta horrela jokatzen ziren finalak: txapeldungaiak bi eskuz neurtzen zituen indarrak, txapeldunak esku bakarra erabiltzen zuen bitartean. Aspiranteak irabaziz gero, txapeldunarekin baldintza berdinetan jokatzeko eskubidea bereganatzen zuen.

Atano III agertu zenean, "Mondragonés"ek galdu zuen bere nagusigoa. 1926 urtea zen. Atano IIIk 22 urte zituen, "Mondragonés"ek, berriz, 35. Hiru bider jokatu zuten txapela lehian. Aurkaketa hauek leku berezia dute Pilotaren Historian. Lehenengoan, Atano IIIk bi eskuak erabiliz, eta "Mondragonés"ek eskuinekoa bakarrik, azkoitiarrak 22-12 irabazi zuen. Hurrengo bi partidutan, biak bi eskuz, azkoitiarra nagusitu zen berriro (22-19 eta 22-12). Atanoren nagusigoak 22 urtetan iraungo zuen.

**Pilotarien maisua**

1942an, 51 urte zituelarik, erretiratu arte, gogoz jarraitu zuen jokatzen. Egunero entrenatzen zuen, eta gazteei ordaintzen zien berarekin entrenatzeagatik. Horrela, Juan Bautista maisutzat zutelarik, "Zurdo de Mondragón", Bolinaga, Patri Egidazu (gero futbolaria izango zena) eta Arriaran anaiak hasi ziren pilota munduan.

*"Mondragonés" eta Mariano Jauristi, "Atano III", batzuren ustetan inoiz izan diren pilotaririk onenak*

Eta bukatzeko, hona hemen, hil zenean Basarrik beraren omenez eginiko bertso batzuk:

Plazan agertzen zinan
lerden eta eder,
Bapo zaintzen zenitun
zabal eta bazter.
Zu pelotan ikustez
ezin zeiken asper,
Berdiñ berdiñak ziñun
eskubi ta ezker.

BIONAS
Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

UGARTE
Industri hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 797300-8396
Telefax: 793412

ARRASATE PRESS 19



erreportaia

### Labeko Koba historiaurrearen ezagupenerako urrats berria

**Historiaurreaz hitz egiterakoan Leze-Txiki koba zetorkigun gogora Arrasatearroi, bera bait da orain arte gure herrian izan dugun garai honetako koba bakarra. Iaz Labeko Kobaren berri izan genuen eta bere garrantziaz asko entzun ere bai. Dagoeneko Aranzadi elkartekoek bertan egin behar zituzten lanak bukatu dituzte eta bere garrantziaz eta egin diren lanez lehen ondorioak kaleratu.**

*Lanetan jende ugarik hartu zuen parte*

**Kobaren istorioa**

Lebeko Koba 1972an herriko espeleologi taldeak aurkitu zuen eta topatu zituzten abere hezur eta tresnak jaso. Lehen aztarna haiek kontutan izanik inork ez zuen pentsatu kobaren garrantzia hain handia izan zitekeenik.

1987. urtean Aranzadikoek bariantearen lanak kobatik gertu zeudela jakitean lehen ikerketa batzu antolatzen dituzte kobaren esanguraz jabetzeko asmoz.

Lan egin ahal izateko kobaren sarrera aurkitu behar izan zen, sastrakak erabat eztaltzen bait zuen. Lehen balorapena egitean eta aztarnategia Goi Paleolitos garaiaren ezagupenerako garrantzia handikoa izan zitekeela konturatzean kobaren suntsipena birplanteatzen da.

Azterketak aurrerantz joan ahala, aztarnategiaren aberastasun eta garrantziaren inguruan egin ziren aurreikusmen guztiak gaindituta geratu ziren, hasieran ikertzea espero zen baino eremu dexente zabalagoa aztertu behar izan delarik, 40 metrotako lur sail bat.

**Aztarnategiaren garrantzia**

Labeko koban aurkitu diren aztarnak Goi Paleolitos garaiari dagozkio. Garai hau Kristo aurretik 200.000 eta 75.000 urte bitartean kokatzen da. Historiaurreko aro hau nahiko ezezaguna da. Euskal Herrian dauden aztarnategi garrantzitsu bakarrak Iparraldekoak direlarik, beraz, Labeko Koba Iparraldeko eta Kantauri aldeko aztarnategien arteko lotura bihur daiteke.

Bertako aztarnak hiru epetan bana daitezke. Lehen epean ez da gizonaren presentziarik somatzen, gordailu naturala izanik animaliak baino ez dira aurkitzen, errinozeronte ugari, oreinak eta zaldiak kopuru handian, bisonteak eta elefante baten betagin bat. Beste bi epeetan gizona koban bertan bizi da. Gizona koban bizi den lehen epea Goi Paleolitoseko arorik zaharrena da Chatelperron aldia deritzana hain zuzen eta aztarnak urriak dira. Beste epea Goi Paleolitoseko azken aroa da Aurinac Aldia alegia. Garai honetako aztarnak ugariak dira milaka pieza aurkitu direlarik. Ugarienak marruskak, Doufour erako milaka printza, hezurrez eginiko punzoi gutxi batzu etab luze bat. Bi epeak ondo bereiztuak aurki daitezke tresnerian garapena somatzeaz gain estatigrafian ere garbia bait da beraien arteko bereizkuntza. Aztarnategiaren kontserbazio maila desberdina da; koba barruan aurkitutakoak oso egoera onean daude, aldiz, kobaren babespetik kanpo zeudenak euriaren eraginez nahiko hondatu dira.

**Bariantearen eragina**

Labeko Koba desagertzera doala eta galdera ugari datorkigu burura. Horrek ez al du galera handia suposatzen? Lanak ondo egiteko astirik egon al da?

Aranzadi elkartekoek gauza guztiak batera egin behar izan direla adierazi digute, honek ohizkoak ez diren metodu batzuk erabiltzera behartu dituztelarik. Edozein aztarnategi iker-

ARRASATE PRESS 10

## 'Mondragones': frontoietako jaun eta jabe izen zan 10 urtien

Juan Bautista Azkarate Egaña mitue izen zan pelotan (1891-1965). Zergaittik?: "Bere indarra, beronen besoen potentzia, kantxan egoten jakitea, eta bere bistagatik".

*Mondragones*-ek dana irebazten euen, eskuz banakakuen, eskuz biñakakuen... Ez euken kontrarixorik. Ogetak orduen esan euen esku pelotak hiru garai euki zittuela: *Mondragones*-ena, Atano III.arena eta Gallastegirena.

Pelotarixe izen aurretik, okiñe izen zan.

**Labeko Koba apurtu, bariantie egitteko**

Goi Paleolito garaiko aztarnak topau zittuen koba hartan, eta Mondraueko bariantie egin aurretik, Aranzadi elkartekuek aztarnategixe bera atara egin euen bertatik. Alvaro Arrizabalaga: "Hemendik hamar edo hogei urtetara ikertzaileren batek koba aztertzea interesgarri gerta zitekeen arren, galera ez da oso handia izango".

**8. zenbakixe** 1989-01-27



Orfeoia, Aitor Biain oñatiarraren aginduetara Mariaren Lagundian egindako kontzertuan. | GOIENA

# Gospel kontzertua egingo du Orfeoiak otsailaren 1ean

## Orfeoi Gazteak eta emanaldirako propio osatutako ganbera-orkestrak ere hartuko dute parte saioan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Gurean ez da batere ohikoa gospel doinuak entzuteko aukera izatea, baina Bergarako Orfeoiak horri buelta emango dio; izan ere, gospel kontzertua antolatu du datorren zapaturako, otsailaren 1erako, 20:00etan, Udal Pilotalekuan.

Bergarako Orfeoiak, Bergarako Orfeoi Gazteak eta emanaldi horretarako osatu duten 20 bat musikariko ganbera-orkestrak hartuko dute parte. Bi zati izango ditu –egitaraua ondoko taulan– eta soinua ahalik eta egokiena izateko pilotalekua egokitu egingo dute, Gabonetako kontzertuan egiten duten moduan. Bestalde, eszenaratzea ere asko zainduko dute; janzkera, mugimenduak... gospel koruenak izango dira.

Sarrerak dagoeneko eskura daitezke 8 eurotan Lazkano oinetako-dendan eta Pikuperen bulegoan, eta egunean bertan ere erosi ahal izango dira pilotalekuko leihatilan.

**"Erronka handia"**

Bergarako Orfeoiko eta Orfeoi Gazteko kideendako "erronka handia da" halako kontzertu bat egitea, Karlos Etxanizek, orfeoiko presidenteak azaldu duenez, eta azpimarratu du "orfeoiak bere errepertorioan askotariko musika estiloak abesteko" duen joeran kokatzen dela: "Doinu klasikoez gain, euskal kantuak, zarzuela... abestu izan dugu, eta orain gospela. Zaila, baina era berean oso polita abesteko". Eta entzuteko.

### EGITARAUA

**LEHENENGO ZATIA**

**Bergarako Orfeoia**

▶ *The Storm is Pasing Over* (Mold: B.W. Baker)

▶ *Worthy To Be Praised* (B.J. Smith. Bakarlariak: Nere Ibarra / Ainara Uribesalgo)

▶ *Try Jesus* (Robert. Bakarlariak: Ainara Uribesalgo / Gorka Unamuno)

▶ *He Never Failed Me Yet* (R.Say. Bakarlaria: Ainara Uribesalgo)

Piano jotzailea: Eli Mendiaraz

Zuzendaria: Aitor Biain Bidarte

**Bergarako Orfeoi Gaztea**

▶ *Down to the river to pray* (Alisson Krauss /Mold: Nagore Sanz)

▶ *Let my people go* (Mold: Bernard Dewagtere)

▶ *Didn't my lord deliver Daniel* (Mold: Carl Haywood)

▶ *This little light of mine* (Mold: Kari Ala-Pollanen)

▶ *The gospel train* (Mold: B.C. Turner)

Piano jotzailea: Anabel Henao

Zuzendaria: Nagore Sanz

**BIGARREN ZATIA**

**Bergarako Orfeoia eta ganbera-orkestra**

*Feel The Spirit (J.Rutter):*

*Joshua Fit The Battle of Jericho*

*Steal Away*

*I got a Robe*

*Some times I feel like a motherless child*

*Ev'ry time I Feel the spirit*

*Deep River*

*When The Saints go marching in*

Bakarlariak: Nere Ibarra, Ainara Uribesalgo, Fran Martinez eta Karlos Etxaniz

Piano jotzailea: Eli Mendiaraz

Zuzendaria: Aitor Biain Bidarte

### Aratusteetako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak

Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte. Diseinuen kartelak kolore eta teknika librearekin, 40x60 zentimetroko kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira, formatu bertikalean. CD baten ere aurkeztu beharko dira. Kartelek ondorengo testua eraman beharko dute: *Aratusteak 2014, Bergara*. Irabazleak 350 euroko balioa duten bonuak eskuratuko ditu, herriko komertzio-guneetan trukatzeko. Lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira, otsailaren 3ko 13:00ak baino lehen. Epaimahaiaz gain, herritarrek bozkatzeko aukera ere izango dute otsailaren 5etik 9ra, *bergara.net* helbidean. Boto horiek %40ko balioa izango dute.

### Berriketan egitasmoan izena eman daiteke

Jardun Euskara Elkartearen Berriketan mintrapraktika programan izena emateko epea zabalik dagoela aurreratu dute euskara elkartetik. Berriketanek antolatzen dituen berba-taldeak astero ordu batez elkartzen dira euskaraz berba egiteko. Taldea autonomoa da zer egin nahi duen erabakitzeko: kafetxo bat hartu, paseoan ibili... Talde guztietan euskaraz txukun berba egiten duen pertsona bat edo bi izaten dira, eta taldeko beste bi edo hiru lagun euren euskara maila hobetu nahi dutenak. Izena emateko interesa duenak 943 76 36 61 edo 943 71 24 69 zenbakira dei dezake (Maitane) edo *jardunkultura@topagunea.com* helbidera idatzi.

**NIRE USTEZ**

JON OLIVARES



# Ikasi dezagun

Sei hilabete, 6 hilabete gordin, infernuaren garrak dastatzen, urte erdi gainbeheran, egunez egun zorigaitza bizitzen, 6 hilabetetako parentesia gure bizitzan, norberaren bizitzari garrantzia kentzen, gure maitasuna erakusteko, laguntasuna.

6 hilabete eta lau egun iraun du gaixotasunak gure bizitzaren egunerokotasunean. Parentesia itxi da? Baietz esango nuke, baina orain ez da berdina izango. Gure bizitza berhartuko dugu, bai, baina parentesi luze eta amaitu ezin hori ez dugu bela ahaztuko, ez horixe. Orain parentesi horren ondorioak irentsi behar ditugu, ez da erraza izan eta ez da erraza izango. Baina horrekin bizitzen ikasi behar dugu.

Bizitza da, bizitzaren parte da heriotza, azkeneko fasea. Hutsune handia dago gizartean arlo horretan, ez dugu heriotza onartzen. Zerbait negatiboa da heriotza? Ez da erraza horrelako egoera bat bizi izatea, ez. Baina ikasiz egiten da aurrera, eta horretan asko dugu ikasteko.

Horretarako ezinbestekoa da bizitzen ikastea, bizitzaz gozatzea, ingurukoak zenbat maite dituzun esatea, erakustea, barruko korapiloak askatzea. Ohartu gaitezen bizitzaren edertasunaz, egin dezagun negar, egin dezagun barre, egin dezagun oihu. Ez da erraza bizitzea ala ez da erraza bizitzen jakitea? Ikasiz egiten da bidea, beraz, ikasi dezagun.



Martinez de Iralako lanak oso aurreratuta daude. | SAN MARTIN HERRI ESKOLA

# Bi aste barru Martinez de Iralara joango dira ikasleak

## Lehen Hezkuntzako gurasoei datozen egunetan erakutsiko diete eraikin berritua San Martingoek

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Amaitzear daude Martinez de Irala eraikina berriztatzeko egin beharreko lanak. San Martin Agirre Herri Eskolako Haur Hezkuntzako umeak joango dira eraikin berritura, "pare bat aste barru, lanak amaitutakoan. Berogailuarendako gasa jartzea besterik ez da falta", Begoña Otsoa -Aizpurua San Martingo zuzendariaren esanetan.

2012ko abuztu bukaeran ekin zieten lanei, San Martinen zuten leku arazoei irtenbidea emateko, eta dagoeneko hasi dira eskolako materiala eraikin berritura eramaten.

Ikasturte hasiera ezkero daude Martinez de Iralan 2 urteko ikasleak, eta jangela ere martxan dago erdiko eraikineko beheko solairuan. Datozen egunetan joango dira 3, 4 eta 5 urteko umeak ere hara, eta haiendako goiko solairua egokitu dute; adin bakoitzak hiru gela izango ditu, eta, guztira, 210 ikasle batuko dira hantxe.

Zuzendariak azpimarratu duenez, datozen egunetan Haur Hezkuntzako gurasoekin harremanetan jarriko dira eraikin berria erakutsi eta antolakuntzaren gaineko argibideak emateko.

Inaugurazio festa maiatz edo ekainean egingo dute.

# Zibergara: teknologia berriek batu duten boskote gaztea

- Interneten tokikotasuna, garapena eta ezagutza zabaldu nahi dituzte taldekoek
- 'Guifi.net' eta 'MokolokoM' dira egun esku-artean dauzkaten bi proiektu garatuenak

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergara herri ekintzaile eta sortzailea dela ezin daiteke ukatu, baina egiten den lan hori Interneten ikusten da? Batzuek baietz uste badute ere, saretik buelta bat ematea besterik ez dago, Bergara eta bergararren aztarna zein txikia den jabetzeko, "kasu gehienetan erabiltzaile gisa nabigatzen dugu sarean", diote Zibergara taldeko kideek.

Zibergara iazko udan sortu zen. Elkarte izaerari ihes eginez, teknologia berrietan haratago joan nahi duten gazte batzuek sortutako taldea da, "ez dugu elkarte bat izateko beharrik, hau ekimen askeago bat bezala sortu da", adierazi du Damian Madinabeitia kideak. Mikel Azkarate-askasuak ere antzerako iritzia dauka, "askeak garen heinean, sortzen diren proiektuen arabera egiten dugu lan". Horiek, baina, ez dira Zibergaran dauden kide bakarrak, "bost bat kide batzen gara", dio Azkaratek.

Lagunartean sortutako taldeak, inguruan asko zabal daitezkeen ideia berritzaileak ipini ditu martxan, "sareko erabiltzaile soil bat izatea baino, bere parte izaten erakutsi nahi diogu jendeari".

### Sare propioa

Gazte talde honek erronkak gustuko ditu eta Katalunian asko hedatu den *guifi.net* sarea gurean zabaltzeko lehen pausotan murgilduta daude. "Auzo batzutan internet konexio eskasa dago eta *guifi.net* sare baten bidez hori ere konpondu egingo litzateke", azaldu du Madinabeitiak. Hala ere, sare propioak abantaila gehiago ekarriko lituzke. Esaterako, *guifi.net* sarean, pertsonak bezero izatetik kudeatzaile izatera pasatuko dira. Inguruan Apotzaga-Gallao auzoen kasua ezagutzen dute, "bertan sare hau martxan ei dago", aipatu du Madinabeitiak. Internet eskaintzen duten enpresa handietatik kanpo egotean sarearen malgutasuna handitu egiten da. "Jendeak zerbitzu propioak garatu ditzake", eta gainera, merkeagoa ere bada.

*MokolokoM* Zibergarak erositako zerbitzari partekatu propioa da, Euskal Herrian Blogsoviet proiektuak egiten duen erara. "Proiektu hauen helburua ez da dirua irabaztea, gure asmoa gertukotasuna eskaintzea eta norbanakoak interneten duen presentzia areagotzea da" azpimarratu du Azkaratek. Zerbitzari horretan dago mokolokom.net, Bergarako edonolako internet jarioa zentralizatzen duen webgunea.

### Jakintza zabaldu

Irekia da Zibergara definitu dezakeen hitza, bertan garatzen ari diren proiektuak herrira, ingurura zabaldu nahi dituzte. Horretarako, Jardunekin batera hacker eskola bat sortzen dabiltza. Hacker hitzak duen gerizpe ilunetik urrun, hackerra "edozein jakintza gaietan entusiasta/gogotsua den pertsona bat dela" argitu dute. Ekimen honekin, Interneten sorreraren ostean jaio direnei baliabide berriak erakutsi nahi dizkiete.

Interneten inguruan herritarrek izan ditzakeen argibide, edo proiektu bilakatu daitezkeen ideiak jaso eta eztabaidatzeko helbidea ere sortu dute. Honako hau: *kontaktua@zibergara.net*.

*MokolokoM* eta *guifi.net* dira garatzen ari diren bi proiektu. | ZIBERGARA



Zibergarako kide diren Mikel Azkarate eta Damian Madinabeitia. | IMANOL GALLEGO

## Puntako bertsolariek jarriko diote musika eta errina Libre asteburuari

Lehen mailako bertso saio hau ikusteko sarrerak 10 euroren truke Arrano, Pol-Pol eta Depor tabernetan eta kultura etxean eskuratu ahal izango dira

M.B./I.G. | BERGARA

Otsailaren 8 eta 9an egingo da Libre asteburua eta zenbait kultura ekitaldi egongo dira Gipuzkoan, tartean Bergaran. 35/02 eta 26/11 sumarioetako auzipetuek aurreko astean eman zuten egitasmo honen berri, "mobilizazioak areagotu" egin behar direlako.

Espainiako Auzitegi Nazionalean egiten ari diren epaiketen "izaera politiko eta antidemokratikoa" salatzeko asmoz antolatu dute Libre asteburua. Pixkanaka, amaitzen ari dira urrian hasitako bi epaiketak, eta aldarrikapena eta salaketa "ezinbesteko" direla azpimarratu dute auzipetuek. Bailaran ekintza asko antolatu ostean, auzia hasi zenean agindu zuten moduan, "prozesuak irauten duen bitartean ekintzak egiten jarraituko dugu". Elkarretaratzeak, libre eguna... mota guztietako ekintzak egin dituzte eta Bergarakoa ere hildo honetatik joango da.

### Bergaran bertso saioa

Otsailaren 9an, domeka, bertso saioa antolatu dute Bergarako pilotalekuan. Saio hau baina, ez da nolanahikoa izango. 18:00etatik aurrera punta-puntako bertsolarien doinu eta errimek girotuko dute Bergara. Lehen mailako bertsolari sorta arituko da pilotalekuan (Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Jon Maia eta Aitor Sarriegi). Sarrerak 10 euroren truke eskura daitezke Arrano, Pol-Pol eta Depor tabernetan, baita kultura etxean ere.



Iturriaga, Maia, Sarriegi, Lujanbio, Arzallus, Egaña, Colina eta Elortzak hartuko dute parte bertso saioan. | GOIENA

## Eguaztenetik aurrera inbasio napoleonikoak Aroztegin

I.G. | BERGARA

XIX. mendea inbasio eta guzti hasi zen. Orain, bi mende geroago, gertakari horiek gogora ekarriko dituen erakusketa antolatu da. Eguaztenean hasi eta martxoaren 2a arte, Aroztegi aretoak inbasio napoleonikoei buruzko mostra erakutsiko du.

### Erakusketa klasikoa

Forma aldetik erakusketa klasikoa da, panelak eta objektuak erakutsita. Hala ere Bergarako mostra berezia izango da. Udalarenak diren, eta beste toki batzuetan ikusi ezingo diren, hainbat objektu erakutsiko dituzte-eta. Tartean, XVIII. mendeko teleskopio bitxi bat ikusteko aukera egongo da.

# Haurren loditasunari buruzko ikerketa martxan

## Herriko hiru ikastetxeetako 177 umek hartu dute parte

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Haur loditasunari buruzko ikerketa egiten dabiltza bailaran, Debagoieneko Ospitaleak bultzatuta. Umeen loditasunak gora egin du azkenaldian eta arazo horrekin kezkatuta eta horri irtenbidea bilatu nahian, ikerketa ari dira egiten, Debagoieneko Ospitaleko pediatria zerbitzuak bultzatuta. Umeen gehiegizko pisua, elikadura-ohiturak eta jarduera fisikoa aztertzeko, Debagoieneko 1.100 eskola-umeren artean galdetegi bat banatu dute ikastetxeen laguntzarekin, eta Oñatin ere dagoeneko banatu dituzte galdetegiak hiru ikastetxeetan.

**Ikastetxeetako haurrak ardatz**

Ikerketaren lehen fasea amaitu dute; fase horretako zereginak ziren ikastetxeetan galdetegiak pasatzea eta umeen beharrezko neurketak egitea.

Oñatin, hain zuzen, 5. eta 6. mailetako 177 haurrek hartu dute parte ikerketaren lehenengo fase horretan. Haiekin hainbat parametroren neurketa egin da; altuera, pisua eta koipe portzentajea neurtu diete. Galdetegi bat ere pasatu diete, eta bertan euren elikadurari eta ariketa fisikoari buruzko ohituren gainean galdetu. Eta horrez gain, eduki horiei buruzko hitzalditxo batzuk ere egin dituzte; bide batez, umeei aholku osasungarriak ere eman dizkiete kontuan har ditzaten.

Herriko ikastetxeetan egun hauetan egin zituzten galdeketak: hilaren 13an eta 14an Elkar Hezin, hilaren 15ean eta 16an Txantxiku Ikastolan eta hilaren 17an Urgainen. Egun haietan, ikastetxeetan umeekin egon ziren probak egiten Arizmendiko ziklo hezitzaileko hainbat ikasle eta mediku bat. Bi ordu iraun zuten saioek eta "batzuei neurketa egiten zitzaien bitartean, beste batzuek galdetegiak erantzun zituzten, eta, horrez gain, elikadurari buruzko hainbat aholku eman zizkieten bertaratutakoek", azaldu digu Oskar Carrascalek, Oñatiko Kirol teknikariak.

Beharrezko datu bilketa eginda, amaiera eman diote orain ikerketaren lehenengo faseari.

**Ikerketaren emaitzak aztertzen**

Guztira, Arizmendiko ziklo hezitzaileko 36 ikasle izan dira bailarako ikastetxeetan egunotan eta orain Oñatiko datu horiek bailarako gainontzeko herrietakoekin prozesatu beharko dituzte. Arizmendiko ziklo hezitzaileko ikasketetako koordinatzaile Arantxa Hernandezek azaldu du otsailerako espero dutela datu horiek guztiak ordenagailura pasatuta izatea eta datu basea egitea. Horren ondoren, Arizmendikoek euren ondorioak aterako dituzte, baina, bitartean, Debagoieneko Ospitalekoei ere pasatuko dizkiete datuak, haiek ere ondorioak atera ditzaten. Espero dute Aste Santu ingururako ondorio horiek guztiak aterata eta aztertuta izatea. "Datuek esango digute zeren premia daukagun", adierazi du Carrascalek, eta hauxe gaineratu du: "Datuak deigarriak baldin badira, esku-hartze bat egin beharko dugu modu integralean, bai hezkuntza mailan eta baita modu zuzenean familiekin ere".

### Debagoien mailako ikerketa da

Debagoieneko herrietako umeen datuak jaso dituzte ikerketarako eta profesional talde zabala ari da ikerketa egiten. Bultzatzailea Debagoieneko Ospitaleko pediatria zerbitzua izan da, baina haiekin batera lanean dihardute beste mediku talde batek, Arizmendiko ziklo hezitzaileko 36 ikaslek, herrietako kirol teknikariek eta Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak.

### NIRE USTEZ



AINHOA NEGERUELA

## Funtzioa hastear dago

Itzali dituzte argiak eta karpa erdiko fokua piztu dute. Hasi da zirkua.

Danbor arradak entzun dira eta malabarista etorri da argitara, lotsati antzera. Hitz bat, bi susmo eta lege bat darabiltza airean biraka. Laguntzaileak bi sumario bota dizkio, bat lehenengo eta bestea gero. Malabar guztiak erori zaizkio orduan. Beraien pisuz jausi dira hitz, susmo eta lege injustuak, baina malabaristak bere ikuskizuna amaitu egin behar du. Jaso eta airean mantenduko ditu airean eusten ez badira ere. Gomazko gorputza duela dirudien bihurrikari edo kontorsionista hanka puntetan jarri eta atzerantz plegatu da, burua orpoen arteraino eraman eta muxu eman dio lurrean dagoen liburuari, *Constitución española* horitu horri. Sabaira zuzendu dute fokua. Bi akrobata ageri dira buruz behera, saguzarren tunika beltza soinean, demokraziaren kulunkan zintzilikaturik. Zelatan, erortzeko beldurrik gabe; inpunitatearen zorua biguna omen da eta. Magoa agertu da ke artean. Abokatu-karnet bat sartu du kapelu barruan, hitz magikoak esan eta bonba bat eta 150 orriko sententzia atera ditu. Ohe itxurako kaxa ekarri dute eszenatokira, boluntariorik ez dago. Magoak atzamarra luzatu eta bat seinalatu du. Publikotik atera dute. Kaxan sartu. Orduan hezitzailea etorri da bibotea orraztuz, kaxa ezpataz zeharkatzeko asmotan.

Ez dugu ziurrenik denbora luzean berriz ikusiko. Gaurkoz amaitu da zirkua. Ez du inork txalorik egin.

**"Beraien pisuz jausi dira hitz, susmo eta lege injustuak"**

### Gose eta Carles Belda ariko dira egubakoitz honetan gaztelekuan

Gure Esku Dago ekimenaren eskutik Carles Belda kataluniarra izango da jotzen aurrenekoa. Belda Nafarroan bizi da, eta soinu txikia, euskara eta katalana uztartzen ditu. Hasieran, NX taldea zen etortzekoa, baina Beldak ordezkatuko ditu. Ondoren, Gose hirukotearen txanda izango da. 22:30ean da hitzordua, eta sarrerak 5 euro balioko du.

### Bihar elkartuko dira euskarazko irakurketa taldeko kideak

Arratsaldeko zazpietan batuko dira kideak, eta, Peru Magdalena idazlearen laguntzarekin, Arantza Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* eleberri klasikoaz mintzatuko dira. Udal Liburutegitik zehaztu dutenez, ekimen irekia da eta, hain zuzen ere, liburua irakurri duen edozein herritar joan daiteke solasaldietara.

# Eztarriak berotu eta laxatzeko kantaldia izango dute euskaltegian

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Euskara, gainontzeko hizkuntzen moduan, bizirik dago. Kalean, liburuetan, zerbait erosterakoan... Horregatik, Oñatiko Udal Euskaltegian askotariko ekintzak egiten saiatzen dira. "Ikasleei euskara ikasteko beste aukera bat emateko da kontzertua", dio Roberto Altunak, Udal Euskaltegiko zuzendariak. Emanaldiaren aurretik, 18:00etan, eztarriak eta gorputzak berotzeko, txokolate beroa eskainiko dute.

Barruak berotu eta gero, Jose Mari Anduaga eta Xabier Ugarte herriko kantarien laguntzarekin hainbat abesti herrikoi kantatuko dituzte. "*Furra Furra, Xalbadorren heriotza*... zerrenda luzea bezain herrikoa prestatu dugu", aurreratu du Altunak. Inguruko abestiak, baina, ez dira entzungo diren bakarrak izango.

**Emanaldi zabala**

Udal Euskaltegiak jatorri askotariko ikasleak dituenez, kantaldia ere berezia izango da. Anduagak eta Ugartek, euskal kantuez gain, Galiziako *Cantiga de Verce*, Lluis Llachen *La estaca* eta Asturiasko *Santa Barbara bendita* ere eskainiko dituzte. Abesti horiekin batera, ikasle talde bakoitzak euskaltegian aurrez prestatutako kantu bat ere abestuko du.



Xabier Ugarte eta Jose Mari Anduaga. | EUSKALTEGIA

# Mugikortasun Foroa egingo dute eguaztenean udaletxean, 19:00etan

A.T. | OÑATI

Oñatiko mugikortasuna hobetzeko hainbat mugikortasun foro egin dituzte 2013ko azaroa ezkero herrian. Hurrengo foroa etzi, eguaztena, izango da, 19:00etan, udaletxean.

**Ekintza plana**

Eguazteneko foroan, Intra enpresak proposatutako ekintza plana aztertzen hasiko dira herritarrekin batera. Intrak egiten duen proposamenean, besteak beste, herriko mugikortasunak lau ezaugarri hauek izan beharko lituzkeela azaltzen du: zuzentasuna, jasangarria, segurua eta eraginkorra. Intrak dagoeneko egin du proposamen txostena eta hori herritarrekin eztabaidatuko dute.




JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

# Oñatiko pianistak Arrasaten

Jose de Azpiazu musika eskolako piano jole gazteek Arrasateko Amaia antzokian emanaldia eskainiko dute eguaztenean. Bertan, Hummel eta Bastien konpositoreen piezak joko dituzte. Lehen saio horren ostean, otsailaren 15ean eta 16an Andoaingo piano jaialdian ere parte hartuko dute. Bigarren kontzertu–entzunaldi hori Debagoieneko beste ikasle batzuekin batera eskainiko dute.



Merkatari elkarteko ordezkariak sarituekin, Ibarraundin. | TXOMIN MADINA

ESKORIATZA

# Margari Beitiak 1.000 axtroki irabazi ditu

Herriko merkatari elkartearen Gabonetako kanpainari esker lortu ditu

T.M.-M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Axtroki merkatarien elkarteak ekimenak antolatzen dihardu. Gabonetan kanpaina egin dute elkarteko kideek, eta astelehen arratsaldean sari banaketa egin zuten Ibarraundi museoan. Denera, 1.500 axtroki banatu zituzten; sari potoloena Margari Beitiak jaso zuen; 1.000 axtroki herriko komertzioetan gastatzeko.

Esan bezala, axtrokitan eman zituzten esandako sariak. Jakina denez, euroen baliokideak dira horiek, baina herriko komertzioetan bakarrik erabil daitezke. Bat, bost eta hamar axtrokiko billeteak atera dituzte; eta horietako bakoitzak herriko ikur esanguratsua dauka inprimatua: batekoak, Atxorrotz; bostekoak, Apotzagako hilerria; eta hamarrekoak, Axtrokiko kaikuak. Kolore ezberdinekoak ere badira billete berri horiek.

**Erabilgarri**

Sari banaketan elkarteko kide Jabi Altunak jakinarazi zuen dagoeneko erabilgarri daudela herriko dendetan. Honakoa adierazi digu harakinak: "Merkatarien elkarteko logotipoa egiteagatik emandako saria axtrokietan eman zen, eta Gabonetako kanpainarekin banatutakoak ere. Horiek erabiltzeko ordua heldu da, eta hemendik aurrera herriko dendetan gastatu ahal izango dira axtrokiak".

Esan bezala, gutxi daude oraindik zirkulazioan, baina, poliki-poliki joango dira horiek banatzen; horretarako, hainbat ekimen jarriko dituzte martxan: besteak beste, laster eskoriatzar guztiendako bono bereziak ateratzeko asmoa dute.

**Lehen deialdia maiatzean**

Horrez gain, udaleko aurtengo ordenantza fiskaletan jasotako hobariak eurotan bueltatu beharrean, axtrokien bidez emango dituzte aurten. Horren harira, bi programa atera ditu Eskoriatzako Udalak: Hain justu, garapen soziala sustatzea helburu du batek; eta garapen jasangarria bultzatzea, besteak. Urtean zehar hiru laguntzen deialdi egingo ditu: maiatzean izango da lehena; irailean, bigarrena; eta azaroan, azkena.

Axtroki elkartekoek uste dute eskoriatzarren artean harrera ona izango duela moneta lokal berriaren bueltan gertatutako ekimenak.

ESKORIATZA

# Gertu dute bigarren eskuko mozorroen azoka

Bestalde, Jaione Tudelak edertasunari buruzko aholkuak emango ditu otsailaren 5ean

M.B. | ESKORIATZA

Otsaila ere ekintzaz josita dator. Esaterako, otsailaren 7an, egubakoitza, bigarren eskuko mozorroen azoka egingo dute Eskoriatzan, eta dagoeneko kultura etxera eroan daitezke etxean gordeta dauzkagun mozorro horiek. Gaurtik azoka egunera arte jasoko dituzte, eta egunean bertan, batutako guztiak jarriko dituzte salgai. Azokaz gain, haurrendako torrada lehiaketa, aurpegiak margotzeko tailerra eta inauteri-dantza ere izango dira egun berean.

Bestalde, otsailaren 5ean, edertasunari buruzko aholku interesgarriak eskainiko ditu Jaione Tudelak. Amuska emakumeen elkarteak antolatutako ikastaroa debalde da, eta, 17:30ean hasiko da kultura etxean. Gazteleraz izango da saioa.

Aurretik, eguenean, urtarrilak 30, Maite Franco ipuin kontalariak herriko liburutegia bisitatuko du, 18:00etan.

NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ



## Etxean nago

Orain dela bost urte eta lau hilabete heldu naiz Aretxabaletara. Negua zen. Dena berria eta arraroa zen: usainak, koloreak, aurpegiak, arropa, kafea… Zerua ere desberdina zen. Eguzkia ez zen agertu lehenengo hilabetean. Triste nengoen. Udaberria heldu zen, eta berarekin batera, loreak, koloreak, eguzkia. Herria ere aldatu zen; haren erritmoa, arropak, jendearen ibiltzeko modua, aurpegietan irribarreak. Aldaketa handia eta polita, harrituta geratu nintzen. Uda etorri zenean ahaztuta neukan negua. Udazkena heldu zen, eta ze sorpresa! Ez nituen espero halako koloreak! Zuhaitz hostoak gorriak, horiak! Eta negua berriz?!

Orain arte, urtero Mexikora joateko aukera izan dut. Urte batetik bestera nire baitan aldaketak nabaritzen ditut. Hasieran, ia-ia itzuli orduko nenbilen pentsatzen noiz joango nintzen berriro hara. Aurten, bezperan egin nuen motxila; are gehiago, nire familiakoen artean nengoenean, hemengo lagunak eta familia etortzen zitzaizkidan burura (edo bihotzera?).

Azkeneko egunetan tristura eta alaitasuna borrokan nituen barruan. Aireportutan negarrez egon nintzen. Azkenean, etxera sartutakoan, konturatu nintzen: "Hemen nau eta etxean nau!"

Herri honetan nire lekua topatu dut, hemengo familiari eta lagunei esker.

**"Herria ere aldatu egin zen; erritmoa, irribarreak..."**

ARETXABALETA

# Eskoriatzan dago Aratusteetarako muntaia handiak egiteko lokala

Torrebaso pasealekuko G pabilioian dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hilabete pasatxo geratzen da Aratusteetarako baina herriko koadrilak hasita daude lanean. Eta lanerako lokalak behar. Aurten muntaia handiak gertatzeko lokala Eskoriatzako Torrebaso pasealekuan dago (Almen azpian), G pabilioian. Kontu txikietarako, ostera, iaz legez Mitarte plazan dagoena erabiliko dute.

Lokalon erabilera arauak ere zehaztu ditu Udalak, eta aurten fidantza jarriko dute izena ematerakoan, 20 euro –giltzak bueltatzerakoan itzultzeko–. Koadrila bakoitzak arduradun bat izango du, eta harena izango da taldekideen erantzukizuna. Arduradun horri emango diote giltza, eta ezingo da kopiarik egin. Arduradunak bere datuen berri emango du –ENA eta telefonoa– eta dokumentua sinatu. Adin txikikoen ardura nagusi batek izango du, hortaz, lokala erabiltzen hasi aurretik datuak eta telefonoa eman beharko ditu, eta dokumentua sinatu. Gainera, gurasoak jakinaren gainean egongo dira. Adin txikikook umeak badira, arduradunak, lokalean bertan egon beharko du.

Lanerako tresnak eta materiala bakoitzak berea eroango du. Eguna bukatutakoan garbi eta txukun utziko du ingurua talde bakoitzak, eta azkenak argia itzali eta atea itxiko du. 21:00etan lokala itxi egingo da, eta gauetan ezingo da erabili.

Martxoaren 11 baino lehen hustuko da lokala Udalak utzitako edukiontziak erabilita; eta arratsalde horretan talde bakoitzeko arduraduna etorriko da azken garbiketa egitera eta giltzak bueltatzera. Lokalean istripuren bat gertatuz gero kaltetua arduraduna izango dela diote arauek.

ARETXABALETA

## 2014ko udal aurrekontua eztabaidatuko dute udalbatzako kideek gaurko osoko bilkuran

Ohiko osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzak gaur, astelehena (18:00), eta gai bakarra dute eztabaidatzeko: 2014ko aurrekontua. Horrekin batera galderak egiteko tartea ere izango da. Eta otsailaren 3an ezohiko osoko bilkura egingo dute. Hiru mozio izango dituzte eztabaidatzeko orduan, beste gai batzuekin batera: Bilduk aurkeztutako bi, emakumeen eskubideen gainekoa bata eta atxiloketen gainekoa bestea; eta EAJk aurkeztutakoa, hondakinen gaikako bilketa sistemaren gainekoa.

ARETXABALETA

## Jar Gaitezen ekimeneko ondorioak ikusgai daude Arkupeko erakusketa aretoan egubakoitza arte

Aretxabaletaren diagnosia egiteko asmoarekin abian jarritako Jar Gaitezen ekimenean egindako analisiak eta aurrera begirako erronkak ikusgai daude Arkupeko erakusketa aretoan. *Aretxabaleta argazkitan* lehiaketara aurkeztutako lanekin osatu dute erakusketa hori. Hilabetea bukatu bitartean izango da ikusgai, eta herritarrek ekarpen gehiago egiteko aukera daukate bertan. Baita argazkirik gustukoena bozkatzeko ere; parte hartzen dutenen artean zozketa egingo dute.



Aramaixo taldeko jokalariak kiroldegian, azken entrenamendua hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

# Aramaixo, maila berrira egokitu ostean areto futbolaz gozatzen ari den taldea

Hasierako jipoiak gaindituta, burua altxatzen hasi dira aramaioarrak; bestalde, uste dute kiroldegiko instalazioek berrikuntza behar dutela

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

2013-2014 denboraldiak maila aldaketa ekarri areto futboleko Aramaixo taldearendako. Iaz baino bi maila gorago jokatzen dute –Arabako onenen aurka– eta, ulertzekoa denez, igarri dute aldea. Lehen partiduetan jipoi galantak jaso zituzten, baina altxatu dute burua: "Gorantz goaz. Hasieran asko kosta zitzaion taldeari dinamika onean sartzea, baina orain itxura ona ari da hartzen", adierazi du taldeko koordinatzaile Andoni Elejaldek. Jokalari batzuek taldea utzi dute–Jokin Balantzategi, esaterako, orain gutxi joan da Kolonbia aldera– eta aurpegi berri batzuk ere badaude, aramaioarrak eta arrasatearrak.

**Maila berrira egokitzen**

Maila berria "zorrotza" dela onartu arren, egokituko direla uste du Elejaldek: "Helduko diogu. Ez dut uste maila mantentzeko arazorik izango dugunik eta gure esperantza da goiko taldetxora batzea. Ea lortzen dugun". Partiduetan erakusten den mailak entrenatzen den moduarekin zerikusi zuzena duela sinestuta, entrenamenduen dinamika "ona" dela dio arduradunak: "Estrategia jokaldi berriak astiro sartzen joan gara eta esango nuke ondo ari garela lanean, oraingoz".

ESANAK

**"Gure esperantza da sailkapeneko goiko taldetxora batzea"**

**"Berrikuntza behar du kiroldegiak, nahiko utzita dago"**

ANDONI ELEJALDE | KOORDINATZAILEA

**Instalazioak berritzeko beharra**

Kiroldegiaren egoeraren gainean galdetuta, aldaketa batzuk beharrezkoak direla uste du Elejaldek. Joan den astean konpondu zituzten apurtutako leihoak –haizea eta euria eginez gero arriskua zegoen partiduren bat bertan behera geratzeko–, baina horrez gain badago zer hobetu, Elejaldek dioenez: "Inbertsio bat egin beharko litzatekeela esango nuke. Zahartuta geratu da, instalazioek berrikuntza bat behar dute. Hamar urte darama kiroldegiak nahiko utzita. Era berean, materialik ere ez dago apenas; duela hamar urte erositako baloiekin jarraitzen dugu".

Horrez gain, itoginak ohikoak dira eta neguan hotza da protagonista: "Gasteizen jokatzen dugunean edadeko jende askotxo egoten da, eta horretan ziur laguntzen duela kiroldegi barruko epeltasunak. Etxeko partiduetan jende gaztea egoten da, baina adineko jenderik ez. Egiten duen hotza egingo ez balu, etorriko lirateke akaso...", uste du Elejaldek.

ANTZUOLA

# Kontsumo taldeak hainbat aurrerapauso eman ditu herrian

Saskiola izena izango du taldeak eta 18 familia daude interesatuta proiektu horretan

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Abenduan lehen bilera egin ostean, urte berriarekin batera hainbat pauso eman dira herrian sortzekoa zen kontsumo talde berrian. Joan den astean egindako azken bileran, izena jarri zioten taldeari eta jarraitu beharreko hainbat irizpide zehaztu zituzten.

Oraingoz, 18 familiak eman dute izena hiru hilabetean proba egiteko; horren ondoren, proiektuan segitu edo ez erabakiko dute. Gehienez, 20 familiak parte hartu ahal izango dute.

Otarreen prezioa, noiz hasi eta beste hainbat kontu hurrengo bileran zehaztuko dituztela jakinarazi dute kontsumo talde berritik. Hala ere, Lapatza baserria izango da, seguruenik, familia horien otarreak barazkiz hornitzen arituko dena, baina horrek ez du esan nahi beste ekoizle batzuekin kontaktuan jartzerik izango ez denik; izan ere, "Antzuolako beste baserritar batzuekin ere kontaktatzen ari gara bestelako produktuak, arrautzak, ogia, fruituak... eskaintzeko interesa duten edo ez jakiteko. Taldean, barazkiez gain, bestelako produktuak erosteko nahia adierazi dute", gaineratu du Gotzon Madinak, Saskiolako idazkariak.

Ardurei dagokienez, Madina idazkaria izango da, Aitziber Goñi zerrenden arduraduna eta Mari Karmen Iturbe diruzaina.

ELGETA

# Txakur kakak botatzeko zaborrontziak ipini ditu Udalak bost gunetan

Txakurrak egindako kaka batzea jabearen ardura dela gogorazten dute udaletxetik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Udalak kokapen berria eman die herrian zeuden kaleko zaborrontziei. Helburua da herritarrek kalean ere hondakinak sailkatzea. Hala, aurretik erabiltzen ziren zaborrontziak erretiratu, bakoitzari hondakin frakzio mota bat egokitu eta berriz ipini dituzte kalean erabilgarri.

Horrekin batera egokitzapenak berrikuntza nabarmena ekarri du: propio txakur kakak botatzeko zaborrontziak ipini ditu Udalak. Bost tokitan daude ipinita: Torrealdean, Domingo Iturbe kalean, San Roke ostean, Pagatza industrialdean eta Berraondokoa industrialdean, hain zuzen ere.

Udaletxetik gogoratu dute txakurraren kakak jasotzeko ardura jabearena dela: "Gogoratu gura dugu baita ere txakur kakak beste guneetan ere bota daitezkeela, errefuxaren ontzira", adierazi dute.

**Aspaldiko auzia**

Badira urte batzuk gaia mahai gainean dela. 2011ko uztailean gutun bana bidali zien Udalak txakur jabeei animaliak kalean egindako gorotzak jaso egin behar direla gogorarazteko. 2012ko maiatzean egoera "jasanezina" zela esan zuen alkateak. Txakur jabeei euren arduren berri eman, eta sentsibilizazio lana egiten jarraitu beharra zegoela azpimarratu zuen.



Txakur kakendako Pagatza industrialdean ipinitako zaborrontzia. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

# Bake epaile kargua berritu beharra dago

Iragarkia argitaratu ostean, 15 laneguneko epean aurkeztu behar dira eskaintzak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Legeak agintzen duen moduan, lau urtean behin bake epaile kargua berritu egin beharra dago. Bada hori egitea tokatzen da orain Leintz Gatzagan. Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratuko dute deialdia. Eta behin hori eginda, interesa duenak 15 laneguneko epea izango du bere burua aurkezteko.

Udaletxean egin beharko du hori, bertan izango ditu-eta eskaera egiteko bete beharreko instantziak.

**Baldintzak**

Interesa duen edozein aurkez daiteke bake epaile izateko kargura. Hori bai, zenbait baldintza bete beharko dituela hartu behar da kontuan. Adibidez, 18 urtetik gorakoa izan beharko du eta zenbait lanbidetan ezin izango du jardun. Hain justu ere, ezin izango da izan abokatu, prokuradore, politikari, sindikalista eta aholkularitza juridiko. Hortik aparte, euskaraz jakin beharko du pertsona horrek, eta ezin izango du ezgaitasun fisikorik edo psikikorik izan.

**Baloratuko direnak**

Baldintza horiez aparte, zenbait ezaugarri baloratu egingo ditu Udalak bake epailea aukeratzeko orduan. Adibidez, elkarrizketa bidez, kargurako pertsona horrek duen egokitasuna. Eta besteak beste, ikasketei dagokienez, puntu gehien Zuzenbide ikasketak dituen hautagaiak eskuratuko ditu.

Azken lau urteotan Jose Inazio Beloki izan da Leintz Gatzagako bake epaile.

# Goiena Klubeko urtarrileko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**




EROSKI

## Lenovo tableta

**Arrasateko Eroski Hipermerkatuak emandako Lenovo ideatab A2107A tableta**
Parte hartzeko sariaren izena:
Lenovo




ARRIKRUTZ oñatiko kobak

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz




argia

**3 liburu sorta.**
**Freexkue, Mantxut eta Mantxut, Mantxut? liburuak**
Parte hartzeko sariaren izena:
Liburuak




argia

**2 joko**
**Argiako Bizi Birzi jokoa**
Parte hartzeko sariaren izena:
Bizibirzi

**PARTE HARTZEKO:**
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** kluba@goiena.com
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## UDA izan zen lehenengoa jotzen, eta merezimenduz irabazi zuen atzoko derbia

- Aitor Perezek eta Julen Zaitegik egin zituzten golak
- Aloña Mendi ez zen fin ibili baloiarekin, nahi eta ezin



Jokin Badillo Aretxabaletako erdilaria baloia loratzen, Julen Arriaran (UDA) eta Unai Bikuñ

**EMAITZA**

ALOÑA MENDI

**0-2**

ARETXABALETA

**FITXA TEKNIKOA**

**Aloña Mendi:** Agirre, Olalde, Ruiz (Moreno, 69. min), J. Irizar, Garmendia, Palacios, Bikuña, G. Irizar (Juaristi, 76. min), Ugarte, Zelaia, Markinez, Izena, Izena, Izena, Izena, Izena, Iena, Izena, Izena, Izena, Izena.

**Aretxabaleta:** Castellanos, Gorosabel, Amutxastegi, Arriaran (Justel, 79.min), Etxabe, Igartua, Rodriguez (Mar, 49. min), Badillo, Zaitegi (Arizmendiarrieta, 74.min), Sanchez (Meabe, 85.min), Perez (Lopez, 54.min).

**Bestelakoak:** Oñatiko zaletuez gain, Aretxabaletako hainbat jarraitzaile.

**JOKIN BEREZIARTUA** | OÑATI

Aloña Mendi eta Aretxabaletaren arteko derbia lehenengoz jo zuenak eraman zuen. Aretxabaletarrak aurreratu ziren eta ederto jakin zuten aldeko markagailuarekin jokatzen. Gainera, oñatiarrek ez zuten eguna izan atzo eta beraz, UDA irabazle justua izan zela esan daiteke.

Lehen zatian ez zen ezer aipagarrik gertatu, ikuslea aspertzeko modukoak izan ziren lehen 45 minutuak: jokaldi loturik ez eta goiko baloiak nagusi. Baloiak ez zuen jaberik izan, baina UDAk izan zuen presentzia handiagoa, Aloña Mendik baino grina handiagoa erakutsi zuen partiduaren bila joateko.

Lehen zatia amaitzear zela, 45. minutuan, desorekatu zen balantza; korner jaurtiketa baten bigarren jokaldian penalti zalantzagarria adierazi zuen epaileak. Asier Ugarte oñatiarrak Aitor Perez aretxabaletarrari falta egin ziola ikusi zuen epaileak, jokalari zein ikusle oñatiarren harridurarako. Perezek berak sartu zuen penaltia, atezaina maisuki engainatuz (0-1).

### Bigarren zatia, irekiagoa

Bigarren zatia oso bestelakoa izan zen. Irekiagoa, ikuslearendako politagoa. Aloña Mendik baloia behetik jokatzeko erabaki irmoa hartu zuen –Andoni Azkargorta entrenatzaileak hala aginduta–, UDAk goiko baloietan lehen zatian erakutsi zuen nagusitasuna apurtzeko asmoz.

Hasieran zertxobait estutu zuten oñatiarrek; esaterako, ezker hegaletik egindako jokaldi eder bati esker zutoinera bidali zuten baloia. Aukera garbi horren ostean, bazirudien Aloña Mendik derbia konplikatu ziola UDAri, baina Gorka Valleren mutilak ez ziren kikildu.

Bestalde, oñatiarrek behetik jokatzen saiatu bai, baina ez ziren batere fin ibili. Ez zuten asmatu baloiarekin. UDAk, gainera, goian presionatu zuen eta oñatiarren jokoa ia uneoro geratuz.

### Aloña Mendik erreakziorik ez

Baloia jokatuta ateratzeko arazoen isla izan zen partiduko bigarren gola. Defentsan akats larri bat egin zuten eta area barruan UDAko aurrelari Julen Zaitegi arrasatearrari heldu zitzaion baloia. Zaitegik ez zuen barkatu, patxada osoarekin sareratu zuen baloia.

Bigarren gol horrek oñatiarrak errematatu zituen, ez zuten erreakziorako gaitasunik erakutsi. Tarteka, baloiarekin zer egin ez zekitela ere ikusi zitzaien oñatiarrei. Are gehiago, azken minutuetan 0-3koa gertuago egon zen 1-2koa baino; Iker Sanchezek eta Gillen Mar-ek aukera eder bana izan zuten markagailua puzteko, baina ez zuten asmatu. Zelaian ikusitakoarekin, garaile justua izan zen UDA.



UDAko aurrelari Julen Zaitegi baloia buruz bideratzen. | JOSETXO ARANTZABAL

**ARITZ GARMENDIA** | ALOÑA MENDIKO JOKALARIA

### "Asmatzen duenak irabazten ditu derbiak; oraingoan eurei tokatu zaie"



J.B.

Derbia galdu arren, gustura erantzun zizkien gure galderei Aritz Garmendia erdilari oñatiarrak.

**Nola ikusi duzu partidua zelai barrutik?**

Gaur [atzo] ez dugu asmatu, zortea ez dugu alde izan. Lehen zatian ez dugu baloia nahi beste izan, goiko jokoa izan da nagusi. Atsedenaldian aldagelan adostu dugu baloia lurrera jaistea, UDA eroso zegoen–eta goiko jokaldietan. Bigarren zatian baloia izan dugu, baina ez dugu aukera garbirik egitea lortu. Halakoa da futbola.

**Lehen zatia amaitzear zela zuen protesta piztu duen penaltia adierazi du epaileak. Zerbait esaterik nahi duzu?**

Batzuetan zure aldeko erabakiak hartzen ditu epaileak eta beste batzuetan alderantziz izaten da. Horren aurka ezin da ezer egin.

**Baloia behetik jokatzen hasi eta defentsan egindako akats batetik etorri da euren bigarrena...**

Bagenekien arriskatu egingo genuela eta galtzen irten gara. Gu gurea egiten saiatu gara, partiduari beste era batera heltzen.

**Nola ikusi duzu Aretxabaleta?**

Ondo. UDAk normalean partidu gogorrak planteatzen dizkigu Azkoagainen. Aurrean oso jokalari onak ditu eta aldea horrek markatzen du askotan. Hala ere, ez dugu gehiegi sufritu, eta guk ere ez diegu min handirik egin. Derbiak halakoak izaten dira, asmatzen duenak eramaten ditu. Oraingoan eurei tokatu zaie; zoriontzea besterik ez zait geratzen.

24 | SASKIBALOIA | Garaipen garrantzitsua MUk



a (Aloña Mendi) atzean dituela. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

# Liderraren aurka puntu baliotsua lortu zuen Bergarak, intentsitate handiko partiduan

Lehia, lana eta kontaktu fisikoa izan ziren protagonista; berdinketa, "justua"

**EMAITZA**

BERGARA
**2-2**
BERIO



Eloy Crespo Bergarako kapitaina baloia lortzeko lehian. | IMANOL SORIANO

J.B. | BERGARA

Euriaren ondorioz Agorrosin futbol zelaiaren egoera kaskarrak baldintzatutako lehian, berdinketa ona lortu zuen Bergarak Berioren aurka. Lider moduan heldu ziren donostiarrak, baina ondo izerditu behar izan zuten Agorrosindik esku hutsik ez joateko. Zelaiaren egoerak ez zuen aukerarik eman jokaldi lotuak egiteko eta beraz, kontaktu fisikoa, lehia eta lana izan ziren protagonista. Partidua "oso polita" izan zen, Bergarako entrenatzaile Aitor Arrateren arabera: "Futbola ez da bakarrik Bartzelonak egiten duena. Kontaktu fisiko handiko lehia izan da, intentsitatez jositakoa. Ederra".

**Atsedenaldira irabazten (2-1)**

Lehen zatiko 15. minutuan 0-1 aurreratu ziren kanpokoak baina hamar minutura Eneko Ibarluzeak banakoa lortu zuen; sakoneko pase bat ederto aprobetxatu zuen jokalari bergararrak gola egiteko. Gero, 2-1 jarri ziren aurretik mahoneroak, Asier Beitiak korner jaurtiketa baten egindako golari esker. Bigarren zatia ere oso parekatua hasi zen, eta Berio aurten erakusten ari den ate aurreko eraginkortasunaz baliatu zen berdinketa lortzeko.

Hortik aurrera edozeinek irabazi ahal izan zuen. Epaileak gol bat baliogabetu zion Bergarari jokoz kanpoko bategatik –bergararren arabera ez zen halakorik egon– eta Beriok aukera garbiak izan zituen, tartean langara bidalitako jaurtiketa bat.

Amaieran, berdinketa "justua" izan zela esan zigun Arratek: "Partidua nola joan den ikusita, berdinketa emaitza justua izan dela esango nuke. Liderraren aurka puntuak ateratzea zaila izaten da, gaur lortu dugu. Hori bai, puntuagatik baino futbol zelaian erakutsitakoagatik nago pozik. Sentsazio onekin amaitu dugu".

**ANDONI AMUTXASTEGI** | ARETXABALETAKO JOKALARIA

## "Pozik egoteko modukoa da derbi bat larregi sufritu barik irabaztea"



J.B.

Hiru puntuak lortu izanagatik eta bolada onari eutsi diotelako "oso pozik" zegoen UDAko atzelari Andoni Amutxastegi partiduaren amaieran.

**Pozik emaitzarekin, ezta?**
Oso pozik. Derbi bat irabaztea, dinamika on baten sartuta gentozela eta larregi sufritu barik 0-2 gailentzea pozik egoteko modukoa da. Badakigu nolakoak izaten diren halako lehiak: partidu itxiak, baloi zuzenak, bigarren jokaldiak... Intentsitate handiarekin jokatu dugu, hasieratik irten garenok zein bigarren zatian sartu direnak. Gainera, atsedenaldi aurretik sartu dugun golak asko lagundu digu. Izan ere, bigarren zatian zabaldu egin behar izan dira eta horrek bigarrena egiteko aukera eman digu.

**Penaltiaren gainean zure iritzia eman gura duzu?**
Nik ez dakit adieraziko nuen. Agian izan da, baina ez da izan akaso adierazten diren horietakoa. Ez dut ongi ikusi baina iruditzen zait defentsa berandu heldu dela. Argi dagoena da ederto etorri zaigula.

**Behetik gora dator UDA.**
Bai. Oso gaizki hasi ginen; partidu parekatuak jokatu arren gehienak galdu egiten genituen. Atzean zalantza askorekin ibiltzen ginen. Entrenatzaile aldaketari eta jokalariok izan dugun txip aldaketari esker altxatu dugu burua. Orain, gogor jarraitu behar dugu lanean, dinamika onari eusteko.

## Reocin taldea jaun eta jabe Mojategin (0-8)

Emakumezkoen 2. mailako Mondrako neskek jipoia jaso zuten atzo (0-8). Reocin taldea jaun eta jabe izan zen, eta Fernando Urangaren neskek ez zuten aukerarik izan. Partidu guztiak galduta, azkenak dira sailkapenean.



JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

### Jokalari bat gutxiagorekin ere, merezita irabazi zuen Antzuolak Azpeitian (0-1)

Antzuolak hiru puntu garrantzitsu eskuratu zituen atzo Lagun Onak taldearen aurka. Gainera, bigarren zatiko 15. minutuan jokalari bat gutxiagorekin geratu ziren Juanina Garairen mutilak eta, hala ere, gola egitea eta partidua irabaztea lortu zuten. Ander Aranak sartu zuen antzuolarren gola.

ERREGIONAL PREFERENTEA

### Mondrak aise hartu zuen mendean Lazkao zapatuan (1-6)

Mondrak aise menderatu zuten Lazkao zapatuan. 0-1ekoarekin penalti bat huts egin zuten lazkaotarrek eta hor egon zen gakoa akaso. Izan ere, berehala heldu zen arrasatearren gol festa: Jon Ander Ormaetxea (3), Iker Lopez, Iker Pavon eta Iñaki Ormaetxea izan ziren golegileak.

GAZTEEN EUSKADIKO LIGA

### Aretxabaletak azken postuan jarraitzen du etxean berdindu ostean

Gazte mailako Euskadiko Ligako UDA taldeak berdindu egin zuen atzo Baskoniaren aurka (1-1). Puntu bat lortu arren burua ezin altxatu jarraitzen dute, sailkapeneko azken postuan. Jaitsiera postuetatik irtetea gero eta zailago dute aretxabaletarrek, bederatzi puntutara.

SASKIBALOIA

# Arrasatekoek gehien behar zutenean esnatu zen Iturripe

## Hirugarren sailkatuaren aurka garaipen garrantzitsua lortu zuten

**EMAITZA**

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**88-84**
BIOK ZERBITZUAK

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE

Kostata, baina garaipen batekin hasi dute ligako bigarren zatia MUkoek.

Hirugarren sailkatuaren aurka jokatu zuten etxean zapatuan, eta Gorka Kintanak aitortu zuen bezala, ordiziarrak denbora pasa ez zirela etorriko argi zuten. Partidu gogorra eta bizia gozatu zuten Iturripen saskibaloi zaleek; hala ere, tarteka nahasia izan zen.

**Defentsan kaxkar**

Josu Larreategiren mutilak ez ziren oso fin ibili defentsa lanetan zapatu arratsaldean; hala ere, aurrean izandako trebetasunak garaipena etxean utzi zuen. Partidua nahiko parekatuta hasi zen, baina lehenengo laurdena atzetik amaitu zuten, 21 eta 25. Etxekoek falta asko egin zituzten eta ordiziarrek ez zituzten jaurtiketa libreak alferrik galdu. Momentu batean ordiziarrek markagailuan abantaila hartu behar zutela zirudien arren, Kintanaren hirukoekin eutsi zion taldeak.

Bigarren laurdenak bide beretik jarraitu zuen arren, bi taldeen jokoa bizitu egin zen. Atsedenaldira berdinketarekin joan ziren, 41 eta 41.

**Garaipena eskuetan**

Hirugarren laurdenean, garaipena eskuetan izan zuten arrasatekoek. Zeziaga, Arejolaleiba eta Barberoren jokaldi onak aprobetxatuz, 9-0eko partziala lortu zuten, markagailuan hamaika puntuko aldea lortuz. Hala ere, laurdeneko azken bi minutuetan, aurrez egindako lana pikutara bidali zuten. Kontzentrazio faltak eragindako hutsegiteen ondorioz, ordiziarrak norgehiagokan sartu ziren. Gainera, laurdena amaitu baino hogei segundo lehenago, kirolez kontrakoa adierazi zieten etxekoei eta 65 eta 62 amaitu zen laurdena.

**Iturriperen garra**

Azken laurdenean atzetik jarri ziren etxekoak, eta Iturripe piztu egin zen. Jarraitzaileen animoekin lagunduta, azken baloi jabetzak ondo jokatu zituzten, eta garaipena etxean geratu zen. Kintanaren arabera, garaipen garrantzitsua izan zen; duela bi asteburu lehenengo sailkatuaren aurka galdu ondoren, taldeari konfiantza emango diolako. Jardunaldi honen ondoren, bi partiduko aldea dute Biok Zerbitzuak talde oriotarrarekin.


Mikel Arejolaleiba ordiziarren defentsa apurtzen. | IMANOL SORIANO

**Kantxaren egoera txarra**

Iturripeko jokalekua egoera txarrean egon zen zapatuko partiduan, itoginen ondorioz. Ointxe klubeko kideen arabera, eguerdian egoera ikusita toallekin zorua lehortzen saiatu ziren. Hogei bat toalla jarri zituzten arren, norgehiagoka osoan zehar hainbat jokalarik irrist egin eta lurrean amaitu zuten. Gutxienez, inork ez zuen minik hartu.

ESKUBALOIA

# Partidua gol bateko aldearekin eta beste jokalari bat galdu zituzten bergarakoek

## Hasieran lesionatu zen Manuel hegalekoa eta taldea galduta ibili zen

**JAGOBA DOMINGO** | BERGARA

Gol bategatik –27 eta 28– galdu zuten zapatuko norgehiagoka Josetxo Muniategiren mutilek.

Corazonistas gasteiztarren aurkako partidua ondo hasi zuten bergararrek; hala ere, hamargarren minutuan norgehiagoka baldintzatu zuen jokaldia heldu zen. Inazio Manuelek, ezkerreko hegalekoak, orkatila bihurritu zuen, eta Arrasateko ospitalera eraman zuten. Momentu horretatik aurrera, taldeak ez zuen berdin jokatu, eta hainbat momentutan noraezean ibili zen.

Lehenengo zatian markagailuan parekatuta ibili ziren, baina bigarren zatia gogorragoa egin zitzaien Muniategiren jokalariei. Taldeak orekarik gabe jokatu zuen, eta gasteiztarrek Mikel Plazaola hegalekoari egin zioten defentsa mistoari ez zioten aurre egiteko biderik aurkitu.

Hala ere, azken segundora arte borrokatu zuten, eta berdintzeko eta aurretik jartzeko aukerak izan zituzten. Muniategiren arabera, azkenengo minutuetako penalti batek eta kontraeraso batek eman zien garaipena Corazonistas taldekoei.


Bergarakoak defentsa lanetan. | IMANOL SORIANO

**Beste baja bat**

Aurtengo denboraldian, bergararrak arazo dezente izaten dabiltza lesioak direla eta, eta Manuelena nahikoa ez, eta Gorka Uribek ere min hartu zuen atzamar txikian. Partiduan lekutik atera zitzaion eta, jokatzen jarraitu zuen arren, amaitu ostean ospitalera joan behar izan zuen.

Hala ere, hurrengo norgehiagoka heltzeko zain daude. Zapatuan egin zituzten akatsak behin ikusita, Hondarribiaren aurka, bigarren sailkatuen aurka, jokatuko dute datorren astean.


SASKIBALOIA
IMANOL SORIANO

# Azken baloira arte borrokatzen

La Salle donostiarren aurkako partidua 72 eta 76 galdu zuten Oñatikoek. Hala ere, Zuhaitz Gonzalez entrenatzaileak pozik amaitu zuen norgehiagoka, taldea 40 minutuetan zehar gogor aritu zelako. Partidu osoan aurretik joan arren, La Sallekoek ez zuten lehia apurtu, eta azken minutuan etxekoek irabazteko aukera izan zuten. Azken baloi jabetzan, baina, erasoko falta egin zuten oñatiarrek.

ESKUBALOIA

# Azken jokaldian berdinketa lortzeko aukera izan zuten

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE

Norgehiagoka gogorra eta serioa jokatu arren, 36 eta 34 galdu zuen Ford Mugarrik zapatuan Zaragozan.

Dominicos Zaragoza sailkapeneko bigarren postuan dago, eta talde oso indartsua eta kalitate handikoa dela argi utzi du azken hilabeteetan. Bada, horri guztiari aurre egin eta ia-ia garaipena ekarri zuten etxera Pablo Gartziaren mutilek. Izan ere, azkenengo unean berdintzeko jaurtiketa izan zuten, baina zoriak beste aldera begiratu zuen eta baloiak ateko bi zutabeetan jo ondoren, Zaragozakoek kontraerasoan sartu zuten azken gola.

**Partidu ikusgarria**

Etxera punturik ekartzea lortu ez bazuten ere, egindako partiduarekin pozik amaitu zuten Ford Mugarriko jokalariek. Norgehiagoka osoan zehar taldea oso lehiakorra izan zen, defentsan lan gogorra eginez eta aurrean jokaldiak ondo bukatuz.

Ikusleentzako partidu polita izan zela esan zuen Gartziak, joko azkarrarekin eta markagailuan bi taldeentzako abantailekin. Hala ere, 60 minutuak pasatu ondoren, azken jokaldiko zoriak eta Zaragozakoen eskarmentuak etxean utzi zituen puntuak.

Asteburu honetan Santoñaren aurka jokatuko dute Iturripen.


ESKUBALOIA
IMANOL SORIANO

# Atea txiki egin zitzaien oñatiarrei

18 eta 31 galdu zuten Aloña Mendikoek Usurbilen aurka. Partidu hasieratik usurbildarrak izan ziren nagusi; atsedenaldira 5 eta 17 joan ziren. Defentsa lanetan ez ziren oso fin ibili etxekoak eta aurrean, heldu baziren ere, baloiak ez zuen atean sartu nahi izan. Bigarren zatian hobeto ibili baziren ere, ezin izan zuten askorik egin.

LAGUN ARTEKOA

# Mikel Goñik jendea eraman du berriro Oñatiko frontoira

- Hiru pilotari debagoiendarrekin jokatu zuen, MUko ikasleek antolatuta
- Pilotari abiadura ematen eta tantoa amaitzen aldea erakutsi zuen

JULEN IRIONDO | OÑATI

Oñatin izan zen zapatuan Mikel Goñi, Enpresagintza fakultateko LEINN graduko ikasle talde batek antolatutako partidua jokatzen. Partidu berezia zen, Goñi tartean egoteagatik bai, baina baita bere bikote-lagun eta kontrario ibili zirenak bailarako pilotariak zirelako, eta haiek nafarrarekin nola moldatuko ote ziren jakin nahiak jende kopuru polita eraman zuen Zubikoako frontoira.

Goñik, Beñat Iñarra bergararra izan zuen lagun atzeko koadroetan, eta aurrez aurre izan zituzten Sergio Uriarte aretxabaletarra –Oñatin ume eta gaztetxoekin lanean ari dena– eta Andoni Azkarate oñatiarra. Denetarikoak izan zituen partiduak, tanto politak bai eta hutsak ere bai. Tantoak bukatzen eta pilotari abiadura ematen oraindik dohain onak badituela erakutsi zuen Goñik, eta gainerako pilotariak saiatu ziren konpromisoak eskatzen zuen mailan egoten.

Neurketan hasieratik hartu zuten aurrea Goñik eta Iñarrak; partidu erdian, baina, lehia parekatu egin zen –12na berdindu zuten–. Berriro ere hartu zuten, ordea, aurrea urdinek, eta 22 eta 16 irabazi zuten azkenean. Lagun artean ibili ziren arren, tanto baten baino gehiagotan atera zuen oronoztarrak ohiko duen jenioa, biraoren bat bota ere bai, eta epaileari begiradatxoa, zalantzazkoa izan zen pilotaren batean. Jendea ere saiatu zen apur bat xaxatzen, hori –ere bai– baita Mikel Goñi, ikuskizun emaile eta ez bakarrik jokoan.

Ume nahikotxo batu zen atzo Zubikoan, eta erakutsi zuten pilotan ez eze, animoak emateko azken joerak –hau telebistatik–ari direla ikasten; orain, animo gehienak ez ziren Goñirentzako izan, pilota eskolako euren entrenatzailearentzako baizik.



Mikel Goñi pilotari ematera. | IMANOL SORIANO

**MIKEL GOÑI**
PILOTARIA

## "Ohorea da gazte hauen kontra jokatu ahal izatea"



J.I.

Iritzia eman zigun nafarrak.

**Zer moduz joan da?**

Giro polita egon da. Uste dut aurkako bikotean biak nahikoa urduri atera direla. Sergiok nahi zuen aurrean tantoa egin, baina ez du asmatu. Txapa asko jo ditu, presaka ibili da apur bat; bestela partidu parekatuagoa izango zen. Ohorea da gazte hauen kontra jokatzea.

**Saiatu da Uriarte zu aurrean nahasten.**

Bai, mutiko ausarta da; berehala ikusten ditu tantoa sartzeko lekuak, baina suerte txarra eduki du.

**Oraindik ere baduzu erakarpen ahalmena.**

Hemengo jendeari, gazteei, aukera ematea nire kontra, edo Lasaren edo Otxandorenaren kontra jokatzeko, duela hamar urte ez zen posible, baina gaur egun aukera badago. Eta jendea frontoira etortzen da; hala den bitartean, jarraituko dugu etortzen.



**BEÑAT IÑARRA**
PILOTARIA

"Lehenago ere jokatutakoa nintzen Goñirekin. Gustura jokatzen dut berarekin. Jendea ekartzen du, frontoia bete, eta guretzat ere polita da hori. Fisikoki ez dago ondo, baina oraindik asko da gure aldean".



**SERGIO URIARTE**
PILOTARIA

"Aldagelan–eta fenomeno bat da Goñi, oso jatorra. Alde horretatik gustura. Bestela, aspaldi jokatu gabea nintzen, beldurra nuen min hartzeko eta tako larregi jarri ditut; ez dut gozatu. Gaztetxoak gustura egon direla, inportanteena".



**ANDONI AZKARATE**
PILOTARIA

"Goñi bera saiatzen da apur bat laguntzen, berba egin eta... Baina ohitu gabe gaude hainbeste jenderen aurrean jokatzen; dena den, espero baino hobeto, kale asko ez dugu egin eta".

UDABERRIKO TXAPELKETA

# Aste bukaera eskasa izan da Bergarako pilotariendako

Udaberriko Pilota Txapelketaren barruan jardunaldi eskasa izan da Bergarako kadete eta gazte mailako pilotariendako. Intxurre (Alegia) eta Zestoako pilotariak gureak baino gehiago izan ziren: Balerdik eta Oterminek 22 eta 10 galdu zuten kadeteetan, eta Aristik eta Gaztañagak 22 eta 6, gazte mailan.



IMANOL SORIANO




IMANOL SORIANO

ERRUGBIA

# Multzoko lidertzan bakarrik geratu da Arrasate, Iruñeari ondo irabazita

Iker Elortzak jokatu egin zuen, eta garrantzitsua izan zen haren ekarpena; oro har aurrelarien lana ere goraipatu zuen Igor Isasi etxeko entrenatzaileak

**EMAITZA**

ARRASATE ART
**18-0**
IRUÑEA

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Bi partidu jokatu eta biak irabazita iritsi ziren bi taldeak zapatuko norgehiagokara, Euskal Ligako bigarren faseko multzoko lidertzan. Arrasatearrak nafarrak baino gehiago izan ziren baina, eta punturik egiteko ere ez zieten aukerarik utzi.

Hasi aurreko albisteak ez ziren onak etxekoentzat; aspaldian sarritxo legez, oraingoan ere jokalari gutxirekin egin behar izan zioten aurre konpromisoari, lesioak tarteko. Soilik bi aldaketa egiteko aukerarekin ekin zion lehiari Arrasatek –zenbait jokalarik, gainera, erabat ondo egon gabe jokatu zuten–, eta talde luzeagoarekin etorri zen Iruñea, hogei lagunekin; eta halakoak alde handiak dira.

Oztopo guztiei aurre eginez, baina, lehenengo zatian 10 eta 0 aurreratu ziren Isasiren mutilak. Xabier Gardokik egin zuen entsegua, eta Bustuk jarri zuen ondoren baloia hiru zutoinen artean; zigor kolpe bat ere gauzatu zuen geroago Bustuk berak. Etxekoek izan zuten jokoaren kontrola, eta nafarren zelai zatian jokatu zuten eroso. Iker Elortzaren ekarpena garrantzitsua izan zen, entrenatzailearen arabera "oso aktibo eta beti taldekideak animatzen".

Bigarren zatian ere ondo ibili zen Arrasate. Kontrarioak ezin zuen gustura jokatu, defentsako lerroan jasaten ari zen presioagatik. Talde gisa aritu ziren arrasatearrak, elkarri lagunduz, eta Iker Elortza izan zen lehiako bigarren entsegua egin zuena; Bustuk lortu zituen azken hiru puntuak, beste zigor kolpe batekin. Aurrelarien lana nabarmendu zuen partidu amaieran Igor Isasi entrenatzaileak.



Iker Elortza kontrarioaren bila. | IMANOL SORIANO

DUATLOIA

# Oñatiko duatloian izena emateko epea zabalik dago

**J.D.** | OÑATI

Martxoaren 15ean jokatuko den 23. edizio honetan 300 atletak parte hartu ahal izango dute, federatuek eta ez federatuek. Izena emateko, euskal federazioaren webgunera (*www.triatloi.org*) jo behar da. Inskripzioa 22 euro ordaindu beharko da aurrez eginda; egunean bertan, lekurik balego, 32 euro.

Guztira 55 kilometro egingo dituzte atletek. Hasi, bost kilometroko herri-zirkuituari bi buelta ematen hasiko dira; ondoren, bizikletara igo eta 40 kilometro egingo dituzte: Oñatin hasita, Elorregi, Bergara, Antzuola, Deskargako gaina, Legazpi eta Oñatiraino berriz ere. Eta amaitzeko, bost kilometroko herri zirkuitua beste behin egin beharko dute korrika.

**Arkauz eta Barrainkua**

2013ko Euskal Herriko atleta onenen artean Oñatiko taldeko Iker Arkauz eta Ainhize Barrainkua daude. Arkauz onena izan da duatloian gazteetan; Barrainkua, hirugarren kadeteetan, triatloian.

## FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Aretxabaleta | 0-2 |
| Bergara-Berio | 2-2 |
| Lagun Onak-Antzuola | 0-1 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Anaitasuna | 39 | 19 |
| 2 | Berio | 39 | 19 |
| 3 | Tolosa | 35 | 19 |
| 4 | Aurrera | 28 | 19 |
| 5 | Ostadar | 28 | 19 |
| 6 | **Antzuola** | 27 | 19 |
| 7 | Real Union | 25 | 18 |
| 8 | Hondarribia | 25 | 18 |
| 9 | **Aloña Mendi** | 25 | 19 |
| 10 | **Bergara** | 24 | 19 |
| 11 | Beti Gazte | 24 | 19 |
| 12 | **Aretxabaleta** | 24 | 19 |
| 13 | Hernani | 21 | 19 |
| 14 | Vasconia | 21 | 19 |
| 15 | Getaria | 20 | 19 |
| 16 | Touring | 20 | 19 |
| 17 | Zarautz | 15 | 19 |
| 18 | Lagun Onak | 10 | 19 |

**HURRENGO JARDUNALDIA**

**Antzuola**-Getariako
Aurrera-Lagun Onak
Vasconia-Anaitasuna
Berio-Tolosa
Beti Gazte-**Bergara**
Real Union-Hondarribia
**Aretxabaleta**-Hernani
Zarautz-**Aloña Mendi**
Touring-Ostadar

**EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Vasconia | 1-1 |

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Lazkao-Mondra | 1-6 |

**EMAKU. BIGARREN MAILA**

| | |
|---|---|
| Mondra -Reocin | 0-8 |

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA**

| | |
|---|---|
| Mondra - Ordizia | 0-3 |
| Aurrera-Bergara | 0-1 |
| Euskalduna-Aloña Mendi | 1-0 |

**KADETEEN OHOREZKO MAILA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Amaikak Bat | 1-3 |
| Aretxabaleta-Eibar | 1-2 |
| Lazkao-Arrasate | 1-3 |

**EMAKUMEAK GAZTEAK**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Amaikak Bat | 0-2 |
| Ordizia-Bergara | 4-0 |

**EMAKUMEAK, 1. KADETEAK**

| | |
|---|---|
| Ikasberri-Arizmendi | 0-3 |
| Eibar-Aloña Mendi | 1-0 |
| Anaitasuna-Mondra | 3-1 |

## ESKUBALOIA

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

| | |
|---|---|
| Dominicos Zaragoza-Ford Mugarri | 36-34 |

**EUSKADIKO TXAP.**

| | |
|---|---|
| Soraluce BKE-Corazonistas | 27-28 |

**EUSKADIKO TXAP. EMAK.**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Atez Ate Usurbil | 18-31 |

## ARETO FUTBOLA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Eraso Aiara-Eskoriatza | 6-4 |

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Gure Txokoa-Aretxabaleta | 2-3 |

## SASKIBALOIA

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

| | |
|---|---|
| MU-Biok Zerbitzuak | 88-84 |

**AUTONOMIKOA**

| | |
|---|---|
| Natra Oñati-La Salle | 72-76 |

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Eskoriatza-Cafes Aitona B | 49-22 |

**PROBINTZIA MAILA**

| | |
|---|---|
| Don Jabugo-Aloña Mendi | 61-56 |
| Soraluze Bergara-Zarautz | 76-72 |
| MU-A--Arri BKL | 53-59 |

## ERRUGBIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Kanpanzar ART-Iruñea | 18-0 |

GURE KIROLA
GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:03, 23:56

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Aitor Alcaide eta Ekaitz Mendizabal | Arrasate-Arlutz xake taldeko kideak

# "Pertsonalitate handia dauka xakeak; pieza bakoitzak zeregin berezia du"

▸ Arrasate-Arlutz taldeak txapelketa hasi berri du eta lau talderekin lehiatuko da

▸ Talde indartsuagoa izate aldera, bi elkarteek batera jokatzen dute liga txapelketa

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Duela hiru aste hasi zuen liga txapelketa Arlutz-Arrasate xake taldeak. Lau talde dituzte lehian eta euren helburua da mailari eustea. Bi elkarteak batera lehiatzen dira, baina azpiegitura eta lan egiteko modu banandua daukate. Elkarte bakoitzeko kide batekin elkartu gara, denboraldiaren aurrerapena egiteko: Aitor Alcaide (Arlutz) eta Ekaitz Mendizabal (Arrasate San Andres).

**Zer moduz hasi duzue liga txapelketa?**

**Aitor Alcaide:** Iaz bezala, lau talde osatu ditugu eta lau mailatan lehiatuko gara: Euskadiko Ohorezko mailan, Gipuzkoako Preferente mailan, Gipuzkoako Lehen mailan eta Gipuzkoako Hirugarren mailan. Azken talde hori umeekin osatu dugu. Pozik gaude, lehiatzen lau talde dituen elkarte gutxi daudelako eta gu garelako horietako bat. Gros eta Zarautz dira besteak.

**Ze helburu zehaztu dituzue aurtengo?**

**Ekaitz Mendizabal:** Maila guztietan mantendu gurako genuke. Nagusien taldea Euskadiko Ohorezko mailan lehiatuko da. Iaz igo ginen Lehen mailatik Ohorezkora eta hor geratu gurako genuke. Baina ez da erraza izango. Maila horretan profesionalak diren jokalarien kontra lehiatu beharko dugu. Helburua, beraz, mantentzea da, eta, posible bada, gazte mailako jokalari bat taldera igotzea. Horretarako, Preferente mailan lan ona egin beharko dugu.

**Bakarka ere lehiatzen zarete.**

**A.A.:** Bai. Bi elkarteak elkartu ginen taldeka lehiatzeko. Indar handiagoa izateko eta talde indartsuagoa osatzeko. Baina bakarkako lehiak norberak aukeratzen ditu. Txapelketa asko antolatzen dituzte: egun batekoak, aste bukaerakoak, astebetekoak, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak, Arrasateko Nazioarteko txapelketa…

**Xakeak beti izan du tradizioa Arrasaten eta Aretxabaletan. Osasuntsu zaudete?**

**E.M.:** Bai, kontuan hartuta duela urte batzuk elkarteak desagertzeko zorian egon zirela. Jende gutxirekin geratu ginen, baina aurrera egin genuen. Tradizioa dauka xakeak, baina hori sustatzeko lan handia egin behar da. Gu, zorionez, umeengana heldu gara eta horiek dira bi kluben etorkizuneko jokalariak. Zaindu egin behar ditugu. [Barre]

**Nola erakartzen dituzue umeak xakera?**

**A.A.:** Ikastetxe batzuetan txapelketak antolatzen dituzte eta Gipuzkoa mailan Kutxak antolatzen du beste bat, eskola mailakoa. Baina, normalean, etxean xakea ikusi dutenak datoz guregana. Xakean non joka dezaketen galdetzen dute eta badakite Arrasaten eta Aretxabaletan xake elkarteak daudela. Bat animatzen bada, lagunak ere animatzen dira. Boladak egoten dira. Aspaldian ondo gabiltza. Ezin gara kexatu eta lanean jarraituko dugu.

**Zenbat lagunekin diharduzue lanean?**

**E.M.:** Arrasaten 25 bat lagun gaude guztira eta Aretxabaletan 20 bat. Ez gara kexatzen. Garai gogorragoak bizi izan ditugu.

> "Taldeak desagertzear egotetik, osasuntsu egotera pasa gara"

**Badaukagu harribitxiren bat Arrasate-Arlutz taldean?**

**A.A.:** Bai. Fran Miguel, Asier Etxagibel eta Juan Manuel Ruiz. Gazteen artean ere badaude pare bat nahiko onak. Xakearekin ez badira aspertzen, eta horretan guk zeresan handia daukagu, jokalari onak izango dira.

**Zer dauka xakeak horren berezia izateko?**

**E.M.:** Gustuko baduzu, kirol ederra da. Gustuko ez dutenek ez diote xarmarik ikusten. Adin guztiendako kirola dela esango nuke. Burua eta memoria fresko mantentzen laguntzen duena.

Bestalde, kirol erakargarria da. Inoiz ez dakizu xake partida bat nola bukatu den. Argi egon behar duzu lehia osoan: kontrarioak ze jokaldi egingo duen zain, une bakoitzean zer pentsatzen duen asmatu guran, hurrengo jokaldian pentsatzen… Une batean despistatuz gero, partida galtzeko arriskua dago.

> "Egunero erabiltzeko balio asko sustatzen ditu xakeak"

Xakeak pertsonalitate handia duen kirola dela esango nuke. Pieza guztiek pertsonaia ezberdinak irudikatzen dituzte eta guztiek dute euren betebeharra eta funtzioa. Gainera, balio asko lantzen ditu.

**Adibidez?**

**A.A.:** Batez ere, zintzotasuna. Partida hasi aurretik eta ondoren aurkariari bostekoa ematen diogu. Galdu ostean bostekoa ematea ez da erraza, baina xake jokalariok barneratuta daukagu arau hori. Irabazi edo galdu, zintzotasuna gailentzen da. Enpatia ere asko lantzen da. Balio hori oso baliagarria da egunerokotasunean.

**Jokatzeko bai, baina ikuslearendako kirol erakargarria da?**

**E.M.:** Gutxieneko arauak ezagututa, bai. Mus partida bat ikustea bezala da. Jokalarien alboan arauak ezagutu barik bazaude, aspertu egingo zara. Xakea kirol erakargarria da ikusteko eta jokatzeko. Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago disfrutatzen da.

Xakea, taula eta piezak baino askoz gehiago da. Joko mota asko daude: erasoan jokatzeko aukera ematen duena, atzean sendo itxarotekoa, kontraerasora jokatzekoa… Adibidez, Gari Kasparovek eta Anatoli Karpovek lehia estua izan zuten urte askoan. Kasparovek erasoan jokatzen zuen. Eta Karpovek nahiago zuen atzean itxaron. Munduko onenak izan ziren.

Xake jokalari bakoitzak bere estiloa dauka. Milaka jokaldi dituen datu-base bat daukagu eta hor azter ditzakegu gure kontrarioaren jokaldiak.

**Ezaugarri berezirik behar da xake jokalari izateko?**

**E.M.:** Ordu asko eskatzen dituen kirola da. Askotan entzun dugu matematiketan edo kalkuluan onak direnak xakean onak direla. Hori gezurra da. Ikasketek ez dute zerikusirik xake jokalari ona izateko orduan.

Askok diote xakean kirolak, arteak eta zientziak bat egiten dutela. Ados gaude horrekin. Punta-puntako jokalari askok egiten dituzten jokaldietako batzuk artelanak dira.



Ekaitz Mendizabal eta Aitor Alcaide, xake partida bukatu ostean, bostekoa ematen. | MIREIA BIKUÑA



Bi mutiko bidoi handi batekin jolasean. | ELILEMIE

# Itsaso Pagoaga: "Sortze prozesu guztiak dira jolas"

Pertsonon sormen gaitasuna garatzearen garrantziaz dihardu Pagoagak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Nahiz eta hezkuntza prozesuan horrela kontsideratua egon sormen gaitasuna ez da bigarren mailakoa Pagoagaren esanetan. Eta argi dauka: gero eta jostailu sofistikatuagoa, gero eta jolas mugatuagoa. Bogan dauden jostailuak erosi ohi ditugu gurasook, baina Pagoagak gomendatzen du kontuan hartzeko, batez ere, jostailuak emozioak, bizipenak, harremanak edo aurkikuntzak sortzeko duen gaitasuna. "Ez diogu beldurrik eduki behar kartoizko kaxarekin, egunkariarekin, plastikozko botilarekin edo kaleko makilekin zein harriekin jolasteari. Haurrak bere jolasa sortzen du, esperientzia berriak aurkitzen ditu, eta bere burua hobeto ezagutzen du".

**Jostailu egituratuegiak**

Pagoagak argi dauka sormen gaitasuna haurtzarotik landu behar dela. "Lurra landu ezean nekeza da uzta jasotzea", dio. Hala, egituratuegiak diren jostailuez dio sarri helburu bakarra dutela, eta rol edo jokabide jakinak birproduzitzera bideratuak daudela. "Haurrari eskaintzen diogun jostailua are eta sofistikatuagoa, haurraren jolasa are eta mugatuagoa", dio.

Pizgarri gisa pare bat lotura eskaintzen ditu Pagoagak *Guraso.com* atarian.

# Hemen da gripea: sukarra, eztula eta mukiak dira nagusi

L.Z. | ARRASATE

Ume txikiak dira lehenengoak gaixotzen, batez ere 1-4 urte bitartekoak. Sukarra, eztula eta mukiak dira sintoma argienak. Gehienetan, sintoma horiek 5-7 egunen buruan desagertzen dira, nahiz eta eztulak eta nekeak gehiago iraun. Gripea kutsakorra da, eta familiako kide bat baino gehiago gaixo daiteke aldi berean. Sendagileek parazetamola edo ibuprofenoa gomendatzen dute —sukarra jaisteko baino gehiago, haurra hobeto sentitzeko—. On egiten du baita ere likido asko edateak eta etxean lasai egoteak —sukarra desagertu ostean 24 ordu.

**Sukarra**

Argi izan behar dugu sukarra gure gorputzaren defentsa mekanismo bat dela; sistema immunitarioak infekzioari aurre egiteko duen tresna. Askotan, beldurtu egiten gara sukarrarekin, baina jakin behar dugu prozesuak bere bidea egin behar duela. Horrela dio Amalia Artze pediatrak. "Badira umeak sukarra oso handia izaten dutenak. Beste batzuk oso gutxitan iristen dira 39 graduko tenperatura", dio Amalia Artze pediatrak. "Gure sistema immunitarioak eskema jakin bat garatzen du infekzioari aurre egiteko eta askotan eskema hori bete egiten da nahiz eta botika antitermikoak hartu", dio.

Erremedio naturalak ere badaude: tipula, ekinazea, erromeroa, tila edo propolia. Immunitate sistema indartzeko eta arnas aparatuko infekzioei aurre egiteko onak dira.



Haurra gaixorik. | STEFAN

## Seme edo alaba bakarra hezterakoan familia kanpora begira zabaltzea garrantzitsua da

L.Z. | ARRASATE

Kapritxoz beteak, berekoiak, hauskorrak... orokorrean, fama txarra dute seme edo alaba bakarrek, baina anai-arrebarik ez izateak ez du zertan ezkorra izan. Bestelakoetan moduan, neurri handi batean gurasoen jarrerak finkatuko du umearen garapena. Eta bai, anai-arreben gabeziak aurrez aurre jartzen du umea problematika espezifiko batzuekin, baina konpentsa daitezke.

Haur bakarrak, gehienetan, familiaren arreta guztia jasotzen du —protagonista ia bakarra da— eta sarri gainbabestua dago. Horrek baditu bere ondorio onak zein txarrak: familian oso seguru sentitzen da, baina kanpora begira, akaso, ez hainbeste. Bakarra izatera gurasoen kontrola zorrotzegia izan daiteke eta exijentzia maila gehiegizkoa. Helduen beldurrak ere ume bakar baten gainean islatzen dira, eta hori arazo iturri izan daiteke umearen garapenerako. Neurririk hartu ezean umea helduen munduan biziko da gehiago haurrenean baino. Bestetik, anai-arrebekin modu naturalean garatzen diren jolasaren zentzua, rol desberdinak jokatzeko aukera edo agresibitatea adierazteko eta kanalizatzeko aukera eskasagoak dira. Horrelakoetan garrantzitsua da familia kanpora zabaltzea. Gonbidatu lehengusu-lehengusinak, edo laguntxoak etxera, eta eman izena udalekuetan, taldeko kirol jardueretara edo antzeko ekintzetan. Hori guztia umearen nortasuna kontuan hartuta garrantzitsuena haurra ondo sentitzea baita.

## Amore ematen dutenean ere ondoan egon behar dugu

L.Z. | ARRASATE

Sena da; gurasoak seme-alabak babesteko eginda gaude. Fernando Marcos ere guraso da, eta bere blogean egindako azken sarreran dio gure funtzioa laguntzea dela, baina okerreko jarrera dela bidean sortzen diren harri guztiak kentzea. "Helburu bat lortzeko ahaleginean zailena lasterketan jarraitzea da, amorerik ez ematea, zailtasunengatik ez erretiratzea", azaltzen du. Hala, pertseberantzian hezteko gomendioa egiten du. "Seme-alabek jakin behar dute helburuak ez direla beti lehenengo saiakeran lortzen, edo gauzak ez direla beti guk nahi moduan irteten. Gero eta gehiago saiatu, gero eta denbora gehiago eskaini emaitza hobeak lortuko ditugula", azaltzen du. "Balio horietan hezi beharko genituzke".

**Pertseberantzia lantzen**

Marcosen esanetan, lehen haurtzarotik hasi beharko genuke pertseberantzia lantzen. Garrantzitsua deritzo umeek gustuko duten jarduera bat aukeratzeari —eta gure frustrazioen araberakoa—, eta bide horretan gurasook lagungarri izatea. "Nahiz eta gure ametsekin bat egin ez garrantzitsua da gurasook hor egotea, bidelagun izatea. Umeak, seguruenik, gurasookin askatuko ditu bere frustrazioak, beldurrak eta zalantzak, baina garrantzitsua da autoestimua elikatzea eta gauza guztiek duten alderdi ona aurkitzen laguntzea (...) Guztiok egiten ditugu akatsak, eta seme-alabek ere egingo dituzte. Ezinezkoa zaigu hori saihestea, baina irakatsi dezakegu akatsetatik eta esperientzietatik ere ikasten dela".

**Amore ematerakoan**

Gerta daiteke ahalegindu ostean seme-alabek amore ematea. Une horretan ere gurasook alboan egon behar dugula uste du Fernando Marcosek: "Kontsolatzeko, saiakera egin eta noraino iritsi diren gogora ekartzeko, akaso beste zerbaitetan saiatzeko unea iritsi dela ikusi arazteko... Eta beti, egindakoaz eta lortutakoaz harro gaudela erakusteko". Esandakoekin lotuta iragarki baten lotura egin du Fernando Marcosek bere sarreran. Neguko Joko Olinpiarrak iragartzeko egindako bideo laburra da. Patinatzen, eskiatzen edo hockeyean trebatzeko bidean hainbat kirolarik bizi izandakoa porrotak jasotzen ditu, eta bide horretan senitartekoek jokatutako papera. *Guraso.com* atarian duzue ikusgai.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

# Abesti kuttunak, Parrokian

- Ibilbide, bidaia eta lehiaketen bilduma lana egiten duen disko berria aurkeztu zuten atzo
- Errepertorioa aldi berean izan zen ederra, maila altukoa eta estilo askotakoa

J.B. | OÑATI

Urteurren batek agintzen duen moduan, ospatu eta atzera begiratzeko urtea dute Ganbarakoek. Urte oparoak izan dira azken hamarrak eta disko baten jaso gura izan dute hori: *Amarauna*. Atzo aurkeztu zuten lana Oñatiko parrokian.

Kuttunak zaizkien abestiak kantatu zituzten eta abeslarien gozamenean nabari du hori entzuleak. Aukeraketa bera, noski, luxuzkoa izan zen. *Delicatessen* mailara iristen den abesbatza bitara abestutako Padillaren *Deus in Adiutorium Meum Intende* zoragarriarekin hasi zen Ganbara eta hasiera miresgarria Mendelssohnen *Richte mich, Gott*-ekin osatu zuten.

**Nobedadeak**

Estreinaldiak ere izan zituen atzoko Parrokiako kantaldiak, Kvernoren *Ave Maris Stela* ala Debussyren *Trois chansons* ezaguna, esate baterako.

Finean, kantaldia eta erakustaldia egin zuen Ganbara abesbatzak, frogatuz lehiaketak eta entsegu ordu amaigabeak ez direla alferrik izaten. Hain zuzen, erronka berria datozen hilabeteetan du abesbatzak atzera ere. Espainiako Gran Premio zirkuituan sartuta, lehiaketa nagusian hartuko dute-eta parte. Aragoiko Ejea de los Caballeros herrian jokatuko da aurten berriz ere lehiaketa eta horretarako propio gertatu dituzten Aragoiko abesti bi ere eskaini zituzten.

Keinuz betetako emanaldia izan zen, zalantza barik, eta etxeko keinuak, noski, ez ziren falta izan. *Sorgin dantza* eta *Donostiako hiru damatxo* izan ziren etxeko kuota betetzeko aukeratuak eta horrezkero entzuleak bero zeuden txalorik epelenak eskaintzeko. Bukaeran ospakizun tonu horri eutsi eta gospel doinuekin amaitu zuten Ganbarakoek.

Bukaera eder eta ia festa giroko horrekin, saio borobila egin zuen Ganbara abesbatzak. Ederra entzuteko eta, agerikoa zenez, are ederragoa kantatzeko, taldeak genero batetik bestela jauzi egin eta erregistroz erabat aldatzeko duen abilezia frogatu zuen-eta, beste behin ere. Maila altuko abesbatza da Ganbara, langilea eta errepertorio ederrekoa. Horren froga jada eskuragarri dagoen *Amarauna* diskoa da.



Parrokiako aldare pean egin zuen emanaldia Ganbarak. | JOSETXO ARANTZABAL

## Pieza hautatuak

**'RICHTE MICH, GOTT'**
Mendelssohnen pieza ezaguna 2006an abestu zuten Eslovenian eta kritika oso onak jaso zituen abesbatzak. Errepertorioko nabarmenetako bat dute ordutik pieza.

**'AKERRA IKUSI DEGU'**
2006an Tolosako lehiaketan abestu zuten eta kutunenen artean dute Guridiren abesti herrikoia.

**'TRY JESUS'**
Gospelarekin gozatu egiten dute Ganbarakoek. Pieza hau 98-99 urteetan egindako Oñatiko musikari gazteen kontzerturako prestatu zuten, estilo alai eta dantzagarrian abesten duten horietako bat.

**'SWEET HONEY'**
Ganbarak egin duen azken bidaia handiarekin lotutako pieza. Austriako Spittalen abestu behar izan zuten eta interpretazio onenaren aitortza jaso zuten Ganbarakoek.

**AITOR BIAIN** | ZUZENDARIA

## "Gogor entsegatu eta asteburu bakarrean egin genuen grabaketa"



ARTXIBOA

Urteurrena ospatu eta Ganbara abesbatzaren ibilbide oparoaren bigarren kapitulu baten bilduma lana egiten du *Amarauna* diskoak. Polifonia, musika sakroa eta euskal kantu zein gospelari lekua egin diote oraingoan; abesbatzaren aniztasun eta malgutasunaren erakusgarri. Ilusioa eta lana izan dira, atzera ere, Aitor Biain zuzendariak behin eta berriz nabarmentzen duenez, osagai nagusiak.

**Zein da diskoaren motiboa?**

Urteurrenaren inguruan antolatu diren ekintzetako bat izan da, noski. Diskoak azken urteetan egindako lanak batu eta gordetzeko aukera eman digu: isla bat da eta emaitza bat, lana erakusteko era bat. Lehengo diskotik gainera abesbatza asko aldatu da. Bazen garaia.

**Alde handia dago lehenetik bigarrenera?**

Gurearen moduko taldeek, berez, beti dauzkate aldaketak. Bi diskoak ilusio eta lan gogorraren emaitza dira eta etapa ezberdinetakoak dira. Hasierakoa gazteagoa eta txikiagoa zen baina daukaten antzekotasuna da ilusioa eta gogoarekin egindakoak direla.

**Hainbeste kiderekin, grabaketa bera ere ez zen erraza izango.**

Gure kasuan entseguetan luze jardun eta gero etorri zen grabaketa baina diskoa bera asteburu baten grabatu zen, hiru egunetan. Parrokian grabatu genuen, leku paregabea da horretarako akustikoki. Guretzat ere hobe da leku ezagun eta eroso baten abestea. Grabaketa aholkulari musikal batekin egin genuen. Lasaitasuna eman zigun horrek, bestela erantzukizun handia da eta bermea ematen dizu, gainera. Gero, badauzkagu beste pieza batzuk instrumentuekin, piano eta bateriarekin, eta horiek Santa Anan grabatu ziren. Ostean nik ordu dezente igaro ditut grabazioak entzun, estudioan editatu eta masterizatzen...

**Aukeraketa zeren araberakoa izan da?**

Disko bat ateratzean beti daukazu buruan norbaitentzako dela eta horretan pentsatu beharra dago. Estilo desberdinak jasoko dituen diskoa egin nahi izan dugu, garai ezberdinetakoak. Azken urteetako abesti desberdinak ere jaso gura genituen, Ganbarak izan dituen momentu garrantzitsuetako abestiak ere badirenak. Abesti potenteak behar genituela ere argi geneukan, lehiaketetan abestu ditugunak, adibidez, ze zentzu horretan, entzule zorrotzak dauzkagu.

**Zer prestatzen zabiltzate hurrengo hilabeteetarako?**

Orain urteurreneko ospakizunetan dihardugu buru-belarri baina apirilean irabazi genuen lehiaketa eta gero Espainia mailako zirkuituan ibiliko gara abesten. Urte amaierarako *Carmina Burana* ere gabiltza prestatzen, amaierako kontzertu berezi bezala.

# Eromenaren eta bidegabekeriaren zaldunek bizi jarraitzen dutelako

▶ Modernitatera ekarrita, 'Hamlet'-en moldaketa berezia egin du Artedrama taldeak Xabier Mendigurenen testuarekin

▶ Otsailaren 2an atzera ere itzuliko dira Debagoienera, Oñatira, bira luze eta arrakastatsua egiten dabiltza–eta

**J.B** | ARRASATE

Artedramak hezurmamitu eta Xabier Mendigurenen testuekin arnas berria hartutako *Hamlet* lanak ikusle gutxi utzi zituen hotzepel domekan Arrasateko Amaia antzokian. Denboraldiko bogako antzezlana da *Hamlet* eta ahoz ahokoak egin du bere lana oraingoan. Barrutik, hesteetatik, harrapatzen zaituen lan bortitz horietakoa da Lipus eta konpainiarena.

**Eromena eta bidegabekeria**

Antzezlan berezi, jostari eta oso bizia da klasikoaren moldaketa. Shakespearen ardurekin, tematikarekin eta, zelan ez, lan honen kasuan, eromenaren jolasarekin bete-betean asmatzen duena. Hamaika buelta, interpretazio eta birmoldaketa egin zaizkio Shakespearen testurik ezagunenetako horri, eta euskal bertsio modernoan, Artedramak eta Xabier Mendigurenek asmatu egin dute saihets berriei heltzen. Bidegabekeriak eta eromenak indarrean zeuden XVII. mendean eta badira XXI.ean ere.

**Hurrengoa, Oñatin**

Lana ikusteko aukera Oñatin izango da orain otsailaren 2an.



Danimarkako soldaduak, antzezlanaren hasieran. | JOSETXO ARANTZABAL




Bertso-paper lehiaketako saridunak Alaia Martinekin. | IMANOL SORIANO

## Bertsogintza osasuntsu dago oñatiar gazteen artean

Aurkezturiko 119 lanen artean zortzi onenek saria jasotzeaz gain, bertsoak kantatu zituzten

**JAGOBA DOMINGO** | OÑATI

Maider Arregi DBH eta Batxilergo sailean; eta Ane Mendizabalek, Maria Murgiondok eta Mar Posadak osaturiko hirukotea LH sailean, izan ziren Bertso Paper lehiaketako irabazleak.

Hala ere, garrantzitsuena ez ziren sariak izan, Oñatiko Gaztelekuak antolatu zuen bosgarren Bertso Paper lehiaketara aurkeztu ziren 119 lanak baizik. Begibistan geratu zen egubakoitz arratsaldean neska-mutiko oñatiarren artean bertsogintzak duen osasun ona.

**Alaia Martin sariak banatzen**

Sariak banatzen gainera, ez zen edonor egon; Alaia Martin bertsolari oiartzuarra izan baitzen zortzi sarituei zoriontzeko arduraduna.

Lehen hezkuntzako sailean, Ane Mendizabalek, Maria Murgiondok eta Mar Posadak eraman zuten sari potoloa. Hurrengo sailkatuak hurrengoak izan ziren: Irea Egaña, Malen Osa eta Maia Odriozola, Ilia Uriarte eta sailarekin amaitzeko, Luka Demestri eta Eñaut Zubia.

DBH eta Batxilergo sailean ordea, Maider Arregi izan zen txapelduna, bigarrena Urko Arregi eta hirugarrena Gontzal Belategi. Maila oso ona erakutsi zuten hauek, amonari eskainitako bertsoak, desamodioen gaineko edo gizakiak sorturiko harresien gaineko bertsoekin. Azken mailan, aurten lehiaketak izan duen gorakada azpimarratu zuen Iñaki Olalde antolatzaileak. Izan ere, normalean hamar bat lan jasotzen badituzte, aurtengo edizioan, 37 lan jaso dituzte.

## Gogotik gozatu zuen Ane Zuazubizkar arrasatearrak Donostiako Bertso Egunean

**J.D.** | ARRASATE

Bertso Egun arrakastatsu eta berritzailea izan zen zapatuan Donostian ospatutakoa. Emakumeek antolaturiko lehena izan zen eta generoa oso presente egon zen, batez ere, Kursaaleko emanaldian.

Hala ere, egun osoan zehar bertsoez gozatu zuten Donostiara hurbildutakoek. Goizeko bertso poteoan, Ane Zuazubizkarrek eta Maddi Sarasuak hartu zuten parte eta Kursaaleko saioan berriz, Ainhoa Agirreazaldegik.

Esperientzia paregabea izan zela aitortu zuen Zuazubizkarrek. Etxetik kanpo bertsotan ibiltzea beti aberasgarria izaten delako; gainera, jende askok jarraitu zuen goizeko saioa.



Ane Zuazubizkar bertsolari arrasatearra. | ARTXIBOA

KRONIKA

# Lagunen beroaren aterpean

**JON BEREZIBAR** | BERGARA

Hamar urte joan dira jada *Zaharregia, txikiegia agian* sonatutik. Abiapuntua, atzera ere, New York izan du laukoteak eta baliteke The Bowery Poetry Club entzutetsutik gutxi izatea Zabalotegik eta oso desberdina liteke, ziur, bateko eta besteko ikusleen begirada. Horretan, baina, etxekoak ateratzen dira garaile, artisten ikuspegia konpartitzen baitute, *Jainko txiki eta jostalari hura*, beste behin ere, euskaldunen munduari begiratzeko era bat aurkezteko leihoa da-eta; *Munduari begiratzeko modu bat*, zornotzarrak berak barikuan kantatu zuen bezala. Noski, errepertorioan udazkenean plazaratutako lana aurkeztu zuten, baina aurreko lanarekin ere ez ziren zorretan geratu.

## Itzal luzearen gerizpean

Sortzaile moduan, jadaneko, izen propioak dira Urdangarin, Rueda eta Uribe. Lehenak ia bi hamarkada daramatza kantuan; Ruedarena euskal kantagintzako transformaziorik kolpagarrienetakoa izan da, PiLT-ren garai bateko egurretik, egun bakarlari moduan duen dotoreziara; eta, hirugarrenak, hamalau hizkuntzatara dauka itzulita bere azkena. Plantela, luxuzkoa, hortaz. Oholtzan *Jainko txiki eta jostalari hura* disko-liburuari bizia emateko Bingen Mendizabal dute kide. Ondarroa, New York, Mexiko zein etxe barruko kontu eta ipuinak josten ditu Uriberen hariak eta musikariek jantzi ederra ematen diete istorioei. Aitzitik, lau talentuen batuketan Uribe eta Urdangarin egiten dira arretaren jabe nagusiki. Idazlea, batetik, beti hain arduratuta txikitako begirada sentibera ez galtzearekin, uko hori ia ikur duela; are bereizgarriago duen deklamazio estilo umetiarrarekin heltzen dio narrazioari. Urdangarinek, bestetik, bere kantamoldearen onena ateratzen du ikuskizunerako, unerik intentsuenetan Rafa Ruedaren gitarra lan bikaina batuta, ikusleak hunkituz, haiei sentiaraziz. Lagunak, herria eta bizitza zelebratzen dira.

## Adiskidetasuna eta heriotza

Ospakizun goxoari, baina, heriotzak ematekn dio izateko arrazoia. Josean Lizarribar euskaltzalearen eta Aitzol Aramaio zinemagilearen galerek. Lehenak hazia erein zuen, eta haren heriotzak elkartu ditu berriz ere proiektu honen bueltan sortzaileak.

Hala, panegiriko xume eta eder baten antza hartzen du amaieran ikuskizunak eta artistei ere antzeman zitzaien galeraren hutsunea taupaka dutena. Lagun topaketa berezi eta min baten *voyeur* bilakatzen da ikuslea ia, zelatari baimenduna, katarsi txikiaren konplize, agian. Edertasun soileko hitz, esaldi eta abestiak izan ziren, egubakoitz iluntze busti eta haizetsuarentzat, eta Zabalotegi bera babesleku intimoa bilakatu zen kanpo zein barne giroaren gozagarri.

**FITXA**

ERREZITALDIA

**'JAINKO TXIKI ETA JOSTALARI HURA' IKUSKIZUNA**

**Generoa:** Poesia eta musika emanaldia.

**Non:** Zabalotegi aretoa.

**Eguna:** Barikua, urtarrilak 24.

**Iraupena:** Ordu eta laurden.



Hurrenez hurren, Kirmen Uribe, Bingen Mendizabal, Mikel Urdangarin eta Rafa Rueda. | IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

## Gauzarik txikienak ere, algararik handiena

Gauza txikien loria zein den azaldu zuen Luis Piedrahita monologistak asteburuan Espaloian, Mostraren barruan. Jarraitzaile andana erakarri zuen aktore galiziarrak egindako bi emanaldietan, barikuan zein zapatuan. Espainiako telebistan hain ezagun bilakatu duen estilo eta umore ia absurdotik gertuko horrek barre eta algara asko eragin zituen Elgetan, bigarren Monologo Mostraren baitan.

# David Artzamendi organo-jotzailea hil da

Arrasateko azken mendeko historia musikalaren izen nagusietakoa eta gizon estimatua izan da

**J.B.** | ARRASATE

Zapatuan hil zen David Artzamendi, 99 urte zituela, Arrasaten. San Juan Bataiatzailea Parrokiako organo jotzaile izan zen oso gaztetatik Artzamendi, eta gizon benetan estimatua da herrian kultura eta eliz esparruetan. Hileta elizkizuna gaur, astelehena, 18:00etan izango da, parrokian.

## Musika eta lana

Musikarako zaletasuna eta maitasuna txikitatik erakutsi zituen Artzamendik, eta maitasun horri eutsi zion ia orain gutxira arte. Jose Mari Velez de Mendizabalek zalantza barik dio "Arrasateko XX. mendeko historia musikala" ezin dela "ulertu" Artzamendi gabe.

David Artzamendi Enparantza 5 urterekin hasi zen musika ikasten, eta seminarioan piano eta solfeo ikasketak egin zituen. Velez de Mendizabalek gogora dakarrenez, 1932 urtean hasi zen jada parrokiako organo-jotzaile bezala lehen ordezkapenak egiten, eta jotzen jarraitu du orain dela urte gutxira arte. Azkeneko urteetan nahiko makal zebilela kontatzen du Velez de Mendizabalek, eta azken sei hilabeteetan ez dutela parrokian organoa jotzen entzun. Musikarako maitasuna eta lan egiteko grina nabarmentzen ditu ikerlariak. Hileta elizkizuna gaur iluntzean da, esan bezala; bitartean, gorpua Iturriotz kaleko 43an (behea) egongo da, goizeko 10:00etatik 13:00etara eta, arratsaldez, 15:00etatik 17:30era.



4. edizioa

# Kantari

## Eskerrik asko denoi:

**Babeslea:**
Laboral Kutxa

**Laguntzaileak:**
Aretxabaletako Udala
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Eroski Bidaiak

**Ikastetxeak:**
Antzuola:
Antzuolako Herri Eskola
Aramaio:
San Martin Herri Eskola
Aretxabaleta:
Kurtzebarri Herri Eskola
Arrasate:
Arrasate Herri Eskola
Arizmendi Ikastola
(Arimazubi, Santa Teresa eta Gazteluondo)
Bergara:
Aranzadi Ikastola
Mariaren Lagundia
San Martin Agirre Eskola
Eskoriatza:
Luis Ezeiza Herri Eskola
Arizmendi Ikastola
(Almen)
Elgeta:
Elgetako Herri Eskola
Oñati:
Elkar Hezi
Txantxiku Ikastola
Errekalde Herri Eskola

**Dekoratua:**
Lanbide Heziketa (Arrasate)

**Jantziak**
Belar Meta

**Soinua eta argia:**
Danatek

**Diskoetxeak:**
Elkar Argitaletxea
Gaztelupeko Hotsak
Baga Biga

goiena

LABORAL KUTXA ETA SUPER BAT KANTARIREKIN!

LABORAL kutxa

SCREAMERS & SINNERS

GURE MUSIKA TALDEAK




Screamers & Sinners boskotea. | JOSU TXINTXURRETA

# "Psychobilly musika ohikoa ez den arren, harrera bikaina izan du diskoak, oraingoz"

- 'Demon Tales' hamaika kantuko diskoa kaleratu zuten duela bi aste
- Diskoa zuzenean defendatzeko irrikitan dago boskotea

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARETXABALETA

Psychobilly edo rock-and-roll psikotikoa delakoa Erresuma Batuan sortu zen 1980ko hamarkadan. 1970eko hamarkadako punk-rocka eta 1950eko hamarkadako rockabillya eskutik helduta doazen generoan, B motako zinemaren edo 1950eko hamarkadako beldurrezko filmen osagarriak ditu. Gurean ez da gehien entzuten den musika, baina Screamers and Sinners boskoteak urte eta erdi daramatza soinu horien bozgorailu izaten. Punk-rock, rockabilly, country, surf edo rock -and-roll erritmoak irabiagailuan sartu, eta duela bi aste *Demon Tales* diskoa kaleratu zuten. Aurretik maketa bat Interneten jarri zuten entzungai, baina diskoarekin duen aldea nabarmena da. Oraingoan, saxoaren eta harmonikaren laguntzarekin disko indartsuagoa egin dute; eta gurean ohikoena ez den arren, harrera bikaina izan du taldeak orain arte. Taldearen eta diskoaren beraren gainean hitz egiteko, *Karlote*-rekin egon gara, kontrabaxu-jole eta abeslariarekin.

**Alde handia dago maketaren eta diskoaren artean, ezta?**

Bai; maketa bi egunean grabatu genuen. Berez, gure artean entzuteko zen. Diskoan, berriz, ordu asko sartu ditugu, maketako bost kantu eta beste sei berri ditu. Emaitza oso bestelakoa da.

**Nolakoa izan da grabazioa?**

Luze samarra izan da. Maiatz bukaera inguruan hasi ginen eta irailean amaitu genuen. Kontua izan da ez genuela guztiok jarraian grabatzeko aukerarik izan, eta hainbat buruhauste izan genituen. Kontrabaxua grabatzeko, adibidez, Txus *Still*-en laguntza izan nuen. Lehenengo, hiru mikrofonorekin grabatzen saiatu nintzen, baina, instrumentua pixka bat mugituz gero, soinua asko aldatzen zen; kontuan hartu behar da kontrabaxua anplifikadore barik grabatu ohi dela. Bigarrenean, mikrofono bakarra jarri nuen kontrabaxuaren zubian eta emaitza hobea lortu nuen.

Nire estudioan, Nekrosounds -en, grabatu genuen eta norberarendako grabatzeak alde onak eta txarrak ditu. Uda aurretik ia dena amaituta eta nahastuta zegoen; hala ere, irailean saxofoia eta harmonika grabatu genituen. Ahotsak grabatzeko ere arazo txiki bat izan genuen; eta Asier Salaren laguntza izan genuen.

> "Harmonikak eta saxoak indar berezia eman diete kantuei"

**ZERTZELADA**




**DEMON TALES**

**Estiloa:** Psychobilly.
**Egilea:** Screamers & Sinners (Arrasate, 2014).
**Argitaletxea:** Autoekoizpena.
**Iraupena:** 32:07 minutu.

## Rock-and-roll benetakoa, iluna eta erritmoa

Arrasateko eta Aretxabaletako kideak dituen talde hau birritan ikusi dut zuzenean eta gustuko dut. Baina horietan soinuak ez die lagundu eta erritmo bizian jo izan dute deabrua atzean balute bezala. Horregatik ez nekien patroi duten psychobilly biziaz gain (hitz gutxitan esanda, 50eko hamarkadako rocka eta punk-rocka kontrabaxuarekin), kantuek askoz ñabardura gehiago dituztenik; horretan zeresan handia izango du seguruenik taldekideetako batzuk Los Galerna talde irudimentsuan aritzea. Are gehiago, psychobilliaz gain, westerna, swinga, hillbillya eta The Clash ere oso presente daude kantuetan. A, eta adi egon 'lo lo' abesti puskari!

**IKER BARANDIARAN**

**Oraingoan, banjoa eta organoa sartu dituzue.**

Bai; bi kantutan kolaborazioak izan ditugu. Organoa Txus *Still* -ek grabatu zuen *Evil Trashmen* kanturako; giro iluna ematen dio. Eta banjoa Jul Bolinagak grabatu zuen; *Little Jim* kantua, hain zuzen, country baldarraren bueltan dagoen abestia da, eta hasieratik banjoa ondo geratuko zela pentsatu genuen. Ba, horrela izan da.

**Beraz, diskoarekin pozik?**

Bai. Hala ere, entzunaldi bakoitzean, hobetu egin daitezkeen detaileak ikusten ditut. Hori, baina, normala izaten da. Orokorrean, gustura geratu gara. Masterizazioa Ibon Larruzearekin egin genuen Bilbon duen estudioan eta emaitzan zerikusia duela uste dut.

**Laukotea boskote bihurtu da.**

Bai, Ibai errekrutatu dugu eta kantuei beste indar eta kolore bat eman die.

***Demon Tales* diskoa duela bi aste-buru aurkeztu zenuten. Zelako harrera izan du?**

Nahiko ona, egia esan. Asteburuko kontzertuetan 50 disko inguru saldu genituen eta dagoeneko taberna batzuetan jarri ditugu salgai. Diskoa, berez, abenduan heldu zitzaigun. Berlingo Clash tabernako urteurrenerako eraman genuen. Garrantzitsua iruditu zitzaigun behin Berlineraino joanda diskoa ere eramatea, eta han hogei bat disko saldu genituen; beste horrenbeste utzi genituen lagunen tabernan. Hemen, ordea, kontzertuak egin ahal izan arte itxarotea erabaki genuen, eta nahiko ondo irten dela uste dugu.

**Aurrerantzean kontzerturik?**

Lan horretan ari gara buru-belarri. Data kontuekin nahiko estu gabiltza, baina aukera dagoenean jotzeko asmoa dugu. Oraingoz, otsailerako Zumaiara goaz The Potes-ekin batera, eta Elorrion eta Bergaran zerbait lotzeko lanean gabiltza. Martxoan Helldorado aretoan joko dugu Bastards on Parade galiziarrekin batera; eta ekainean Hernanin Los Temblores Irungo rockabilly taldearekin eta Bartzelonako Los Brioles talde mitikoarekin. Pixkanaka-pixkanaka, baina bagoaz aurrera.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Abadiñoko Zelaieta auzoan etxea salgai. 3 logela, guztiz hornitutako komun 2, sukalde berria, egongela, ganbara eta berogailu zentrala. 100 m2. Altzari guztiak berriak dira, eta bertan uzteko asmoa dugu. 252.500 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 667 04 41 06.

**Arrasate.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trastelekua. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. Deitu telefono zenbaki hauetara: 630 70 81 23 / 646 26 34 04.

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat txoko gisa edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko moduan. Aukera oso ona! Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 34 80 08.

**Cuzcurrita del Rio Tiron (Errioxa).** Pisua, 3 logela, sukalde jantzia eta egongela jantzia. Terraza. Igerileku komunitarioa. Aluminiozko leihoak. 90.000 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 692 99 53 51

**Lazkao.** Etxebizitzak 89m ditu: 4 gela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Garajeak 17m ditu. Etxebizitza osoak kanpora ematen du. Etxebizitza bere osotasunean konpontzeko dago. Kike Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 60 83 98.

### 102. EROSI

**Bi pisuren bila Arrasaten.** Eraikin berean dauden bi pisu erosiko nituzke erdialdean. Prezio ekonomikoan. Deitu 675 70 24 17 telefonora.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Pisua alokagai, Muntsaratz auzoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 73 29 28.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen, Udalpe kalean. Bigarren solairua da. Egoera onean dago, guztiz jantzia. Berokuntzarekin. Bikoteak nahiago. 620 15 15 08 / 943 78 70 07.

**Baserri etxea Eskoriatzako Mazmela auzoan.** 165 m². Guztiz berrituta. Sarrera, hiru logela, sukalde hornitua, egongela, despentsa, bi bainugela guztiz jantzita, trastelekua, kotxearentzat aterpea, baratza eta lursail gehiago erabiltzeko aukera. Kontakturako: idiaz@ikerlan.es edo 680 33 40 76 edo 638 86 82 50

**Bastida.** Bastidan oporretako pisua alokatzen dut igerilekuarekin. Torre-Otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloi pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkaraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilabeteka alokatzen da. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 620 62 92 45 edo idatzi mezu bat iarteaga_@hotmail.com helbidera.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logela eta bi komunekoa. Guztiz jantzia. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Ana. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 03 71 35.

**Durango.** Durangon pisua alokagai. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 657 79 54 95.

**Durango.** Etxea alokatzen da Durangon. Lau logela, komuna, sukaldea eta egongela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 77 36 11.

**Durango.** Bi logelako pisua alokagai Durangon. Garaje partzela aukeran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 42 77 02.

**Durango.** Durangon, Mikeldi kalean, pisua alokatzen da. Logela 2, komun 2, egongela, sukaldea eta balkoia. Garajea aukeran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 42 77 02.

**Elorrio.** Pisua alokagai Elorrio erdialdean, San Juan kalean. 111 m2, 3 logela, sukaldea, sarrera, saloia eta bainugela 2. Lehen pisua igogailuarekin. Kontaktua: Argia (posta elektronikoz bakarrik): argiaub@hotmail.com.

**Elorrio.** Etxebizitza alokagai Elorrion. 3 logela, bainugela 2, trastelekua eta sukalde egokitua. 600 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 45 72 01.

**Elorrio.** Pisua alokagai Elorrion. Lourdes etorbidean. Hiru logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berehala sartzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94 682 00 30.

**Elorrio.** 3 logelako pisua alokagai Elorrion. Guztia muntatuta, bizitzera sartzeko prest. Inguru lasaia, eta aparkatzeko oso erraza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 44 00 34.

**Eskoriatza.** Duplexa (lau logelarekin) eta hiru logelako etxebizitza bat errentan ematen dira, oso merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 70 36 63.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**

**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 301. Saldu | 501. Jaso | 701. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 302. Erosi | 502. Eman | 702. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 303. Errentan eman | 503. Bestelakoak | 703. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 304. Errentan hartu | | 704. Bestelakoak | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 305. Bestelakoak | **6. MOTORRA** | | |
| 106. Bestelakoak | | 601. Saldu | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| | **4. LANA** | 602. Erosi | 801. Saldu | |
| **2. GARAJEAK** | 401. Eskaintzak | 603. Alokatu | 802. Erosi | |
| 201. Saldu | 402. Eskaerak | 603. Konpondu | 803. Eman | |
| 202. Erosi | 403. Bestelakoak | 604. Bestelakoak | 804. Hartu | |
| 203. Errentan eman | | | 805. Trukatu | |
| 204. Errentan hartu | | | 806. Galdu | |
| 205. Bestelakoak | | | 807. Aurkitu | |
| | | | 808. Bestelakoak | |

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA,
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 117.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekua. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €. Berrituta.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €. Berrituta.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 114.192 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegi 54 m². 2 logela. 96.000 €.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Koldo Eleizalde 78 m², 3 logela. Berriztua. AUKERA BIKAINA. 200.000 €.
- San Antonio 70 m², 2 logela, igogailua. Garajea. Berria. 157.000 €.
- San Lorenzo, 87 m², duplex, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 159.000 €. PREZIO JAITSIERA
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- **ETXEBIZITZEN ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA. Leku onean eta prezio interesgarriak.**

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m2 garajea + 90 m2 lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m2. 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Tolosa.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Tolosan, persona bat edo bintzako egokitua,bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 450 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 644 47 51 69.

**Zaldibar.** Erdialdean, guztiz berriztua dagoen e jantzi barik dagoen 2 logeladun etxebizitza ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 45 87 56.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Beheko solairuan edota igogailua duen etxebizitza hartuko genuke errentan Arrasaten. Prezio ekonomikoan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 98 88 76

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasate erdialdean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 661 97 14 76

**Arrasate.** Logela bateko edo bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan hilabete baterako Arrasaten, denbora gehiago luzatzeko aukerarekin. laguntzen@gmail.com

**Baserria.** Debagoienean baserri edo lursaila duen etxe bat hartuko genuke errentan. Bertakoak gara eta etxea eta lurrak zainduko genituzke alokairu merke batean. Bikote arduratsua gara eta lanean gaude. 400 euroko alokairua ordainduko genuke. 675 61 09 77 edo 606 74 42 37

**Bergara.** Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:: 602 03 33 56

**Bergara.** Hiru pertsonaz osatutako familia batek etxe bat hartuko luke errentan Bergaran. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 630 99 11 85

**Bergara.** Neska euskalduna etxebizitza bila, errentan. Niretzako bakarrik da. Etxe txikia eta prezio egokian. Eskerrik asko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:: 680 35 26 00

**Oñati.** Mutil euskaldun eta lan finkodunak etxebizitza hartuko luke errentan, ahal bada erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 83 56 89

**Pisu bila Oñatin.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Oñatin, 3 logeladuna. Eskerrik asko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 652 70 35 29

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan grupo San Juanen, espazio komunak erabiltzeko aukerarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 602 69 31 56.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko san josepen. Garbia eta txukuna izatea beharrezkoa da. 628 85 42 06.

**Debagoiena.** Logela behar dut errentan, kontratuarekin eta bertan errolda emateko aukerarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara: 671 70 30 79

**Lasarte-Oria.** Logela ematen da errentan Lasarte-Orian. Eskatzen den bakarra lan- kontratudun pertsona izatea. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 644 23 91 52.

**Oñati.** Bi logela ematen dira errentan duplex berri bat osatzeko. Plazatik gertu. Wifi konexioarekin. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 656 74 29 49.

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Durango.** Garajea salgai Plateruen plazan. 28.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 47 57 85.

**Otxandio.** Garaje irekia salgai dago Otxandion. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 675 71 72 83.

**Otxandio.** Garaje estalia salgai Otxandion. Pertsianarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675 71 72 83.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Arrasaten. Uribe auzoan, unibertsitatea eta Garaia artean. Prezio onean. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 660 83 06 83.

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen. Handia da eta autoaz gain motorra edota bestelakoak gordetzeko txokoa dauka. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 615 73 98 30 / 943 24 53 57.

**Durango.** Garaje plaza alokairuan jarri nahi dut Durangon, Jesuitetan. Harremanetan jartzeko deitu zenbaki honetara: 946 55 06 04 / 667 20 15 16

## 3. LOKALAK

### 302. ERRENTAN EMAN

**Abadiño.** Berogailudun lokala alokagai, txoko funtzioa betetzeko. 130 m2. Mendiolan. Egun baterako alokatu daiteke, adibidez, jaiak antolatzeko (urtebetetzeak, ezkontzak, batzarrak, agurrak). PlayStation kontsola daukagu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94 605 62 79.

**Durango.** Durangon, Plateruen plazan bulegoa alokagai. Gastu guztiak barne 250 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 616 17 71 91.

**Elorrio.** Aukera zoragarria, Elorrion, 170m ko lokala herriaren erdian alokatzeko pres,berria, 5 eskaparate haundiak, autobus geltokiaren ondoan ... 400 euro, edozein negozio ipintzeko prest, primerako baldintzekin. 94 655 03 58. Etxelan. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 654 75 32 11

### 304. ERRENTAN HARTU

**Eskoriatza edo Aretxabaleta.** 70 metro koadroko lokal bat bilatzen ari gara, tximiniaduna, tailer bat montatzeko. Kontaktua: lajaboneriadelaalmendra@gmail.com. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 690 12 48 51 edo 945 10 09 54

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume bat behar da bost hilabeteko umea orduka zaintzeko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 606 01 18 32

### 402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua egunka zein orduka lan egiteko gertu etxeko lanak egiten zein taberna, elkartea, atari eta abarren garbitasunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 86 99 51

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki hauetara: 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Arrasate.** Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 98 20 91

**Bergara.** Premiaz lana bilatzen dut. Edozein motatako lana egiteko prest. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 606 24 79 09 edo 943 76 52 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informeak dituena, goizetanumeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88



Android Home proiektuaren aurkezpeneko une bat. | ENGADGET

# Google prest dago Android sistema etxeez jabe dadin

## Bilaketen handikiaren azken erosketa eta egitasmo berriek etxe barrura begirako estrategia erakutsi dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Etxeko gailu eta aplikazioen kudeaketa kontrolatzen duen domotikan dauka Google-ek ezarria begirada, Android sistema eragilearen bitartez. Zenbait enpresa erosita eta aurkeztu dituzten ekimen berriekin, etxea bilaketen handikiaren interesgune nagusietako bat dela agerian geratu da. Gutxi harrapatuko dituzten asmoek ezustean. Jada 2011ko konferentzia baten aurkeztu baitzuten Android Home egitasmoa, sistema eragilea ardatz hartuta gailu ekosistema bat aurkeztu zutenean.

Nest enpresa erosi berri du Google-ek, termostato eta kedetektagailu inteligenteak fabrikatzen dituena, bete-betean sartzeko etxeko kontsumoaren merkatuan. Robotak egiten dituen enpresa baten jabe ere bada Google eta aski ezagunak dira, baita ere, jada betaurreko inteligente eta erlojuak. Autoentzako sistema inteligenteetan ere badabiltza lanean, gainera. Lehen zurrumurruei entzunez gero, haurren monitorizaziorako eta sarraila eta itxitura inteligenteekin produktu sorta aterako du aurten Google-ek bere aldetik eta hortik hasiko luke eguneroko bizitzako gailu guztiak sarera konektatzeko plana. *Chromecast* berriki aurkeztua ere hor dago, itxura denez, etxeko nodo nagusi lanak egingo lituzkeena telebistara konektatu eta etxe guztia monitorizatuko litzatekeelarik.

# Otsailaren 11n izango da NSA-aren aurkako eguna

J.B. | ARRASATE

Interneteko zelataritza masiboaren aurkako eguna izendatu dute hainbat taldek datorren otsailaren 11. NSA-k eta zenbait gobernuk Interneten ezarri duten zaintza eta zelataritza sistematiko masiboa salatzeko eguna izango da eta deialdira batu dira Mozilla, *Reddit* ala *BoingBoing* moduko enpresa eta gune ezagunak.

Protesta egunarekin bat egiteko, erabiltzaileei sare sozialetako profil irudietan sinbolo bat erakusteko eskatu zaie. Reddit-en (*ttiki.com/60116*) aurki daiteke kanpainarekin lotutako informazio guztia. Dagoeneko 1.000 webgunetik gora atxiki dira eta Chicago eta Glasgow hirietan mobilizazioak antolatu dituzte. Antzerako deialdiak egin zituzten SOPA eta PIPA legeak salatzeko eta, bai baten zein bestean, deialdiak oihartzun zabala izan zuen. NSA-aren zaintzari dagokionez, Estatu Batuetako presidenteak datozen egunetan emango du egingo dituzten aldaketen berri.

# Facebooken lur-jotzea 2017rako iragarri dute

J.B. | ARRASATE

Gaur egun nagusi bada ere, asko dira jadanik Facebook-en beherakada eta lur-jotzea etorkizun hurbilean ikusten dutenak. Ikerketa batek dio 2015 eta 2017 urteen artean erabiltzaile basearen %80a galduko duela sare sozial ezagunak. Princeton Unibertsitatearen ikerketa bat da eta bizitza zikloa aztertu eta muga bat ezarri diote Facebook-i.

**Myspace eredu**

Azterketarako bi eredu hartu dituzte: Myspace-en bilakaera eta gaixotasun komun baten garapena. Ondorioztatu dutenez, Myspace-ek jada epidemia komun baten fase guztiak igaro ditu eta analogia bera erabil daitekeela Facebook izaten dabilen garapenarekin. Modelo epidemologikoa delakoa erabili dute oinarri zientifiko bezala eta 'kutsatua' izan daitekeen populazio bezala hartu dituzte erabiltzaileak, infekzio eta errekuperazio faseak banatuta. Eredu horri erantzuten ei dio Facebook-ek ere, hain zuzen.




CNMCBLOG.ES

## Kabinen iraungipena eta sakelakoen zabalkundea

Telefono kabinena desagerpen isila izan da ia eta eskuko telefonoen hedapen zabalak adierazten duena, erabat. Batzuen murrizketa eta besteen hazkundea lotuak daudenik, zalantzarik ez, baina irudiko grafikoak erakusten duenez, guztiz proportzionala izan da garapena. 2012an jada 1997an zeuden kabinen erdia geratzen ziren Espainia.



ALT1040

## Usainak jaso eta bidaltzeko gailua

OPhone delako gailua sortu dute Harvardeko Unibertsitateko ikasleek. Bluetooth bitartez konektatzen da telefono ala tabletarekin eta usain mailak sortzeko gauza da. Kafe usain ezberdinekin hasi dira ikertzaileak eta hortik usain maila ezberdinetara jo gura dute. Lehen saiakera arrakastatsua izan dela jakinarazi dute unibertsitatekoek.

## TELE-BEGI



**OIHAN VEGA**

# TVEn ze edaten dute?

Azken urtean Marilo Montero aurkezle nafar-andaluzak *momentazo* ugari oparitu dizkigu. Arimaren eta organoen transplanteen auzia, Sara Montielen hileta… badirudi barre eta lotsa ugari sortzeaz gainera, dirua eta audientzia ere erakartzen dituela; izan ere laster, programa berri bat emango diote Monterori.

Duela 30 urte Nafarroako neska itxurosoena izandakoak *El pueblo más divertido* telebista saio berria *prime time* ordutegian aurkeztuko du. Gidoia alde batera utzi eta inprobisatzen hasten bada, Ban Ki-moon etorri beharko da herrien arteko tirabirak konpontzera.

Polemikak beti dakar audientziaren gehitze bat, eta horren erregina Emma Garcia da. Zapatuan 12 urtetik gorako ikusleentzat den saioan orgia batekin egin zuen zuzeneko konexioa. Barre artean kazetariak bi txorta-lagun ere elkarrizketatu zituen.

Bien bitartean Somoanok hondoratu dituen TVEko albistegietan zegoen Cristina Onega profesionalak atzeko atetik irten eta telebista utzi du. Horrek ez zituen barrabaskeriak esaten edo titiak erakusten, hortaz…

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 27



**'Berriak'**

Asteburuan izandako albisteak eta egunekoak jaso ahal izango dituzue albistegien saioan. | **14:045**

**12:00** Atik Zra
**12:48** Berdekeriak
**13:18** Onein
**13:53** Berdekeriak
**14:23** Ikusten
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:20** Ur eta lur
**15:55** Onein
**16:25** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Bideo klipak
**17:48** Klaketa
**18:36** Ikusten
**18:58** Zorion Agurrak
**19:03** Berriak
**19:28** Eguraldia
**19:31** Harmailatik
**20:01** Berdekeriak
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Elkarrizketa
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**22:00** Harmailatik
**22:30** Elkarrizketa
**22:50** Erreportajea
**23:00** Berriak
**23:25** Eguraldia
**23:28** Gurean gaur

MARTITZENA, 28



**'Berbetan'**

Josu Unanue Bermeoko alkateordeak hiesari buruz hitz egingo du *Berbetan* izeneko saioan. | **22:25**

**12:00** Harmailatik
**12:30** Klaketa
**13:18** Onein
**13:50** Ikusmira
**14:13** Erreportajea
**14:28** Erreportajea
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Harmailatik
**15:43** Onein
**16:10** Erreportajea
**16:24** Zorion Agurrak
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Zorion Agurrak
**17:03** Klaketa
**17:51** Harmailatik
**18:21** AsteON
**18:52** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Zorion Agurrak
**19:33** Kantari
**20:03** Zorion Agurrak
**20:12** Erreportajea
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** AsteON
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**22:00** Erreportajea
**22:25** Berbetan
**23:00** Berriak
**23:25** Eguraldia
**23:28** Gurean gaur

EGUAZTENA, 29



**Elkarrizketa**

Kontsumo eredua izango da berbagai; tartean, Euskoa izeneko monetari buruz jardungo dugu. | **21:00**

**12:00** Harmailatik
**12:30** Onein
**13:02** Kantari
**13:27** Elkarrizketa
**13:47** AsteON
**14:17** Erreportajea
**14:35** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Aizank!
**15:51** Harmailatik
**16:31** Berriak
**16:56** Eguraldia
**16:59** Harmailatik
**17:29** Berbetan
**18:04** Ikusten
**18:26** Ikusmira
**18:51** Zorion Agurrak
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Bideo klipak
**19:48** Aizank!
**20:26** Zorion Agurrak
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:57** Elkarrizketa
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**21:58** Atik Zra
**22:46** Erreportajea
**23:00** Berriak
**23:25** Eguraldia
**23:28** Gurean gaur

EGUENA, 30



**'Planik bai?'**

Asteburura begira bailaran izango diren kultura ekitaldien berri jaso ahal izango duzue eguenean. | **16:50**

**12:00** Harmailatik
**12:30** Onein
**13:02** Ikusi irratia
**13:52** Elkarrizketa
**14:22** Zorion Agurrak
**14:31** Erreportajea
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Berbetan
**15:48** Onein
**16:18** Zorion Agurrak
**16:24** Berriak
**16:49** Eguraldia
**16:52** Planik bai?
**17:12** Elkarrizketa
**17:42** Berbetan
**18:17** Zorion Agurrak
**18:23** Aizank!
**19:00** Berriak
**19:25** Eguraldia
**19:28** Planik bai?
**19:48** Kantari
**20:16** Erreportajea
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Planik bai?
**21:18** Erreportajea
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**21:58** Klaketa
**22:46** Planik bai?
**23:06** Berriak
**23:31** Eguraldia
**23:34** Gurean gaur
**23:54** Planik bai?

EGUBAKOITZA, 31



**'AsteOn'**

Asteko albiste esanguratsuenen errepasoa egingo dugu, besteak beste, *AsteOn* saioan. | **22:00**

**12:00** Planik bai?
**12:20** Onein
**12:50** Kantari
**13:15** Bideo klipak
**13:35** Ikusi irratia
**14:25** Planik bai?
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Ikusi irratia
**16:03** Zorion Agurrak
**16:08** Planik bai?
**16:30** Berriak
**16:55** Eguraldia
**16:58** Elkarrizketa
**17:28** Zorion Agurrak
**17:37** Aniztasunean bizi
**17:57** Klaketa
**18:45** Planik bai?
**19:05** Berriak
**19:30** Eguraldia
**19:35** AsteON
**20:05** Zorion Agurrak
**20:10** Planik bai?
**20:30** Berriak
**20:55** Eguraldia
**20:58** Planik bai?
**21:18** Erreportajea
**21:30** Berriak
**21:55** Eguraldia
**22:00** AsteON **23:25** Eguraldia
**23:28** Gurean gaur
**23:48** Planik bai?
**00:08** Elkarrizketa

### ARRASATE IRRATIA

#### Kultura zinegotzi Kepa Urteaga izango dugu martitzenean 107.7an

Arrasateko 2014. urteko kultura asmoen berri emango digu bihar, martitzena, Kepa Urteagak, Kultura zinegotziak. Horrez gain, hitz egingo digu, besteak beste, erlojuaren eraikinaren egoerari buruz. Hori guztia martitzenean izango da, *Igo autobusera!* irratsaioan, goizeko hamaiketatik aurrera.

#### Arlutz Arrasate xake taldeari buruz jardungo dugu gaur, astelehena

Arrasate Irratiko autobusera igoko dira gaur, astelehena, Aitor Alkaide eta Ekaitz Mendizabal, Arlutz Arrasate Xake taldeko kideak. Xakea izango dugu berbagai eurekin eta elkarrizketa entzungai izango duzue *Igo autobusera!* irratsaioko elkarrizketaren tartean, hamaiketatik aurrera.

#### Gose taldearen kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu

Egubakoitzean Oñatiko Gaztelekuan joko du Arrasateko Gose taldeak eta haien aurretik izango da Carles Belda Valls kontzertuan. Bertara joateko sarrerak dauzkagu eta zozketan parte hartzeko 943 25 05 05 telefonora deitu edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzi beharko duzue. Parte hartu eta zorte on!

## TELE-ALBISTEAK

# Kantari: Arrasateko hirugarren eta laugarren saioak martitzenean eta eguenean Goienan

### Arrasateko 11 talde berri ezagutuko ditugu Goiena telebistan aste honetan

**AMAIA TXINTXURRETA** | ARRASATE

Joan den astean estreinatu genituen Arrasaten grabatutako Kantariren laugarren edizioko lehenengo bi saioak. Bada, aste honetan, Amaia antzokian hilaren 18an grabatutako beste bi saio berri estreinatuko ditugu.

Hirugarren saioa bihar, martitzena, estreinatuko dugu, 19:33an; eta laugarren saioa, berriz, eguenean estreinatuko dugu, 19:48an. Martitzeneko saioa eguaztenean errepikatuko dugu, 13:00etan, eta eguenekoa, ostera, egubakoitzean, 12:50ean.



Arrasateko Amaia antzokia jendez lepo Kantariren grabazioetan. | GOIENA

**Askotariko euskal abestiak**

Martitzeneko saioan, guztira, sei talde ikusiko ditugu Amaia antzokiko taula gainean dantzan eta kantuan eta abesti hauek entzungo ditugu gure artisten ahotsetan: *Zuk esan, Furra furra, Nere erri, Bang bang, Zarena zarelako* eta *Atsegin ditut*.

Egueneko saioan, berriz, bost kantu hauek izango ditugu: *Begitara begira, Bang bang, Laztana, Ilargia* eta *Sweet Mary*.

# Aloña-UDA derbia ikusgai, besteak beste, 'Harmailatik' kirol saioan

### MUren saskibaloi partidua, pilota eta errugbia landuko ditugu gaur, astelehena, 22:00etan

**A.T.** | ARRASATE

Asteburuan hainbat kirol kontu izan ditugu Debagoienean eta horien errepasoa egingo dugu gaur, astelehena, 22:00etan, Goiena telebistan.

Oñatiko Aloñak eta Aretxabaletako UDAk derbia jokatu zuten atzo, domeka, Azkoagainen, eta bertan gertatutakoa erakutsiko dizuegu, protagonisten adierazpenekin batera.

MU taldeko mutilek, berriz, saskibaloi partidua izan zuten Iturripen Biok Zerbitzua taldearen aurka eta han gertatutakoa ere jasoko dugu saioan.

Mikel Goñi pilotaria, bestalde, Oñatin izan zen zapatuan egin zen pilota jaialdian eta bi partidu jokatu ziren Zubikoa kiroldegian. Bertan pasa zenaren berri ere emango dizuegu kirol saioan gaur.



Derbiaren une bat. | GOIENA

Eta amaitzeko, errugbi kontuak ere izango ditugu; Arrasate ART taldeak Iruñearen aurka jokatuko du eta hori ere erakutsiko dizuegu.

## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Piedad Cordero**
Otsailaren 1ean, 70 urte. Zorionak, amama Piedad. Ondo pasatu zure eguna! Musu asko etxekoen eta, bereziki, Alazneren eta Eideren partetik.



ARRASATE
**Jose Javier Sandoval Garcia**
Otsailaren 1ean, 43 urte. Zorionak, aitatxo. Ondo pasatu eguna, etxekoen partetik. Jarraitu horrela. Zu zara aitarik onena.



DEBAGOIENA
**Florencia Gallego Tena**
Otsailaren 1ean, urtebetetzea. Zure senarraren, seme-alabaen eta biloben partetik, zorionak eta besarkada handi bat. Ondo ospatu eguna.



URRETXU
**Itziar Zabaleta**
Urtarrilaren 31n, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, neska handi. Ondo pasatu zure urtemugan. Aitatxo, amatxo, familia, Maier, Irati, Leire eta bereziki zure anaia Markelen partetik.



ARRASATE
**Ane Barrenetxea Garzia**
Urtarrilaren 30ean, 7 urte. Zorionak, Anetxo! Muxu handi bat etxeko guztien partetik. Oso ondo pasatu zure urtebetetzea!



ARETXABALETA
**Ganix Gomez Iturbe**
Urtarrilaren 28an, urtebete. Ene! Asteartian Ganix gure artista txikiak urtebete! Ederra izan dadila ondo merezitako eguna. Muxutxuek etxekoen eta, bereziki, Andoitzen partetik.



ESKORIATZA
**Iratxe Arrese**
Urtarrilaren 27an, 24 urte. Zorionak Mañurtiko printzesari bere 24. urtebetetzean! Ez ahaztu ardotxo bat, edo bi, edo hiru... gonbidatzeaz, eh! Ondo pasatu eguna eta topera disfrutatu!



OÑATI
**Izar Bikuña Malbadi**
Urtarrilaren 27an, 10 urte. Zorionak, Izar! Hamarkada bat bete dozu jada! Disfrutatu zure eguna topera, merezi dozu-eta. Muxu eta besarkada potolo bat danon partetik. Asko maitte zaitugu!



BERGARA
**Irati Iriondo Igarza**
Urtarrilaren 27an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



ANTZUOLA
**Arantzazu Gezalaga**
Urtarrilaren 27an, 4 urte. Zorionak, Arantzazu! Ondo-ondo pasatu zure egunean lagun eta familiarekin, guztien partetik eta bereziki Julenen partetik, patxo handi-handi bat, *kariño*.



BERGARA
**Eneko Gantxegi Gallastegi**
Urtarrilaren 27an, 3 urte. Zorionak, *guapo*! Mux.

.



ARRASATE
**Eider Prieto Goñi**
Urtarrilaren 26an, 11 urte. Zorionak, Eider! Ondo pasatu zure urtebetetzean! Etxekoen eta lagun guztien partetik.



ARRASATE
**Aimar Agirre Lete**
Urtarrilaren 26an, 8 urte.Zorionak denon partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean guztiokin batera eta patxo handi bat danon eta, bereziki, Ekainen partetik.




OÑATI
**Aiur Moreno Zubia**
Urtarrilaren 26an, 3 urte. Zorionak, *pilottori*! Zu bai opari ederra! Hiru muxu potolo etxeko danon eta, bereziki, Naroaren partetik. Mua, mua, mua!



OÑATI
**Naroa Letamedi Narraspe**
Urtarrilaren 23an, 5 urte. Zorionak, maittia! Muxu pilo bat etxeko danen eta, bereziki, amatxoren, aitatxoren eta Naiaren partetik. Ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat.



OÑATI
**Asier Nogueiras Guzman**
Urtarrilaren 23an, 6 urte. Zorionak, Asier! Zure etxekoen partetik. Urte askotarako! Bost muxu zuretzat!



DEBAGOIENA
**Irene Valle Gallastegui**
Urtarrilaren 22an ,11 urte. Zorionak, Irene! Ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat familia guztixaren partetik!



ARRASATE
**Hodei**
Urtarrilaren 22an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxekoen partetik!



ESKORIATZA
**Ibai Apraiz Garcia**
Urtarrilaren 22an, 6 urte. Zorionak, txapeldun, etxekoen partetik.



RRASATE
**Iraia Nieto Gorosabel**
Urtarrilaren 21ean, 10 urte. Zorionak, prexioxa! Patxo potolo bat zure familia eta lagunen partetik!



OÑATI
**June Bruna Aiastui**
Urtarrilaren 20an, 2 urte. Zorionak, June! Bi urtetxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat familixa danaren partetik. Mua!



OÑATI
**Iker Gil Albizu**
Urtarrilaren 19an, 10 urte. Zorionak! Besarkada bero bat denon partetik. Aurten Athletic kopa irabazlea izango da. Merendola goxo bat espero dugu, kar,kar.



DEBAGOIENAI
**Ekaitz Andres**
Urtarrilaren 28an, 10 urte. Zorionak, mutiko handi! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxeko guztion partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK



### Xabat Martinez Ugarte

Arrasate 2,840 kilo. Urtarrilaren 22a. Gurasoak: Aitziber eta Aitor. Argazkian, Xabat amarekin batera.



### Iker Elkorobarrutia Parra

Aretxabaleta 3,260 kilo. Urtarrilaren 23a. Gurasoak: Eneko eta Ainhoa. Argazkian, Iker amaren besoetan.



### Mara Valentin Garcia

Bergara 2,150 kilo. Urtarrilaren 23a. Gurasoak: Lourdes eta Manuel. Argazkian, Mara jaioberria amarekin.



### Axel Anduaga Cortes

Aretxabaleta 3,370 kilo. Urtarrilaren 19a. Gurasoak: Irati eta Urko. Argazkian, Axel aitaren besoetan.



### Amets Esnal Bartolome

Aretxabaleta 3,480 kilo. Urtarrilaren 21a. Gurasoak: Iker eta Eneritz. Argazkian, Amets jaioberria sehaskan lo.



### Deiane De Borja Davila

Bergara kilo. Urtarrilaren 21a. Gurasoak: Nagore eta Juan. Argazkian, Deiane jaioberria sehaskan.



### Irati Egaña Intza

Oñati 2,740 kilo. Urtarrilaren 20a. Gurasoak: Agurtze eta Ismael. Argazkian, Irati sehaskan lo.



### Lucia Ruiz Maiztegi

Arrasate 2,620 kilo. Urtarrilaren 18a. Gurasoak: Elian eta Fer. Argazkian, Lucia jaioberria gurasoekin.



### Aiur Rodriguez Jauregi

Antzuola 3.740 kilo. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Ainara eta Maolo. Argazkian, Aiur jaioberria, argi-argi.



### Martin Mujika Cid

Elgoibar 3,490 kilo. Urtarrilaren 18a. Gurasoak: Maria eta Ander. Argazkian, Martin jaioberria sehaskan.

## Jaio da!



**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

**zorionak!**

Eroskik zuen lehen beharretarako,
**OPARIA***
egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

## DENBORA-PASA

### HITZ GEZIDUNAK




LUMA

### BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.





### SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK



BILA-BILA 7



## AI, ENE!

### Beldurra ezagutzen ez duten ninja hegalariak



James Bonden pelikulen ekoizleek argazki horretatik ideiak har ditzakete hurrengo atalerako. Bada benetan astakiloa den jendea...
**www.todohumor.com**

## AHOBERO

### "Eginda eroaten badituzu, hobeto, eta txakurrek antzemango ez dituzten lekuan"

ESPAINIAKO POLIZIA NAZIONALA

Ez dakigu zer den harrigarriagoa: Twitter bidez norbaitek poliziari porroak atzerrira nola eroan galdetzea edo Poliziak aholkuak emanaz erantzutea. Horrela, normala da FBI eta gero Espainiakoa izatea Twitterren jarraitzaile gehien dituen polizia.
**www.twitter.com**

## EGURALDIA

Max. 8º
Min. 5º

Fronte bat pasatuko da eta euria oso sarri egingo du, ia etenik gabe.
**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA
goiena
2014-01-27

## HAMARREKOA

**Aitor Merino** Aktore donostiarrak 'Asier ETA biok' dokumentala egin du arreba Amaiarekin: Aitorren eta duela hamar urte ETAn sartu zen Asier Aranguren txikitako lagunaren harremana du ardatz | TXOMIN MADINA

# "Asier espetxean dagoela, bere ahotsa libre da aretoetan"

**1. Galderei erantzutea edo galderak planteatzea, zer lortu nahi izan duzu *Asier ETA biok*-ekin?**
Galderak planteatzea: hainbat planteatzen ditugu, eta uste dut ikusle bakoitzaren bizipenen araberakoa izango dela bakoitzari buruan gehien burrunbatuko diona.

**2. Euskaldun batentzat erraza da Madrilen euskal gatazka azaltzea?**
Ez. Euskal gatazka gatazka politikoa dela azaltzea bera gatazka bat da. Zerotik ez, minus bostetik hasi behar da planteamendua.

**3. Zure helburua gaizki ulertua izateko beldurrik izan duzu?**
Bai. Horregatik, pelikula egiteak iraun duen hiru urteko prozesuan zehar, Madrilen, Euskal Herrian eta Ekuadorren hainbat lagunekin elkartu gara: ikustaldi horietan iritziak jaso eta gero aintzat hartzen genituen, aldaketak egin eta benetan nahi genuena kontatzeko.

**4. Asierrekin berriz elkartzean, zerk harritu zintuen gehien?**
Asierrekin baino gehiago, neure buruarekin harritu nintzen: nola Asierren inguruko hainbat kontu saihesten nituen eurei aurre ez egitearren; pelikulan agertzen diren hainbat beldur.

**5. *Crowdfunding* barik, posible izango litzateke proiektu hau?**
Ezingo genukeen bukatu, baina ez da pelikula osoa finantzatzeko nahikoa, azken bultzada baizik. Diruaz gain, jendearen babesak indarra ere ematen dizu.



AGM

**6. Pelikulak Asierren atxiloketarengatik ere badu gaurkotasuna.**
Gogorra izan da; hasieran harritu eta gero asko haserretu ginen. Baina uste dut pelikula egokiagoa dela: espetxean dagoen bitartean, bere irudia eta ahotsa libre daude aretoetan. Gure herriak ez ditu horrelakoak merezi.

**7. Arrebarekin idatzi eta zuzentzea zenbateraino izan da erronka?**
Erronka baino gehiago, erraztasuna izan da. Oso harreman polita daukagu, elkar oso ondo ezagutzen dugu; osagarriak gara: oso ondo betetzen ditu nire gabeziak, eta nik bere batzuk. Talde indartsua gara. Amaia Andraka ekoizleak ere bai: aulkiaren hirugarren hanka da.

**8. Ez da kameraren atzean egiten duzun lehen lana. Eroso?**
Aktorea izan arren, txikitatik gehiago gustatzen zait argazkiak ateratzea argazkietan ateratzea baino. Kamera atzean jartzeak behar bati erantzuten diola esango nuke.

**9. Eta hurrengoa aurrean ala atzean izango da?**
Momentu honetan aurrean, *Goenkale*-n nago-eta. Baina hurrengoa ez aurrean, ez atzean: antzerkia egingo dut, aktore moduan.

**10. 16 urterekin Madrilera aktore izatera joan zen Aitorrek aurkitu du bila zebilena?**
Bai: aktore izateko joan nintzen, eta hala naiz. Nire burua Hollywooden imajinatzen banuen, ez da gertatu; ezta beharrik ere!

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

## "Kodizia ezabatuko nuke"

"Kodizia ezabatuko nuke: nire ustez, kodizia da mundua jaten duena, zalantza barik".

## BIHARAMUNA



AINHOA LARRAÑAGA

## Sinzerizidioa

Psikologoek sinzerizidio izenaz bataiatu dute, zintzo(egi) a izateak sortzen duen eragin negatiboa harremanetan. Norbaiti egia esateak eragin lezake urruntasuna eta harremanaren desegitea. Haurtzaroan izaten dugu gure zintzotasunerako bulkada garatuen eta bizitzan aurrera goazela higatuz doan bulkada da. Ikasten eta ikusten dugu ezin dela beti egia esan eta ariketa "inteligenteak" eraikitzen ditugu egiari ihes egiteko; norbait mintzeko edo norbaitekin harremana hausteko beldur garelako, gure lanetik botako gaituzten beldur…

Hainbatetan egia hori esan ezinak sortzen digu barruan mina, sua, haserrea, inpotentzia eta txikitu egiten gaitu pertsona moduan. Gabriel Arestik esan zuen: *Egia bat esategatik alabak hil behar bazaizkit , andrea bortxatu behar badidate, etxea lurrarekin berdindu behar bazait (…) inoiz, inola, inun ez naiz ixilduko*. Gardentasunez jokatu ala egia ezkutatzearen artean hautatu behar dugunean, lagungarri dira Arestiren berbak.

Horra aukera, zintzotasunagatik "hil" edo norbere buruari eta ingurukoei huts egiteagatik "hil": sintzerizidioa edo gezurzidioa.

b+b
batu-banatu
banaketak neurrira
Tel.: 943 08 10 50
banaketak@batubanatu.com

**Banaketa aukera ezberdinak**
• Banaketa **masiboa**.
• **Autoz auto** banatzea.
• **Kartelak** ipini.
• Banaketa **pertsonalizatua** (bezero edo hartzaile konkretuei).
• **Goiena papera**rekin batera (astelehenetan eta ostiraletan).

***Banaketaren jarraipena eta kalitate kontrola egiten dugu.***



Eskatu aurrekontua konpromiso barik!

Gure langileak Gizarte Segurantzan alta emanda daude eta lan-arriskuen prebentzio legedia betetzen dugu.